Zulakaitz anizkun mistoa / Buril múltiple mixto	2	1,03
Noailles zulakaitza / Buril de Noailles	107	55,15
Ertza guztiz zanpatua duen orria / Hoja de borde abatido total	7	3,61
Mozturadun pieza zuzena / Pieza truncada recta	4	2,06
Mozturadun pieza zeharra / Pieza truncada oblicua	3	1,55
Mozturadun pieza ahurra / Pieza truncada cóncava	1	0,52
Moztura bikoitzeko pieza / Pieza de doble truncadura o bitruncada	2	1,03
Ertz batean ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre un borde	8	4,12
Bi ertzetan ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre los dos bordes	1	0,52
Erramu-orria / Hoja de laurel	1	0,52
Kamerdun pieza / Pieza de muesca	10	5,15
Pieza dentikulatua / Pieza denticulada	2	1,03
Pieza ezpaldua / Pieza astillada	2	1,03
Mozturadun orritxo / Hojita truncada	7	3,61
Bizkardun orritxo / Hojita de dorso	4	2,06
Kamerdun orritxo / Hojita de muesca	2	1,03
Mozturadun ijeki ukitua / Lámina retocada con truncadura	1	0,52
Bestelakoak / Diversos	10	5,15
<i>Noailles aurreforma / Preforma de Noailles</i>	1	0,52
<i>Printza ukitua / Lasca retocada</i>	2	1,03
<i>Tresna zatia / Fragmento de útil</i>	4	2,06
<i>Ukiera alderantzikatu erdi-malkartsua duen ijekitxo zatia / Fragmento de laminilla con retoque inverso semiabrupto</i>	1	0,52
<i>Ukiera alderantzikatuko ijekia / Lámina con retoque inverso</i>	1	0,52
<i>Ukiera erdi-malkartsuko printza / Lasca con retoque semiabrupto</i>	1	0,52
Pieza ukituak guztira / Total retocados	194	12,23
Ukitu gabeko tresneria / Utillaje sin retocar	1392	87,77
Guztiak batera / Total general	1586	100,00

14. taula.V. mailako zerrenda tipologikoa (Sonneville-Bordes eta Perrot, 1956). / Tabla 14. Lista tipológica (Sonneville-Bordes y Perrot, 1956) del nivel V.

Motak /Tipos	Kop.	%
Marruskak guztira / Total raspadores	2	1,03
Konposatuak guztira / Total compuestos	3	1,55
Zulagailuak guztira / Total perforadores	2	1,03
Zulakaitzak guztira / Total buriles	123	63,40
Puntak guztira / Total puntas	0	0,00
Bizkardun piezak guztira / Total piezas de dorso	7	3,61
Mozturak guztira / Total truncaduras	10	5,15
Ijeki ukituak guztira / Total láminas retocadas	9	4,64
Ale hostokarak guztira / Total foliáceas	1	0,52
Pieza ezpalduak guztira / Total piezas astilladas	2	1,03
Substratu-tresnak guztira / Total sustrato	12	6,19
Raclette-ak guztira / Total rechettes	0	0,00
Geometrikoak guztira / Total geométricos	0	0,00
Ijekitxo ukituak guztira / Total laminillas retocadas	13	6,70
Askotarikoak guztira / Total diversos	10	5,15
GUZTIRA / TOTAL	194	100,00

15. taula.V. mailako tresneria kategoría handiak.

Tabla 15. Grandes categorías de utillaje del nivel V.


Marruskak (54. irudia. 1-2): Bi marruska baizik ez dira berreskuratu V. mailan; marruska soila da bata, Gaintxurizketako suharri-ijeki baten alboaren gainean bideratua, eta zehaztu gabeko suharri-ijeki ukituaren gainean bideraturikoa da bestea.

Ijeki zabalak eta luzekarak ditugu bi kasuetan aukeratu ziren euskarriak; euskarrian berriaz eginiko hausturaren birtartez kontrolatu zen haien luzera eta, beraz, nahiko formatu homogeneoak dira biak (35,5x24x6 mm batez beste). Erabiler-a-arrastoei dagokienez, erabilerak eraginiko eremu altxatuak dokumentatu dira marruska soilaren alboko sorbatz batean. Aipa dezagun, gainera, patinak ageri dituztela bi aleek, maila honetan maiz gertatzen den bezala (burdinazko patinak eta manganeso orbanak).

Konposatuak edo Mota bikoitzak (54. irudia. 3): Oso bakan azaldu dira multzoaren barruan (K=3) eta honako hauek dira: Marruska-Zulakaitz bat, Marruska-Moztura bat eta Zulakaitz-Moztura bat. Hautaturiko euskarriak ijekiak dira, tipometria aldetik marruskenak baino txikixeagoak (33x20x6 mm batez beste). Lehengaiei dagokienez, Bidaxuneko suharrian taxutuak dira haietako bi (azaleko bizkarra darama bietako batek) eta Gaintxurizketako suharrian bestea.

Zulagailuak: Maila honetan pi pieza baizik ez ditugu oro har zulagailutzat hartu, eta ohiz kanpokoak dira hain zuzen ere biak printza gainean itxuratua bata eta ijeki zati baten gainean bestea. Bidaxuneko eta Urbasako suharrietan landu ziren hurrenez hurren. Aukeraturiko euskarriak neuri txikikoak dira, 20x20 mm-tik beherakoak, eta erpina hautsirik ageri du haietako batek.

Zulakaitzak (54. Irudia. 4-20): VI. mailako zulakaitzak aztertu genituenan adierazi genuen bezala, zulakaitz mota batzuen kasuan, irakurketa tipologikoaz gainera kontuan hartu beharko lirarteke haien ezaugarri teknologikoak, hala nola ijekitxo-nukleoak.



51. irudia. Kutxa eta arbotante grafika,V. mailako euskarri gordin ukituen neuri nagusiak erakusgai.

Figura 51. Gráfico de cajas y arbotantes con las principales dimensiones de los soportes brutos y retocados del nivel V.

Raspadores (Fig. 54.1-2): En el nivel V solamente se han recuperado 2 raspadores, un raspador simple sobre extremo de lámina de sílex de Gaintxurizketa y otro raspador sobre lámina retocada de sílex indeterminado.

Los soportes elegidos en ambos casos son láminas anchas y alargadas, en los que la longitud se ha controlado mediante la fractura intencional del soporte, lo que ha dado lugar a unos formatos bastante homogéneos (35,5x24x6 mm de media). Respecto a las huellas de uso, se han documentado desconchados de uso en uno de los filos laterales del raspador simple. Debemos mencionar además que ambos ejemplares muestran pátinas, bastante frecuentes en este nivel (pátinas ferruginosas y manchas de manganeso).

Compuestos o Tipos dobles (Fig. 54. 3): También muy escasos dentro del conjunto (N=3), se trata de un Raspador-Buril, un Raspador-Truncadura y un Buril-Truncadura. Los soportes elegidos son láminas tipométricamente algo menores que las de los raspadores (33x20x6 mm de media). Con respecto a las materias primas, dos de ellas están fabricada en sílex de Bidache (una arrastra un dorso cortical) y la otra sobre sílex de Gaintxurizketa.

Perforadores (Fig. 56. 1-2): En este nivel solamente hay dos piezas clasificadas genéricamente como perforadores, y los dos son atípicos, uno sobre lasca y el otro sobre fragmento de lámina. Los sílex empleados son Bidache y Urbasa. Los soportes elegidos son de pequeño tamaño, menores de 20x20 mm y uno de ellos tiene el ápice fracturado.

Buriles (Fig. 54. 4-20): En el caso de algunos tipos de buriles, como vimos en el caso de los buriles del nivel VI, además de la lectura en términos tipológicos habría que tener en cuenta sus características tecnológicas como núcleos de laminillas.

Zulakaitzen multzoak tresneria ukituaren erditik gora hartzen du (K=123), eta Noailles zulakaitzen barruko sailean egokitu behar dira, gainera, haietako gehienak (K=107). Halakotzat hartuak dira, beraz, tresna ukitu guztien % 55.

Gainerako zulakaitz multzoek askoz ere pieza kopuru txikiagoak ageri dituzte, eta kopuru berdintsuan banatuak dira sail bakoitzean. Diedro formatukoak (K=5) eta nukleo itxurako zulakaitzak, hau da, zulakaitz anizkunak (K=5), baino ugariago (K=6) ageri dira mozturadun zulakaitzak (Noailles motakoak kontatu gabe).

Ijeki-euskarriak ageri dira nagusiki tresna hauen euskarri gisa (% 65). Formatu handiko zulakaitzei begira, ijeki lodi xamarak, tamaina onekoak eta estuak aukeratu zituzten (33x15x7 mm batez beste); azaldunak dira haien erdiak baino gehiago. Kopuru txikiagoan bada ere, modu esanguratsuan bideratu zituzten, era berean, printza azaldunak (% 12) eta egokitza-penerako produktuak (% 19). Neurri txikiko zulakaitzei begira (Noailles), ijeki eta ijekitxo formako euskarriak hautatu zituzten baitez ere (% 77). Ijekitxo zabalak erabili zituzten nagusiki (22x11x3 mm batez beste), eta azaldunak dira haien % 12. Tamaina txikiko printzak ere baliatu zituzten horretarako (% 19); azaldunak dira pieza haien laurdenak. Gutxiago erabili zituzten egokitza-penerako produktuak (% 4).

Lehengaien artean, zehaztu gabeko suharrietan taxutu ziren % 16 eta, gainerakoen artean, Flysch-eko, hau da, Bidaxune eta Gaintxurizketako suharriak, erabili ziren euskarrien % 54an, eta Urbasako % 24an. Leku urrunagoetako suharrien erabilera (Chaloss, Tebiñu, Tercis) oso murriztua da, ez da % 6ra iristen.

Zulakaitz diedroak (54. irudia. 8-9): Zulakaitz diedroak, angeludunak eta haustura gainekoak hartu ditugu aintzat multzo honetan. Ez dira ugari (K=5): nagusi ageri dira zulakaitz diedroak (K=3), diedro desbideratua da beste bat, eta haustura gaineko angeluduna azkenekoa. Beste bi multzoetakoek baino modulu luzeagoak ageri dituzte (52. irudia), eta zulakaitz-ebakinak luzeak eta zabalak dira (26x8 mm batez beste). Ez da ohikoa diedroaren aurpegietan erazte anitz egin izana dokumentatzea, baina birbizitu egin zituzten haietako batzuk. Zulakaitz hauek nukleo gisa erabili zirela iradokitzen digute modulu hauek; alabaina, ale batean eremu altxatuak sumatzen dira ezkerretako sorbatzean eta diedroan.


El grupo de los buriles supone más de la mitad del utillaje retocado (N=123) y la mayor parte de ellos se pueden clasificar como buriles de Noailles (N=107), que por sí solos representan el 55% del utillaje retocado.

El resto de grupos de buriles muestran un número de efectivos mucho menor y están repartidos de forma bastante igualitaria. Los buriles sobre truncadura (sin contar los Noailles) son ligeramente más abundantes (N=6) que los formatos diedros (N=5) y que los buriles nucleiformes o múltiples (N=5).

Cómo soporte de estos útiles predominan los soportes laminares (65%). Para los buriles de gran formato se han elegido láminas bastante espesas, de buen tamaño y estrechas (33x15x7 mm de media), más de la mitad de ellas son corticales. También se han utilizado en menor medida lascas corticales (12%) y productos de acondicionamiento (19%). Con respecto a los buriles de pequeño formato (Noailles) los soportes laminares son los elegidos de forma preferencial (77%). Se trata principalmente de laminillas anchas (22x11x3 mm de media) de ellos un 12% son corticales. También se han usado lascas de pequeño tamaño (19%), de las cuales un cuarto son corticales, y en menor medida productos de acondicionamiento (4%).

Entre las materias primas hay un 16% de sílex indeterminados, de los restantes, el 54% de los sílex proceden del Flysch, de Bidache y de Gaintxurizketa, y un 24% procede de Urbasa. El uso de sílex procedentes de zonas más lejanas como Chalosse, Treviño, o Tercis es muy reducido, no llega a un 6%.

Buriles diedros (Fig. 54. 8-9): En este grupo hemos incluido los buriles diedros, de ángulo y sobre fractura. No son abundantes (N=5), y predominan los buriles diedros rectos (N=3), también hay un buril diedro desviado y uno de ángulo sobre rotura. Presentan módulos más alargados que el resto de los grupos (Fig. 52) y los golpes de buril son largos y anchos (26 x 8 mm de media). No es habitual la existencia de múltiples extracciones en los paños del diedro, pero algunos han sido reavivados. Estos módulos parecen indicar el uso de estos buriles como núcleo, aunque hay un ejemplar que también presenta desconchados en el filo izquierdo y en el diedro.



52. irudia. Kutxa eta arbotante grafikak, V. mailako zulakaitzetan erabilitako euskarrien neurriak agerian.

Figura 52. Gráficos de cajas y arbotantes con las medidas de los soportes empleados en los buriles del nivel V.

Zulakaitz anizkunak (54. irudia. 4-5): Multzto honetara bildu ditugu Busqué zulakaitzak, nukleo formako zulakaitzak eta zulakaitz anizkunak. Ez dira asko hauek ere ($K=5$), eta nagusi azaltzen dira haien artean zulakaitz anizkun mistoak; bakarrak dira, aldiz, mozturadun zulakaitz anizkuna eta busqué motako zulakaitza. Multzto honetako piezen ezaugarria da euskarri lo-diagoen erabilera (10 mm batez beste), beste zulakaitzenak baino sendoagoak baitira. Nukleo formako izaera markatua ageri dute, bestalde, eta neurri txikiko ijekitxoen matrize gisa erabiliko zituzten (16x4 mm batez beste). Ez da haietan erabilera-arrasto makroskopikorik azaldu.

Mozturadun zulakaitzak (54. irudia. 6-7): Moztura uharren gainean taxutu zituzten maila honetan dokumentatu diren mozturadun zulakaitz guztiak. Laburxeagoak, estuak eta finak dira zulakaitz hauen euskarriak (27x15x6 mm batez beste), baina luzexkak eta estu xamarrek dira aurpegi negatiboak (23x3 mm batez beste). Gandor gidatzaileen erabilera dokumentatu da sorbatzetan, bai eta eremu altxatuak ere, ale batean behinik behin.

Noailles zulakaitzak (54. irudia. 10-20): VI. mailan gertatu bezala, horietan izan ziren ukiera lanen helburu nagusia, tresneria ukituaren % 55 hartzen baitute. Baliatu zituzten euskarriak neurri askotakoak ziren (erruz ageri dira ez-ohiko baliok), baina euskarri txiki arinak erabili ziren nagusiki (20x12x4 mm batez beste).

Ohiko Noailles zulakaitzak dira gehienak, moztura gainean taxutuak, gelditze-kamerrez eta aurpegi laburrez hornituak, eta oso estuak (10x1 mm). Ez dirudi, beraz, euskarrien ekoizpenari begira lantzen zirenik. Kasuen % 85ean zulakaitz-ebakina moztura fin baten gainean bideratu bazen ere, zuzenean aplikatu zen ale batzuetan, sorbatz gordin baten edo haustura baten gainean. Bikoitzak dira % 26, eta oinaren itxurari erreparatzen badiogu, forma desberdin asko dagoela ikusiko dugu. Bestalde, lerrozuzenak edo hein batean kurbatuak dituzte perfilak.

Haien erabilerari dagokionez, badirudi etengabe, modu intentsiboan, erabili zitezela, zatiturik agertzen baitira haien erdiak (gelditze kamerren aldean hautsirik ageri dira ale ez gutxi), eta birbizitzearen aztarnak ageri dituzte batek baino gehiagok aurpegietan (ohiko Noailles zulakaitzetan ez da hori batere ohikoa). Horrez gainera, erabilera-estigma makroskopikoak, diedroan eremu altxatuak adibidez) ageri dituzte ale batzuek.


Buriles múltiples (Fig. 54. 4-5): En este grupo hemos incluido los buriles Busqué, nucleiformes y múltiples. Tampoco son muy abundantes ($N=5$) y predominan los buriles múltiples mixtos, mientras que solamente aparece uno múltiple sobre truncadura y un buril tipo busqué. Este grupo se caracteriza por la preferencia de soportes más espesos (10 mm de media) que el resto de tipos de buriles. Este grupo tiene un marcado carácter nucleiforme, posiblemente se han usado como matrices de laminillas de pequeño tamaño (16x4 mm de media). No muestran huellas macroscópicas de uso.

Buriles sobre truncadura (Fig. 54. 6-7): Todos los buriles sobre truncadura documentados en este nivel ($N=6$) se han realizado sobre truncadura oblicua. Los soportes de estos buriles son algo más cortos, estrechos y finos (27x15x6 mm de media) pero los negativos de los paños son alargados y bastante estrechos (23x3 mm de media). Se ha documentado la utilización de crestas guía en los filos y también de desconchados de uso en el filo de al menos un ejemplar.

Buriles de Noailles (Fig. 54. 10-20) Al igual que ocurría en el nivel VI son el objetivo prioritario del retoque, suponiendo un 55% del utillaje retocado. Los soportes usados muestran variabilidad de tamaños (abundantes valores atípicos), pero se usan preferentemente soportes pequeños y ligeros (20x12x4 mm de media).


La mayoría son buriles de Noailles típicos sobre truncadura con sus muescas de paro y los paños cortos y muy estrechos (10x1mm) con lo cual no parecen orientados a la producción de soportes. En un 85% de los casos el golpe de buril se aplica sobre una truncadura fina, aunque en algunos ejemplares se aplica directamente sobre un filo bruto o sobre una fractura. El 26% son dobles, y si nos fijamos en la forma de la planta existe gran variabilidad de formas, mientras que los perfiles suelen ser rectilíneos o ligeramente curvados.

Acerca de su utilización, parece que se han usado intensamente ya que la mitad de ellos aparece fracturado (aparecen bastantes ejemplares que se han fracturado por la zona de las muescas de paro) y alguno muestra huellas de reavivado de los paños, cosa poco habitual entre los buriles de Noailles típicos (Arrizabalaga, 1994). Además unos pocos ejemplares presentan estigmas macroscópicos de uso como desconchados en diedro



53. irudia. Kutxa eta arbotante grafikak, V. mailako zulakaitzen aurpegi negatiboen neurriak agerian.

Figura 53. Gráficos de cajas y arbotantes con las medidas de los negativos de los paños de los buriles del nivel V.



54. irudia. Marruskak, tresna bikoitzak eta zulakaitzak. 1-2 Marruskak; 3 Zulakaitz-Moztura; 4 Busqué zulakaitza; 6-7 Mozturadun zulakaitzak; 8-9 Zulakaitz diedroak; 10-20 Noailles zulakaitzak.

Figura 54. Raspadores, útiles dobles y buriles. 1-2 Raspadores; 3 Raspador-truncadura; 4 Buril busqué; 5 Buril múltiple; 6-7 Buriles sobre truncadura; 8-9 Buriles diedros; 10-20 Buriles de Noailles.

V. mailako zulakaitzen multzoa aztertu eta gero, VI. mailan atera genituen ondorioak berriro behar ditugu honetan ere. Halako ñabardura erantsi beharko genuke, euskarriak hautatzeko orduan sumatzen ditugun gertatuen aurrean: izan ere, VI. mailakoak baino handixeagoak dirudite V. mailakoek eta, hautaturiko lehengaien arloan, pisu gutxiago dute honetan kanpoko suharriek.

Bizkardun piezak (56. Irudia. 3-4): Ertzak guztiz zanpaturik ageri dituzten 7 pieza berreskuratu ditugu V. mailan. Bertako Flysch-ean (Bidaxune eta Gaintxurizketa) itxuratuak dira haietako lau, baina beste hirurak kanpoko suharrian, Urbasakoan hain zuzen ere, eginak dira. Neurri ertaineko ijeki-euskarri fin xamarrek (34x15x5 mm batez beste) erabili zituzten, bai eta printzak (16x18x3,5 mm batez beste) eta aurpegi bakarrek gandar zati bat ere.

Bizkarrak finak dira kasu guztietan (mm bat) eta ertzean bideraturiko ukiera erdi-malkartsua ageri dute guztiek. Gordinean eutsi zioten aurkako sorbatzari, eta erabili izana salatzen duten eremu altxatuak nabari daitezke sorbatz horretan bi kasutan.

Mozturak (56. Irudia. 5-10): 10 moztura zenbatu ditugu VI. mailan eta haietako bat baizik ez zuten ijeki ukituaren gainean taxutu. Sorbatzen perfilen arabera, nagusi dira lerrozuzenak (K=4) eta zeiharrek (K=3), eta moztura ahur bat eta moztura bikoitzeko bi pieza dokumentatu dira era berean. Haien arteko gutxienez lau ale moztura gaineko zulakaitz arinen aurreformatzat har litezke, kamerrak ageri baitituzte sorbatzean. Ijeki estuak (20x14x4 mm batez beste) dira batez ere hautaturiko euskarriak, baina printzaren bat edo beste erabili zuten halaber horretarako.

Bertako Flysch-eko suharriak, Bidaxune eta Gaintxurizketakoak, eta kanpokoak, Urbasakoak hain zuzen ere, erabili zituzten. Kanpoko suharriek alerik ere ez dute ageri.

Ijeki ukituak (56. Irudia. 11-14): V. maila honetako multzo garrantzitsu honek 9 ale ageri ditu; haietako zortzik ukiera soilak ageri dute ertz batean, eta batek bi ertzetan. Multzo honetan ijeki-euskarriak bideratu zituzten nagusiki, baina azaleko euskarri batzuk eta printzaren bat edo beste azaldu zaizkigu era berean. Euskarrien formatuak estandarizatu xamarrek dira, baina zaila da izate hori gutiz baieztatzea, bi ez beste guztiak zatiaturik ageri direlako. Ijeki estuak dira, eta ez oso lodiak, eta 16 mm-ko zabalera eta 6 mm-ko lodiera ageri dituzte batez beste. Flysch-eko suharrietan taxutuak dira gehienak; alabaina, suharri urgoniarrean itxuratu zuten bat eta Urbasakoan beste bat.

Sorbatz ukituek perfil lerrozuzenak edo hein batean ganbilak ageri dituzte, eta ukiera soilaren bidez taxutuak dira. Ertz batean ageri du ale batek ukiera. Guztien arteko bi alek baizik ez dituzte sorbatzetan erabili izana salatzen duten eremu altxatu makroskopikoak.

Hostokarak (55. Irudia): Punta hostokara baten zatia dokumentatu da V. mailan. Tamaina oneko erramu-punta baten erdialdeko zati bat da (42x23x5 mm) eta kanpoko suharrian landua, Chalossekoan seguruenik. Erabili izana salatzen duten arrastoak ageri ditu aleak gainera: mihi itxurako haustura bat urrunaldeko ertzean eta eremu altxatu makroskopikoak sorbatzean.

Pieza ezpalduek (56. Irudia. 15): VI. mailan ez bezala, oso kopuru txikian ageri da multzo hau V. mailan azterturiko laginean (K=2). Pieza handiak eta lodiak dira (35x30x10 mm batez beste), eta jatorriz handixeagoak izango ziren, baina murriztu egin zen haren tamaina, erabileraren poderioz. Flysch-eko

A la vista del conjunto de los buriles del nivel V, las conclusiones son similares a las vistas para el nivel VI. Quizá debamos hacer algún matiz a la hora de seleccionar los soportes, que en el nivel V parecen ser un poco más grandes que en el VI, y en las materias primas seleccionadas, con un menor peso de sílex exógenos en este nivel.

Piezas de dorso (Fig. 56. 3-4): En el nivel V se han recuperado un total de 7 piezas de borde abatido total. Más de la mitad están fabricadas en sílex del Flysch local (de Bidache y Gaintxurizketa), pero tres de ellas están realizadas en sílex exógeno de Urbasa. Los soportes usados son soportes laminares de tamaño medio y bastante finos (34x15x5 mm de media), y lascas (16x18x3,5 mm de media) y un fragmento de cresta unifacial.

Los dorsos son finos (1 mm) en todos los casos y están conformados mediante retoque semi-abrupto marginal. El filo opuesto al dorso permanece bruto, y en un par de casos este filo presenta desconchados de uso.

Truncaduras (Fig. 56. 5-10): En el nivel VI se han contabilizado 10 truncaduras y solamente una de ellas sobre lámina retocada. Según la delineación de los filos predominan las rectas (N=4) y oblicuas (N=3), se ha documentado una truncadura cóncava y dos piezas bitruncadas. Entre ellas hay al menos cuatro ejemplares que pueden considerarse como preformas de buriles ligeros sobre truncadura ya que tienen muescas en el filo. Los soportes elegidos son fundamentalmente láminas estrechas (20x14x4 mm de media), aunque también se ha empleado alguna lasca.

Se usan tanto sílex locales del Flysch, de Bidache y Gaintxurizketa, como sílex exógeno de Urbasa. El resto de sílex exógenos no están presentes.

Láminas retocadas (Fig. 56. 11-14): Es otro grupo de útiles importante en este nivel V, cuenta con 9 ejemplares, de los cuales 8 tienen retoque simple sobre un borde y uno sobre los dos bordes. Los soportes utilizados son fundamentalmente soportes laminares, aunque también se usan algunos soportes corticales y alguna lasca alargada. Los formatos de los soportes parecen bastante estandarizados, aunque es difícil de asegurar puesto que todas, salvo dos, aparecen fragmentadas. Se trata de láminas estrechas y no demasiado espesas, de unos 16 mm de anchura media y 6 mm de espesor. Están fabricadas en sílex del Flysch principalmente, y aparece un ejemplar sobre sílex Urganiano y otro en sílex de Urbasa.

Los filos retocados tienen perfiles rectilíneos o ligeramente convexos y se han conformado mediante retoque simple, y en un ejemplar el retoque es marginal. De todos ellos solamente dos muestran desconchados macroscópicos de uso en los filos.

Foliáceas (Fig. 55): En el nivel V (lecho 7) se ha documentado un fragmento de punta foliácea, se trata de un fragmento mesial de punta de laurel de buen tamaño (42x23x5 mm) fabricado en sílex exógeno, probablemente de Chalosse. Además el ejemplar presenta huellas relacionadas con su utilización, una fractura en lengüeta distal y desconchados macroscópicos en el filo.

Piezas astilladas (Fig. 56. 15): A diferencia de lo que ocurría en el nivel VI, este grupo aparece muy poco representado dentro de la muestra analizada del nivel V (N=2). Se trata de piezas grandes y espesas (35x30x10 mm de media), que en origen debieron ser algo más grandes pero que se han visto reducidas debido a su uso. Ambas piezas están hechas de sílex del Flysch. Con respecto al uso de astillados como matrices



55. irudia. Erramu-orriaren zatia.V. maila.

Figura 55. Fragmento de hoja de laurel, nivel V.

suharrian landuak dira bi piezak. Pieza ezpalduak ezpalak lortzeko matrize gisa erabili izanari dagokionez, maila honetan ez dugu nukleo ezpalduen ohiko morfologia ageriko lukeen pieza ezpaldurik dokumentatu; badirudi, areago, bitarteko pieza gisa erabili izanaren poderioz ageri dutela forma hori.

Substratu-tresnak (56. irudia. 16-20): Hona hemen V. mailan presentzia zabalenetakoa ageri duen tresna multzoa (K=12). Kamerdun piezak dira substratu-tresnen arloan sailkatutako pieza ia guztiak (K=10), hozdunak edo dentikulatuak dira beste biak. Askotarikoak dituzte euskarriak: pieza hauen erdiak azal gutxi ageri duten ijeki-euskarrien gainean taxutuak dira, printzen gainean beste lau, eta printza eta ezpal azaldunen gainean beste biak. Askotarikoak dira, halaber, baliatu zituzten moduluak.

Nagusi da bertako Flysch-eko suharrien erabilera (gehia-gotan bideratu zuten Bidaxuneko Gaintxurizketakoa baino), eta kanpoko suharrien kasuan, Urbasako suharrian taxuturiko pieza bat berreskuratu dugu. Aipagarria da, bestalde, kuartzitan taxuturiko ale baten presentzia.

Oro har, sorbatz eta ukiera arin xamarrek (2 mm) ageri dituzte pieza hauek. VI. mailan ikusi genuen bezala, Noailles zulaikitzen fabrikazioarekin lotu beharreko datua genuke multzo honetan kamerrak horren ugari azaldu izana.

Ijekitxo ukituak (56. irudia. 21-26): Bigarren multzoa da, piezen kopuruari dagokionez, V. mailan aztertu dugun laginaren barruan. 13 ijekitxo ukitu berreskuratu ditugu, eta mozturadun orritxoak dira haietako gehienak (K=7). Haien ondotik datoz, hurrenez hurren, bizkardun orritxoak (K=4), eta kamerdunak (N=2). Ertzean bizkar finak ageri dituzte bizkardun orritxoetako bik. Erabilitako lehengaiari dagokionez, aipagarria da Flysch-eko suharria horren ugari erabili izana, Gaintxurizketakoa batez ere. Urbasako suharrian taxutu zituzten bi ale.

Ijekitxo estuak eta ijekitxo zabalak bideratu zituzten euskarri gisa. Ongi ordezkaturik ageri dira bi multzo horiek V. mailako euskarrien artean, azal arrastorik gabekoen artean batez ere. Zulakaitz-ebakina euskarritzat harturik fabrikatu izan zen bizkardun ijekitxoetako bat. Multzo honetan, ezin izan dugu modulu jakin bat halako multzoarekin lotu, baizik eta ijekitxo estuetatik edo ijekitxo zabaletatik abiatuturik bideratu zituzten mozturak, bizkarrak eta kamerrak.

para obtener astillas, en este nivel no se ha documentado ningún astillado con morfologías típicas de núcleos astillados (De La Peña Alonso, 2011b) sino que parecen más bien deber su forma al uso como piezas intermedias.

Ustillaje de sustrato (Fig. 56. 16-20): Éste es uno de los grupos con mayor presencia en el conjunto del nivel V (N=12). Prácticamente todas las piezas clasificables como utillaje de sustrato son piezas de muesca (N=10), las dos restantes son denticuladas. Los soportes son variados, la mitad de estas piezas están realizadas sobre soportes laminares escasamente corticales, y el resto sobre lascas, una lasca cortical y una astilla. Los módulos aprovechados también son variados.

Predomina el uso de sílex local del Flysch (dentro del cual predomina el de Bidache sobre Gaintxurizketa) y entre los sílex exógenos aparece una pieza realizada en sílex de Urbasa. También hay que mencionar la presencia de un ejemplar realizado en cuarcita.

Estas piezas muestran por lo general un filo y el retoque es poco espeso (2 mm). Como vimos en el nivel VI la abundancia de las muescas dentro de este grupo puede estar relacionado con la fabricación de buriles de Noailles.

Laminillas retocadas (Fig. 56.21-26): Es el segundo grupo en importancia numérica dentro de la muestra analizada del nivel V. Se han recuperado 13 laminillas retocadas, de las cuales la mayoría (N=7) son hojitas truncadas. Las siguen en importancia las hojitas de dorso (N=4), dos de las cuales presentan dorsos finos marginales, y las de muesca (N=2). En relación a la materia prima utilizada, destaca la abundancia de sílex del Flysch, especialmente de Gaintxurizketa, y un par de ejemplares están fabricados en sílex de Urbasa.

Los soportes empleados son laminillas estrechas y laminillas anchas, grupos bien representados entre los soportes del nivel V, preferentemente sin restos de córtex. Una de las laminillas de dorso se ha fabricado tomando como soporte un golpe de buril. En este conjunto no hemos podido relacionar un módulo concreto con un grupo, sino que se realizan truncaduras, dorsos y muescas sobre laminillas estrechas y laminillas anchas indistintamente.



56. irudia.V. mailako askotariko pieza ukituak. 1-2 Zulagailuak; 3-4 bizkardun piezak; 5-10 Mozturak; 10-14 Ijeki ukituak; 15 pieza ezpalduak; 16-19 Kamerrak; 20 Horzdunak; 21-22 Bizkardun ijekitxoak; 23 Kamerduna ijekitxoa; 24-26 Mozturadun ijekitxoak; 27-28 Bestelakoak.

Figura 56. Retocados varios del nivel V. 1-2 Perforadores; 3-4 piezas de dorso; 5-10 Truncaduras; 10-14 Láminas retocadas; 15 pieza astillada; 16-19 Muestras; 20 Denticulado; 21-22 Laminillas de dorso; 23 Laminilla de muesca; 24-26 Laminillas truncadas; 27-28 Diversos.

Elementu hauetako bakar batek ere ez du erabilera-estigma makroskopikorik ageri. Aipa dezagun, bidenabar, Noailles zulakaitzen ekoizpenak bereizitako maila batean mozturadun ijekitxoak eta kamerdun ijekitxoak kopuru esanguratsuan azaldu izanak eramaten gaituela elementu horiek aipaturiko ekoizpen mota horrekin lotzera.

Bestelakoak (56. Irudia. 27-28): 10 tresna ukitu sailkatu ditugu bestelakotzat hartu ditugun sailean. Bereziki aipagarriak dira haien artean sailkatzen zailak diren tresnen zatiak, printza ukituak, Noailles aurreforma izan litekeena eta ertzean ukituak ageri dituzten ijekiak eta ijekitxoak.

Harrizko tresneriaren taxuketa eta mantentzea

Garrantzitsu xamarrek dira, ehunekotan, maila honetan jarduera mota horiekin loturiko euskarriak, honako hauek izan ezik: birbizitze-printzak, urri ageri direlako, eta aurpegi biko lanketen aztarnak, horrelakorik ez dagoelako (absentzia honek sendotzen digu azaldu den punta hostokara goiko mailatik gerturiko intrusioa delako ideia).

Birbizitze-printzak: Oso birbizitze-printza gutxi azaldu zaigu V. mailako laginean (K=10), oso neurri txikiak dira (5,5x8,7x2 mm batez beste) eta modulu lauangeluarrak edota trapezoidalak eta perfil oso kurbatuak ageri dituzte. Alerik ere ez zuten ondoren ukitu, horren txikiak izaki. Zehaztu gabeko suharrietan itxuratu zituzten % 60 ia-ia, baina kanpoko suharrietan, Urbasakoan hain zuzen ere, gainerakoen arteko gehienak. Bidaxuneko suharrian ageri da bat.

Maila honetan, moztura lodiak edota moztura gaineko zulakaitzak azaldu dira tresna lodien birbizitze jarduerekin loturik; izan ere, ukiera malkartsu xamarrek daramatzate printza hauetako gehienek. Logikoa da hala gertatu izana, mozturak maila honetako multzo nagusienetakoa izaki. Gainera, Urbasako suharrian taxutu zuten tresneria honen portzentaje garrantzitsu bat.

Zulakaitz-ebakinak: Ongi ordezkaturik azaldu zaigu multzo hau V. mailan (K=64). Logikoa da hala gertatu izana, kontuan hartzen badugu zulakaitzak direla tresneria ukituaren % 64.

Txikiak dira euskarri horien neurriak (15,3x4,5x2,9 mm batez beste), eta haien zabaleraren batez bestekoa ijekitxo estuen multzoak ageri duena baino apalxeagoa da aldi berean. Ebakidura oso markatuko piezak dira (lauangelurak, angeluzunenak, angelu zorrotzekoak edota trapezoidal angeluzunenak) eta lerrozuzenak edo hein batean okerrak haien perfilak. Kontserbatu diren orpo gehienak lauak edo puntu formakoak dira eta neurri txikiagoan ageri dira birrinduriko diedroak edota aurpegidunak.

Ugari ageri dira lehen belaunaldiko zulakaitz-ebakinak (%64), eta aldez aurreko gandar aurpegiak ageri dituzte askotan beren bizkarreko aurpegiaren negatiboetan: ukaldia gidatzeko bideratzen ziren. Bigarren mailako ukaldietan islatu ziren gerokoan ondozka etorriko ziren birbizitzeak (% 36), eta irekitze-erdigandorren arrastoak gelditu dira era berean. Noailles zulakaitzetatik itxuratu ziren euskarri hauen arteko hiru.

Bestalde, badirudi zulakaitz mota batzuetatik abiatuak landu zirela ijekitxoak maila honetan ere. Lanketaren helburuak zirelako berretsiko ligukeen azterketa funtzionalik egin ez dugularik, *Mixture analysis* azterketa bideratu dugu zulakaitz-ebakinaren zabalerak aintzat harturik, ekoizpen mota desberdinak bereizi ahal izateko eta haietakoren bat maila honetan identifikaturiko ijekitxo-ekoizpenekin bat datorren ikusteko. Bi populazio bereizi ditugu kasu honetan. Noailles zulakaitzen eta moztura gaineko beste zulakaitz arinen ebakinei legokieke haietako lehena, 2,5 mm-tik beherako zabalerak ageri dituen (multzo

Ninguno de estos elementos muestra estigmas macroscópicos de uso. Debemos mencionar que la importancia numérica de las laminillas truncadas y las laminillas de muesca en un nivel caracterizado por la producción de buriles de Noailles, hace que consideremos estos elementos en relación a este tipo de producción.

Diversos (Fig. 56. 27-28): Hay un total de 10 útiles retocados clasificado como diversos. Entre ellos destacan los fragmentos de útiles difíciles de clasificar; lascas retocadas, una posible preforma de Noailles y láminas y laminillas con retoques marginales.

Conformación y mantenimiento del utillaje lítico

Los soportes vinculados a este tipo de labores son porcentualmente bastante importantes en este nivel, salvo en el caso de las lascas de reavivado que son escasas y los restos de talla bifacial que no están presentes (lo que refuerza la idea de que la punta foliácea aparecida es una intrusión del nivel superior).

Lascas de reavivado: Las lascas de reavivado son muy escasas en la muestra del nivel V (N=10), son de muy pequeño tamaño (5,5x8,7x2 mm de media) y presentan módulos cuadrangulares o trapezoidales y perfiles muy curvados. Debido a este pequeño tamaño ninguna ha sido retocada posteriormente. Casi el 60% están fabricadas en sílex indeterminados, pero de los restantes la mayoría son de sílex exógeno, de Urbasa, y una es de sílex de Bidache.

En este nivel parecen vinculadas con el reavivado de utillaje espeso concretamente truncaduras espesas o buriles sobre truncadura, ya que la mayoría de estas lascas arrastran filos retocados bastante abruptos. Esto es lógico ya que las truncaduras son uno de los grupos principales en este nivel, además aparece un porcentaje importante de este utillaje elaborado en sílex de Urbasa.

Golpes de buril: Esta categoría está bien representada en el conjunto del nivel V (N=64), lo que es lógico teniendo en cuenta que los buriles suponen un 64% del utillaje retocado.

Las dimensiones de estos soportes son reducidas (15,3x4,5x2,9 mm de media), la media de la anchura es un poco menor que la del grupo de laminillas estrechas. Se caracterizan por secciones muy marcadas (cuadrangulares, rectangulares, acutángulo o trapezoidales rectángulo) y delineaciones rectilíneas o torcidas. La mayor parte de los talones que se conservan son lisos o puntiformes, y en menor medida aparecen algunos machacados diedros y facetados. Solamente se ha retocado un ejemplar para hacer una laminilla de dorso.


Los golpes de buril de primera generación son abundantes (64%), y en muchos casos muestran en sus caras dorsales negativos de crestas unificales previas que se hacen para guiar el golpe. Los sucesivos reavivados se reflejan en los golpes secundarios (36%) y en ocasiones también quedan restos de esas semicrestas de apertura. Del total de estos soportes tres proceden de buriles de Noailles.

Por otro lado, en este nivel también parece que se da una talla de laminillas a partir de ciertos tipos de buriles, y a falta de un análisis funcional que los confirme como objetivos de la talla, hemos realizado un *Mixture analysis* con las anchuras de los golpes de buril para intentar discriminar distintas producciones y ver si alguna de ellas coincide con las producciones de laminillas identificadas en el nivel. En este caso se han separado dos poblaciones, la primera de ellas puede corresponderse con los golpes procedentes de los buriles de Noailles y otros buriles ligeros sobre truncadura, con anchuras menores de 2,5 mm

hau ez da kopuru aldetik ugari ageri), eta zulakaitz-ebakin estuak aurkezten dizkigu bigarrenak, 3 eta 8 mm bitarteko zabalerekin. Bigarren talde hau da, hain zuzen ere, maila honetako ijekitxo-ekoizpen batekin, hau da, ijekitxo estuen ekoizpenarekin, bat datorrena.

(este grupo no aparece demasiado bien representado numéricamente) y un segundo grupo de golpes de buril estrechos con anchuras entre 3 y 8 mm. Este segundo grupo es el que tipométricamente encaja con alguna de las producciones de laminillas de este nivel, las laminillas estrechas.

Kop. / N	64
Shapiro-Wilk W	0,445
p(normal)	3,64E-14
Jarque-Bera JB	4793
p(normal)	0,00E+00
p(Monte Carlo)	0,0001
Chi ²	52,5
p(normal)	4,30E-13
Chi ² OK (N>20)	YES
Anderson-Darling A	7,868
p(normal)	2,122E-19



Zabalera / Anchura	Prob	Mean	Stdev
Noailles-ebakinak / Golpes de Noailles	0,21673	1,9429	0,70843
Zulakaitz-ebakin estuak / Golpes de buril estrechos	0,78327	5,4001	1,5309

57. irudia.V. mailako zulakaitz-ebakin banaketa, haien zabaleraren arabera; kolore motelean, gris argian, ageri da banaketa, eta kurba gorrien bitartez adierazi dira *Mixture Analysis* delakoaren bidez identifikaturiko bi multzoak.

Figura 57. Distribución por anchuras de los golpes de buril del nivel V en la que se observa la distribución suavizada (en gris claro) y los dos grupos que han sido identificados por el *Mixture Analysis* (curvas en rojo).

Ezpalak: Ugari xamar ageri da hondakin mota hau V. maila osoan zehar (K=33). Molde askotakoak dira, morfologiari dagokionez, euskarri hauek, eta handi xamarrek eta finak (20,5x12,3x5,2 mm batez beste) eta suharri mota askotxotan landuak dira. Nagusi dira, nolahi ere, Gaintxurizketako Flysch-eko suharrian bideraturikoak, eta ondoren datoz Urbasa-ko suharrietan landutakoak. Proporzio txikiagoan ageri dira beste suharri mota batzuk, Bidaxunekoa adibidez, eta anekdota baizik ez dira bertako suharri urgoniarra eta Trebiñukoak.

Maila honetan, ezin hitz egin genezake nahita, kontrakolpen bidezko perkusioz, bideraturiko ezpal ekoizpenei buruz, ez baita kontrakolpez landuriko nukleorik topatu. Ezpal bakarra da, gainera, hartan kamerra bideratzeko ukiturik ageri dena. Ezpalak ugari xamar ageri aren, biziki urri azaldu dira pieza ezpalduak (K=2). Nolanahi ere, pieza ezpalduak ziri gisa erabiltzean salto eginiko hondakinak dirudite maila honetako ezpalek.

4.5. LABURPEN TEKNOLOGIKOA

VI. mailarenarekin loturik bideratuko dugu V. mailaren ebaluazioa, antzekoak baitira bi mailak arlo tekno-tipologikoari dagokionez, eta kronologiaren ikuspegitik aldi berekoak baitira itxuraz, Gravette aldikoak hain zuzen ere. Halaz ere, aurrerago

Astillas: Son un tipo de resto relativamente abundante en el conjunto del nivel V (N=33). Son soportes de morfología variada, de tamaños medios y finos (20,5x12,3x5,2 mm de media) y están realizadas en sílex bastante variados, predominando los sílex del Flysch de Gaintxurizketa, seguido del de Urbasa. Otros sílex aparecen en menor proporción como el de Bidache, y el sílex Urgoniano local y el de Treviño aparecen en proporciones anecdóticas.

En este nivel no se puede hablar de una producción intencional de astillas mediante percusión por contragolpe ya que no se ha documentado ningún núcleo por contragolpe y solamente una astilla está retocada para hacer una muesca. La relativa abundancia de astillas contrasta también con la escasez de piezas astilladas (N=2), aún así las astillas de este nivel parecen ser los restos saltados a causa del uso de astillados como cuñas.

4.5. SÍNTESIS TECNOLÓGICA

Vamos a hacer la valoración del nivel V en relación con el nivel VI, ya que tekno-tipológicamente son similares y cronológicamente parecen pertenecer al mismo periodo, el Gravetiense, aunque como discutiremos más adelante a un

eztabaidatuko dugun bezala, aldi hartako une guregandik hurbilago batean kokatzen gaitu maila honek. Beheko mailan gertatu bezala, zaildu egiten du palimpsesto fenomenoak maila arkeologiko hau osatu zuten okupazioen kopurua, iraupena eta motak zehazteko lana.

Hona hemen V. mailan aztertutako laginaren ezaugarriak:

- a. Multzooaren koherentzia teknologiko eta homogeneotasun erlatiboak. Elementu bakarra baizik ez dator bat multzoko gainerakoekin, Solutre aldiko erramu-punta bat, intrusiotzat jo duguna, IV. eta V. mailen arteko kontaktu-eremuan azaldu baitzen. Alabaina, ez genuke beharbada hau intrusiotzat jo beharko genukeen elementu bakarra, ez baitira goialdeko eta behealdeko kontaktu-eremuak argi bereizirik azaltzen. Egoera horretaz gainera, beste irizpide batzuek lerratu gaituzte interpretazio horretara: multzooaren gainerako atalei erreparatzen badiegu, ez da haietan pieza hostokaren fabrikaziora garamatzen beste elementurik topatu (aurpegi biko lanketaren aztarnak, lanketa-hutsegiak, punta zati gehiago).

Maila honetako harrizko multzoa VI. mailan deskribaturikoaren antzekoa da, Noailles zulakaitzen presentzia handiari dagokionean bereziki, eta, beraz, sinkronikoak ere izango ziren nolabait bi maila hauek, eta ondozka etorriko ziren okupazio haiek Gravette aldiaren barruko uneetan barrena. Gogoan eduki dugun beste aukera bat da Noailles zulakaitzak bideratuko ziren Solutre aldiko maila bat izatea (Arrizabalaga 1994; Straus 1983), Bolinkoban edo Amaldan gertatu bezala, baina hipotesi horren kontra datoz eskura dauzkagun datazioak, multzooaren Gravette aldiko kronologia berresten duten aldetik. Intrusiotzat hartu beharra dago, beraz, Solutre aldiko punta.

Mailaren osotasunari dagokionez, haren osotasuna berresten duen mihizatzeren bat dokumentatu dugu, palimpsesto eta ondoko mailekiko kontaktu-eremuetako arazo guztiengatik ere.

- b. Lehengaiei dagokienez, bestalde, bizi-bizirik dirau, aurreko mailan bezala, suharria baizik ez erabiltzeko joera, baina halako aldaketa sumatzen da mota desberdinen baliakuntzaren arloan, areagotu egin baita oraingoan, arin bada ere, aztarnategitik hurbilen dauden moten erabilera. Nagusi da betiere Flysch-eko suharriaren erabilera, baina Gaintxurizketakoa da oraingoan erabiliena, Bidaxunekoaren aldean, eta handiagotu egin da, era berean, haizuloaren inguru hurbilenetan ageri den suharri urgoniarraren erabilera. Erabili ere egin zituzten urruneko lekuetako suharri motak ere, Urbasako mendietako suharri inportatu batez ere, eta oso txikia da, desagertu ez badira ere, leku urrunagoko suharrien presentzia (Trebiñu, Chalosse eta Tercis).
- c. Urritu egin dira ijeki-euskarriak ekoizteko eta printzen ekoizpen independenteak bideratzeko erabiltzen zituzten lanketa-sistema motak. Nukleoan eta egokitzapenen azterketak adierazi bezala, prisma formako nukleo polobakarretatik abiatutik bideratu zen ijeki eta ijekitxo-euskarrien ekoizpena, eta noizean behin baizik ez zituzten elkarren aurkako plataformak baliatzen zuzenketarako. Ijekitxoen kasuan, ustiatze konplexuak (nukleo oso ustiatuak) eta printza edo zulakaitz lodien gaineko lanketak dokumentatu dira, era berean. Gainera, VI. mailan bezala, tamaina handiko ijeki-euskarrien ekoizpena dokumentatu da, halaber, Bidaxuneko suharri-lauzatxoetatik abiatutik. Lanketaren prestaera eta mantentze jarduerak ez dira maila honetan argi azaltzen, baina aurpegi bakarreko eta

momento más reciente de este periodo. Al igual que ocurría en el nivel inferior, el fenómeno de los palimpsestos dificulta establecer el número, duración y tipo de las ocupaciones que generaron la formación de este nivel arqueológico.

Las características de la muestra analizada del nivel V son las siguientes:

- a. Relativa coherencia tecnológica y homogeneidad del conjunto. Solamente desentona un elemento, una punta de laurel solutrense, que hemos considerado un elemento intrusivo ya que se halló en el contacto entre el nivel IV y V, pero probablemente no sea el único elemento intrusivo ya que las zonas de contacto con los niveles superior e inferior no son netas. Aparte de su situación hay otros argumentos que nos han hecho inclinarnos por esta interpretación: si nos fijamos en el resto del conjunto no se han documentado otros elementos que remitan a la fabricación de foliáceas (restos de talla bifacial, errores de talla, más fragmentos de puntas).

El conjunto lítico de este nivel tiene similitudes con el descrito en el nivel VI, especialmente en lo relativo a la abundancia de buriles de Noailles, con lo cual estos niveles pueden ser relativamente sincrónicos, correspondiéndose sus diferentes ocupaciones a momentos sucesivos dentro del Gravetiense. Otra posibilidad que contemplamos es que se tratase de un nivel Solutrense con buriles de Noailles (Arrizabalaga 1994; Straus 1983) como en Bolinkoba o Amalda, pero las dataciones disponibles contradicen esta hipótesis y apoyan una cronología Gravetiense del conjunto con lo cual la punta solutrense se entiende como algo intrusivo.

Respecto a la integridad del nivel se ha documentado algún remontado que apoya su integridad a pesar de los palimpsestos y los problemas en las zonas de contacto con los otros niveles.

- b. En cuanto a materias primas, continúa la tendencia anterior de una utilización casi exclusiva del sílex (98%), pero se da un cierto cambio en el aprovechamiento de las distintas variedades, intensificándose ligeramente el uso de variedades locales, más cercanas al yacimiento. Sigue predominando el uso de los sílex del Flysch, pero ahora es el de Gaintxurizketa el que más se utiliza frente al de Bidache, además ahora se incrementa el uso del sílex Urgoniano que se encuentra en los alrededores de la cueva. Se mantiene la utilización de variedades procedentes de lugares alejados, concretamente del sílex importado de la sierra de Urbasa, y también se mantiene una presencia minoritaria de sílex procedentes de lugares muy alejados (Trebiñu, Chalosse y Tercis).
- c. Se reduce la variedad de sistemas de talla utilizados para producir soportes laminares y producciones independientes de lascas. El análisis de los núcleos y los acondicionamientos indica que la producción de soportes laminares (láminas y laminillas) se hace fundamentalmente a partir de núcleos prismáticos unipolares, en los que ocasionalmente se recurre a plataformas opuestas corrección, y en el caso de las laminillas también se documentan explotaciones complejas (núcleos muy explotados) y talla a partir de lasca o buril espeso. Además, al igual que en el nivel VI, se documenta la producción de soportes laminares de buen tamaño a partir de plaquetas de sílex de Bidache. La preparación y el mantenimiento de la talla aparece sub re-

biko gandarrek, tabletak, euskarri gaintituak eta gainezka-tzaileak, eta printzaketa-aurpegiaren garbiketeta-printzak baliatzen zituzten horretarako.

Printzei dagokienez, ijekien lanketa prozesuetan sorturiko azpi-produktuak dira batzuetan, eta neurri txikiko printzen ekoizpen independenteen emaitza besteetan. Maila honetan zaila da printzen lanketa behar bezala ezaugarritzea, nukleo bakarra kontserbatu delako eta lanketa prozesu horiekin lotu genezakeen egokitzapenik dokumentatu ez delako.

Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeko sekuentziako V. mailan, modulu desberdineko ijeki-euskarrien fabrikazioa izan zen lanketaren helburu nagusia. Zabaleren arabera, hiru modulu bereizi dira gutxienez: ijekitxo estuak, ijekitxo zabalak eta ijeki estuak. Pieza kopuru handian osatuak dira hiru multzoak eta aztarnategian landuriko euskarriak dira guztiak. Horietaz gainera, ijeki zabalak modulu bat ere dokumentatu dugu; alabaina, pieza horien kopurua txiki xamarra da eta beste nonbait landu ondoren sarraraziko zituzten seguruenik aztarnategian, ez baita ekoizpen mota horrekin loturiko nukleorik ez egokitzapenik topatu. Printzei erreparatzen badiogu, bestalde, bi printza ekoizpen bereizi ahal izan dira tipometriaren aldetik, printza txikiena bata eta neurri ertaineko printzena bestea.

Maila honetako lanketaren helburu nagusiak izan ziren ijeki-euskarriak, eta horiek bereizi zituzten nagusiki pieza ukituak lantzeko; alabaina, proportzio esanguratsuan ukitu ziren, halaber, printzak eta produktu azaldunak. Beheko mailan gertatu bezala, modulu handienak bereizi ziren euskarrien artetik. Zulakaitzak, ijekitxo ukituak eta mozturak taxutzeko erabili ziren ijekitxo-euskarriak, euren gordinean erabiliko zituztenak. Ijekitxoak ere gordinean erabiliko zituzten, eta ukituak izateko bereizi zirenak Noailles zulakaitz eta ijekitxo ukitu (mozturadunak, kameradunak, bizkardunak, eta abar) bilakatu ziren. Ukitu ziren euskarri horien artean, portzentajea esanguratsua osatzen dute azal eremuei eutsi diotenen. Horietaz gainera, egokitzapenerako produktu bat baino gehiago baliatu eta ukitu zituzten tresnak bideratzeko.

V. mailaren osaera teknologikoa VI. mailarenarekin alderatzen badugu, antzeko joera sumatuko dugu bietan, oraingo honetan multzo guztietan (nukleoak, nukleoak prestatzeko eta egokitzeko produktuak eta tresnak prestatzeko eta birbizitzeko produktuak) lorturiko portzentajeak apalxeagoak diren arren. Ordea, ez da horrelakorik gertatzen ezkaileen eta forma gabeko hondakinen kasuan. Nolanahi ere, mailaren osaera teknologikoa beheko mailaren halako jarraipena iradokitzen digu nolabait; izan ere, lanketa bertan bideratu bazen ere, pisu handiagoa eduki zuten euskarrien kontsumo eta mantentze jarduerak haien lanketa jarduerak baino.

- d. VI. mailan aintzat hartu zenaren antzekoa da V. mailaren osaera tipologikoa, zulakaitzen nagusitasun absolutuari dagokionean behinik behin, eta haien artean guztiz kontuan hartzekoa da, berriro ere, Noailles zulakaitzen presentzia izugarri handia (tresneria ukituaren % 55). VI. mailan bezala, hiru multzo bereizi dira zulakaitzen artean; zulakaitz diedroak, moztura gaineko zulakaitzak, eta zulakaitz anizkunak eta nukleo formakoak (izaera bitarikoak dute azkeneko horiek, tresna eta nukleo bitartekoa). Beheko mailaren aldean aipa litekeen desberdintasun bakarra dugu euskarri lodiagoak erabili zirela eta urruneko lehengai gutxiago azaldu dela. Ukieren helburu nagusia izan ziren Noailles zulakaitzak: ohiko piezak dira, haien gelditze-ka-

presentado en este nivel pero se hace a través de crestas (unifaciales y bifaciales) tabletas, soportes sobrepasados y desbordantes y lascas de limpieza de cara de lascado.

En cuanto a las lascas, una parte son subproductos de los procesos de talla laminar, y otra parte es el resultado de producciones independientes de lascas de pequeño tamaño. En este nivel es difícil caracterizar la talla de lascas puesto que solamente se conserva un núcleo y no hemos documentado acondicionamientos vinculares a estos procesos de talla.

En el nivel V de la secuencia interior de Aitzbitarte III el objetivo más importante de la talla ha sido la fabricación de soportes laminares de diferentes módulos. Según las anchuras se ha distinguido al menos tres módulos: laminillas estrechas y anchas, y láminas estrechas. Estos tres grupos están constituidos por un número abundante de efectivos, y se trata de soportes elaborados en el yacimiento. Además se ha documentado otro módulo de láminas anchas, pero su número es bastante escaso y probablemente se han introducido ya fabricadas en el yacimiento puesto que no se documentan ni núcleos ni acondicionamientos vinculados a este tipo de producción. Si nos fijamos en las lascas, se ha podido diferenciar tipométricamente dos producciones de lascas, uno de lascas pequeñas u otro de lascas de tamaños medios.

Los soportes laminares, que eran los principales objetivos de la talla en este nivel, también son los que se han seleccionado preferentemente para ser retocados, aunque una proporción importante de las lascas y los productos corticales también se han retocado. Al igual que pasaba en el nivel inferior, entre los soportes se manifiesta una selección de los módulos más grandes. Los soportes laminares han sido utilizadas para la realización de buriles, láminas retocadas y truncaduras, aparte de su posible uso en bruto. Las laminillas posiblemente también se han utilizado en bruto, y las elegidas para su retoque se han convertido fundamentalmente en buriles de Noailles y laminillas retocadas (truncadas, de muesca, de dorso, etc.). Un porcentaje importante de estos soportes que se han retocado son corticales, además algún producto de acondicionamiento también fue reaprovechado y retocado para elaborar distintos útiles.

Si comparamos la composición tecnológica del Nivel V con la del nivel VI, vemos una tendencia similar; aunque los porcentajes son algo más bajos en todos los grupos (núcleos, productos de preparación y acondicionamiento de núcleos y productos de preparación y reavivado de útiles) salvo en los restos de talla como las esquirlas y los restos informes. A pesar de esto, la composición tecnológica del nivel parece indicar cierta continuidad con el nivel inferior, puesto que aunque la talla se produjo *in situ*, mantiene un peso mayor las actividades de consumo y mantenimiento de soportes frente a las de talla de los mismos.

- d. La composición tipológica del conjunto del nivel V es similar a la observada en el nivel VI, sobre todo en lo referente al predominio absoluto de los buriles, concretamente de los buriles de Noailles (55% del utillaje retocado). Al igual que en el nivel VI, dentro de los buriles se diferencian tres grupos: los buriles diedros, los buriles sobre truncadura y los múltiples y nucleiformes, teniendo estos últimos un carácter mixto entre útil y núcleo. La única diferencia con el nivel inferior se encuentra en el uso de soportes más espesos y menos materias primas lejanas. Los buriles de Noailles son el objetivo primordial del retoque, se trata de ejemplares típicos sobre truncadura con sus muescas de paro y los paños cortos y muy estrechos, aunque los

merrak moztura gainean taxutuak, eta aurpegiak laburrak eta oso estuak. Lantzeko bideratu zituzten euskarriak, eta haien moduluak, askotarikoak diren arren, arinak baliatu zituzten gehiagotan. VI. mailan bezala, etengabe erabili ziren, itxuraz, zatiturik eta erabilera-estigma makroskopikoak agerian azaldu baitira proportzio handian.

Alde gero eta nabariagoak sumatzen dira beste multzoen aurrena: VI. mailako egoeraren aldean, murriztu egin da, oro har, ukituriko tresneriaren portzentajea, eta pieza mota gutxiago ageri dira aldi berean. Ijekitxo ukituak eta bizkardun ijekitxoak multzoa da kopuru aldetik bigarrena, eta apalagoa da, halaber, pieza haien portzentajea. Noailles zulakaitzen fabrikazioaren araberakoa da kopuru hori, mozturadun edo kamerdun ijekitxoak, Noailles aurreformatzat har litezkeenak, baitira multzo horretako elementu gehienak. Bizekardun ijekitxoak dira gainerakoak, baina urri xamar ageri dira V. mailan, eta guztiz desagertu dira jaurtigai motako erabilerekin loturiko elementuak, hala nola bizkardun ijekitxo mozturadunak eta Dufour ijekitxoak. Desagertu ere egin dira bizkardun puntak. Puntei dagokienez, ale bakarra azaldu da, punta hostokara bat hain zuzen ere. Arestian adierazi bezala, IV. mailarekiko kontaktu-eremutik igaro den intrusiotzat hartua dugu dagoeneko.

Aipatzeko moduko presentzia, VI. mailan dutena baino esanguratsuagoa, ageri dute beste multzo batzuek, horra bizkar malkartsuko piezak, substratu-tresnak, mozturak, ijeki ukituak eta bestelakoak. Arin bada ere, gora egin du, halaber, tresneria konposatuaren eta zulagailuen portzentajeak, eta apaldu egin da, ordainetan, pieza ezpalduea eta marrusketa, molde horietako pieza oso gutxi azaldu baitira maila honetan.

Kategoria handi horien artean, nabari da, inportaturiko elementuen ondoan, bertan landuriko euskarrien presentzia, hala nola zulakaitzak, bizkardun piezak eta ijeki ukituak. Tresneria masibo gutxi. Maila honetan ez dago ia horrelakorik. Horra, alabaina, suak zartaturiko bi harkosko zati, hareharrizkoak: ura berotzeko ontzi gisa erabiliko zituzten.

- e. Aldaketak sumatzen dira aztarnategian bideratuko zituzten jardueretan eta, beraz, bizileku haren funtzioan. V. mailan berreskuraturiko materialek argiro salatzen digute lanketa jarduerak moteldu egin zirela. Apalagoa da, itxura guztien arabera, gune hartan bideratu ziren jardueren mota kopurua; makrotresneria eta marruskak desagertu egin dira ia-ia, alde batetik, eta guztiz desagertu dira bizkardun puntak, bestetik. Aldaketa horiek direla medio, molde bateko jardueretan espezializaturiko gunearen itxura ageri du multzoak, eta zulakaitzen eta, zehazkiago, Noailles zulakaitzen ekoizpena genduke jarduera horien helburua.
- f. Antolakuntza ekonomikoa eta jokabide konplexua ageri dituzten giza talde hauen jarduera ekonomikoen segmentazioa. Zantzu batzuek salatu bezala, argi ageri zaigu ekoizpena planifikatua zela, produktuen berehalako eta denboran zeharreko erabilerrari begira, eta elementu batzuk beste aztarnategi batzuetatik inportatzen zirela.
- g. Aztarnategia V. maila osatu zen garai hartan okupatu zuten giza taldeen ohiko lurraldea aurreko mailan aintzat hartu zen berbera da, itxura guztien arabera, eta Frantziako hegoaldeko Urbasako mendietara eta Arabako lautadara hedatzen zen gutxienez. Halaz ere, ikusirik dokumentatu diren suharrien artean kanpokoak neurri txikiagoan baliatu zituztela, kontuan hartu behar genduke okupazio haietako giza taldeen mugikortasuna murriztuko zelako hipotesia.

soportes empleados para su fabricación son variados y también lo son sus módulos, mostrando una preferencia por soportes ligeros. Del mismo modo que en el nivel VI, parece que han sido utilizados intensamente ya que una alta proporción aparece fracturado y con estigmas macroscópicos de uso.

Respecto al resto de los grupos se aprecian diferencias más significativas, en general desciende un poco el porcentaje de utillaje retocado y la variedad del mismo frente al nivel VI. El segundo grupo representado es el de las laminillas retocadas y de dorso, aunque también descienden ligeramente los porcentajes de las mismas. Esta abundancia es subsidiaria de la fabricación de buriles de Noailles, ya que la mayoría de los elementos de este grupo son laminillas truncadas o de muesca que pueden ser interpretadas como preformas de Noailles. Las restantes son laminillas de dorso, pero son bastante escasas en el nivel V, desapareciendo también otros elementos relacionados con usos de tipo proyectil como laminillas de dorso truncadas y laminillas Dufour. También desaparecen las puntas de dorso. Respecto a las puntas solamente aparece un ejemplar y es una punta foliácea, que hemos interpretado como elemento intrusivo que procede del contacto con el nivel IV.

Otros grupos con presencia relevante y que aumentan con respecto al nivel VI son las piezas de dorso abrupto, útiles de sustrato, truncaduras, láminas retocadas y diversos. También ascienden ligeramente los porcentajes de utillaje compuesto y perforadores, y descienden los porcentajes de las astilladas y los raspadores, que son muy escasos en este nivel.

Dentro de estas grandes categorías se evidencia el uso de soportes fabricados *in situ*, junto con elementos importados caso de buriles, piezas de dorso y láminas retocadas.

Escaso utillaje masivo. En este nivel es prácticamente inexistente, se limita a dos fragmentos de cantos de arenisca fracturados por la acción del fuego, que pudieron ser usados como elementos para calentar agua.

- e. Parece haber cambios en las actividades realizadas en el yacimiento, y por consiguiente en la función del sitio. Los materiales recuperados en el nivel V muestran menor intensidad de las actividades de talla. La variedad de las actividades que se llevaron a cabo parece también menor; por un lado, prácticamente desaparece el macroutillaje y los raspadores, por otro y desaparecen totalmente las puntas de dorso. Debido a estos cambios, el conjunto tiene una apariencia más especializada en tareas de algún tipo, apuntada por la abundancia de buriles, concretamente de Noailles.
- f. Segmentación de las actividades económicas de estos grupos que translucen una organización económica y un comportamiento complejo. Esto se deduce de ciertos rasgos que indican una planificación de la producción para su uso inmediato y diferido, y una importación de ciertos elementos de otros yacimientos.
- g. Parece que el territorio por el que se mueven los grupos que ocupan el yacimiento en la época que se formó el nivel V es el mismo que en el nivel anterior; al menos desde el sur de Francia hasta la sierra de Urbasa y la llanada alavesa. Aunque a la vista de las variedades de sílex documentadas quizá la movilidad en estas ocupaciones se vio reducida puesto que los sílex exógenos se utilizan en menor medida.

Laburbilduz, hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala, Gravette aldiko kulturak lurralde geografiko honetan izan zuen eraginarene gaineko datu berriak eskainiko dizkigute, beharbada, V. mailan eta VI. mailan aztertu ditugun laginek.

En resumen, la muestra analizada del Nivel V junto con el conjunto del Nivel VI, como veremos en el punto siguiente, pueden ofrecer nuevos datos para abordar la problemática del Gravetiense en esta zona geográfica.

5. VI. ETA V. MAILEN AZTERKETAK ESKUALDEKO GRAVETTE ALDIKO KULTURAREN INGURUKO IKERKETARA EGINIKO EKARRIA

5. APORTACIÓN DEL ESTUDIO DE LOS NIVELES VI Y V A LA PROBLEMÁTICA DEL GRAVETIENSE REGIONAL

5.1. GRAVETTE MAILEN KRONOLOGIA

Gutxi gorabehera, 31.000 eta 24.000 BP bitarteko okupazioen palimpsesto aurkezten digute Aitzbitarte III haitzuloaren barrunbean induskaturiko sekuentziako VI. eta V. mailek. 16. taulan laburbildurik aurkeztu ditugun balioak eskaini dizkigute maila haueetan lortu ditugun datazio numerikoei, J. Altunak liburu honetan berean aurkeztu dituenek. Balio hauek ez dira arazorik gabeak, diren baino guregandik hurbilagoak izateko aukeraren berri eman baitzen lehenengoz argitara eman zireneko (Altuna 1992). Balio horien behaketa zehatzaren (16. taula) eta kalibraturiko balioen sekuentzia estratigrafikoaren araberrako banaketaren (58. irudia) arabera, garbiki frogatu ahal izan dugu VI. mailako azaletan lorturiko balioek ez dutela koherentzia estratigrafiko argirik eskaintzen, haietako gehienak gutxi gorabehera 31.000 eta 27.000 BP datazioen arteko mailan ageri diren arren. Salbuespena genuke Ua-1917 lagina, balio baxuegia eta, hortaz, sekuentziaren barruan inolaz ere ulertu ezin dena, ageri duena. Eta hain zuzen ere, maila berez palimpsesto bat baizik ez izateak argituko liguke VI. mailan bideraturiko datazioen emaitzek itxuraz eskaintzen diguten inkoherentzia estratigrafikoa; halatan, ezin pareka litezke indusketaren araberrako azal artifizialak okupazio-aldi diskretoekin, kontuan harturik mailan berean azalduko zatekeen mikroestratigrafia baten isla ere ez direla.


5.1. CRONOLOGÍA DE LOS NIVELES GRAVETIENSES

Los niveles VI y V de la secuencia excavada en el interior de la cueva de Aitzbitarte III representan un palimpsesto de las ocupaciones de la cueva entre ca. 31.000 y 24.000 BP. Las dataciones numéricas obtenidas en estos niveles, que han sido presentadas por J. Altuna en este mismo volumen, presentan unos valores que sintetizamos en la tabla 16. Estos valores no están exentos de problemas, ya en la publicación original de las mismas se planteaba la posibilidad de que estuviesen rejuvenecidas (Altuna 1992). La observación de sus valores (tabla 16) y la distribución en secuencia estratigráfica de los valores calibrados (Fig. 58) permite comprobar cómo los valores obtenidos en los distintos lechos del nivel VI no presentan una coherencia estratigráfica clara, a pesar de situarse la mayor parte de ellos en un rango situado entre 31.000 y 27.000 cal BP. Una excepción sería la muestra Ua-1917 que muestra un valor excesivamente bajo y que resulta aberrante en el seno de la secuencia. La aparente incoherencia estratigráfica de los resultados de las dataciones del nivel VI puede explicarse por el hecho de que el nivel se trata, en efecto, de un palimpsesto, sin que los lechos artificiales de excavación puedan asignarse a eventos de ocupación discretos, ya que ni siquiera son reflejo de una posible microestratigrafía en el seno del propio nivel.

Maila Nivel	Metodoa Método	Azala Lecho	Erreferentzia Referencia	Materiala Material	Batez bestekoa Media	Desbideratzea Desviación	Cal BP % 99,7 Cal BP 99,7%
V	CI4	7	I-15208	Hezurra	24910	770	31375-27247
V	AMS	7	Ua-2243	Hezurra	23230	330	28446-26449
VI	AMS	9	Ua-2244	Hezurra	25380	430	30957-28258
VI	AMS	10	Ua-1917	Hezurra	21130	290	26260-24334
VI	AMS	11	Ua-2245	Hezurra	24920	410	30611-27816
VI	AMS	14	Ua-2626	Hezurra	24545	415	30235-27575
VI	AMS	15	Ua-2627	Hezurra	24635	475	30561-27560
VI	AMS	16	Ua-2628	Hezurra	23830	345	28994-27170

16. taula. Barrunbeto V. eta VI. mailetakoko datazioak, OxCal 4.2 programa erabilita eta IntCal 2013 kurbaren bitartez kalibratuak.

Tabla 16. Dataciones disponibles (Altuna, 1992) para los niveles V y VI del sector interior; calibradas mediante el programa OxCal 4.2 (Bronk Ramsey, 2009) usando la curva IntCal 2013 (Reimer, et al., 2013).



58. irudia. Barruneko sekuentziako VI. eta V. mailetan eta kanpoaldeko sekuentziako IV. eta III. mailetan lorturiko datazio kalibratuen modelatze bayesiarra. Zirkulu batez adierazi dira outlier-tzat harturiko balioak eta kolore moreaz barruneko sekuentziako VI. eta V. mailetak datazioen banaketa (% 95).

Figura 58. Modelado bayesiano de las dataciones calibradas obtenidas en los niveles VI y V de la secuencia interior; y en los niveles IV y III de la secuencia exterior. Con un círculo se señalan los valores considerados como outliers y en morado el rango de distribución (95%) de las dataciones de los niveles VI y V de la secuencia interior.

Bestalde, bi datazio baizik ez dira bideratu V. mailan; C14 konbentzionalaren bidez egina da bata (I-15208) eta zalantza handiak eragin ditu haren hedadura handiak (24.910+/-770). Beraz, ezin hartu izango da aintzat, AMS bidez eginiko datazioekin, hau da, gainerako guztiakin ezin alderatuko den aldetik. Barrunbeto estratigrafiarekin koherentzia handiagoa ageri duten datuak eskaini ditu V. mailan lortu dugun beste datazioak; VI. mailakoa baino geroagokoa da, arestian aipatu dugun lagina izan ezik, eta gutxi gorabehera 28.500 eta 26.500 cal BP datak eskaini ditu. Halatan, VI. mailako balio batzuekin nahasten dira, arinki bada ere, balio horiek eta, beraz, bi mailak denboran oso hurbil gertatu direla iradokitzen digu datazio honek.

Kanpoaldeko sekuentziako mailetan lorturiko datazioekin alderatu eta gero (Altuna et al. 2011), garbi dago barrunbeto sekuentziako VI. eta V. mailen kronologia nahasi egiten dela nolabait kanpoaldeko IV. mailakoarekin (Antzinako Gravette Aldia, Noailles zulakaitzekin), eta guztiz bestelakoa dela sekuentzia honetako III. mailaren aldean (Gravette Aldi Amaiera, Noailles zulakaitzekin). Banaketa honek iradokitzen duenaren arabera, barrunbeto sekuentziako VI. eta V. mailetako okupazioak gertatu zirenean, kanpoaldea edo okupatu gabe zegoen edo sedimentuen erregistroa aldarazi zuten pausatu osteko prozesuak gertatu ziren hartan, hutsean geratu baitziren aldi berean gertatuko ziratekeen okupazio haien aztarnak. Zentzu horretan, bereziki aipagarria da kanpoaldeko III. mailaren oinarriko bi blokeen artean lorturiko datazioa (Ua-24963, 22.580±295), aurreko sekuentziako V. mailan lorturikoa baino geroagokoa den aldetik.

5.2. GRAVETTE MAILETAKO TEKNOLOGIA

Barrunbeto sekuentzia VI. eta V. mailen kronologia hurbilaren berri ematen digute, era berean, bi mailetako industria errepertorioan azaldu diren antzekotasunek, bat baitituzte biek ezaugarri teknologiko eta tipologiko asko.

Lehengaei dagokienez, antzeko joera nabaritzen da bietan hornikuntza-iturri hurbilen aldera (suharri urgoniarra, Gaintxurizketako Flysch-a), eta haiekin batera ageri dira leku urrunagoetako suharri mota batzuk, hala nola Bidaxune, Chalosse edota Urbasakoak. Oso gutxitan baizik ez da suharria ez den beste lehengai bat baliatu.

Teknologiaren ikuspuntutik, guztiz nagusi ageri zaigu ijeki eta ijekitxoaren lanketa euskarrien ekoizpenean. Halako kate operatiboa sumatzen da ijeki zabalaren ekoizpenean: aztarnategitik kanpo taxutzen dira eta ondoren aztarnategiratu dira produktu horiek. Ikusi ere egiten da ijeki ertainen ekoizpen-kate bat: inportaturiko nukleoetatik abiatuak lantzen zuten produkzioaren zati bat, eta dokumentatu egin dugu, era berean, ijekitxoaren ekoizpen-katea, aztarnategiaren barruan gauzatzen zena. Ijeki handi eta ertainen kasuan, argi eta garbi salatu digu nukleo, egokitzapenerako produktu eta amaierako produktuen irakurketak lanketa prisma formako nukleo polobakarretatik abiatzen zutela, tabletak eta neo-gandorrak erauziz, eta aurkako plataforma batetik erauzte mugatuak bideratuz. VI. mailan, sistema-aniztasun handiagoa sumatzen da ijekien lanketan, piramide itxurako nukleoak, prisma formako nukleo konbergenteen eta ustiatze askoko nukleo konplexuen presentzia urriaren bitartez. Anizkunagoa da ijekitxoaren ekoizpena, prisma formako nukleoak bezala bideratu baitzituzten hartan printza gainekoak eta zulakaitz itxurakoak. Ijeki-euskarri arin eta ijekitxo-euskarrien produkzioaren zati handi bat erabili zuten Noailles zulakaitzen fabrikazioan. Ho-

Por otro lado del nivel V sólo se dispone de dos dataciones, una de ellas está realizada mediante C14 convencional (I-15208) y muestra una incertidumbre muy amplia (24.910+/-770), por lo que no puede ser considerada un dato de comparación válido con el resto de dataciones realizadas mediante AMS. El otro valor del nivel V muestra una mayor coherencia con la estratigrafía del sector interior; siendo más reciente que las del nivel VI, a excepción hecha de la muestra antes mencionada, y sitúa este nivel entre ca. 28.500 y 26.500 cal BP, lo cual se solapa ligeramente con los valores del nivel VI, sugiriendo que la formación de ambos niveles se encuentra muy cercana en el tiempo.

La comparación con las dataciones de los niveles de la secuencia exterior (Altuna et al. 2011) evidencia que la cronología de los niveles VI y V de la secuencia interior se solapa ligeramente con la del nivel IV (Gravetiense Antiguo con buriles de Noailles) de la secuencia exterior; y se diferencia claramente del nivel III de esta secuencia (Gravetiense Reciente con buriles de Noailles). Esta distribución sugiere que en el momento en el que se producen las ocupaciones de los niveles VI y V de la secuencia interior la zona exterior, bien está desocupada o sufre procesos postdeposicionales que alteran el registro sedimentario eliminando los restos de posibles ocupaciones contemporáneas. Es destacable en este sentido la datación obtenida entre los bloques de la base del nivel III en la zona exterior; (Ua-24963, 22.580±295) que es ligeramente más reciente que la obtenida en el nivel V de la secuencia interior.

5.2. TECNOLOGÍA DE LOS NIVELES GRAVETIENSES

La cercanía cronológica de los niveles VI y V de la secuencia interior se manifiesta también en las semejanzas existentes en los repertorios industriales de ambos niveles, que comparten numerosas características tecnológicas y tipológicas.

Respecto a las materias primas se observa un recurso semejante a fuentes de aprovisionamiento cercanas (sílex Urganiano, Flysch de Gaintxurizketako), combinada con otras localizadas a mayor distancia como el sílex de Bidache, Chalosse o Urbasa. El uso de materias primas diferentes al sílex es muy escaso.

Desde el punto de vista tecnológico la producción de soportes está ampliamente dominada por la talla laminar. Se observa una cadena operativa de producción de láminas anchas que se ejecuta fuera del yacimiento y cuyos productos son importados ya conformados al mismo; una cadena de producción de láminas medianas, parte de la cual se realiza *in situ* a partir de núcleos importados; y una producción de laminillas que también tiene lugar en el propio yacimiento. En el caso de las láminas grandes y medianas, la lectura tecnológica de núcleos, productos de acondicionamiento y productos finales revela que la talla se realiza a partir de núcleos prismáticos unipolares, siendo corrientes los procesos de reconfiguración de los núcleos a partir de la extracción de tabletas, neo crestas y de extracciones limitadas desde una plataforma opuesta. En el nivel VI se aprecia algo mayor variedad de sistemas de talla de láminas, a través de la presencia testimonial de núcleos piramidales, prismáticos convergentes y complejos de múltiples explotaciones. La producción de laminillas es más variable ya que se utilizan tanto núcleos prismáticos como núcleos sobre lasca y de tipo buril. Gran parte de esta producción de so-

rreraz gainera, neurri txikiko printzak disko itxurako nukleoetatik abiatuak ekoizteko sistema autonomo bat dokumentatu dugu, aldi berean.

Tresneria ukituaren ikuspuntutik, elkarren antz handikoak dira maila biak; erruz ageri dira zulakaitzak, Noailles motakoak batez ere, eta ordezkari gutxiago dituzte lehen mailako beste tresna mota batzuek, hala nola marruskek, zulagailuek edota bizkardun piezek. Alde esanguratsuak nabari dira, bestalde, V. mailan Noailles zulakaitzen proportzioa txikitzen hasten den (gehiago ageri dira, orduan, mozturak eta substratu-tresnak), edo VI. mailan pieza ezpalduen presentzia esanguratsuagoa den uneetatik aurrera.

Aurreko sekuentziako Gravette aldiko mailen aldean, halako antza ageri du harena multzoak, teknologiaren arloari dagokion guztian, bi multzoen izaera oso bestelakoa den arren (59. irudia). Osaera teknologikoaren ikuspuntutik, alde garrantzitsuak sumatu ditugu, eta bereziki aipatu beharrekoa da, gauden honetan, nukleoak VI. eta V. mailetan kanpoaldeko Gravette mailetan agertzen denaren aldean ageri diren proportzio txikia. Alde hori ez da horren argi sumatzen ijeki-egokitzapenerako produktuen arloan, kontuan hartzen badugu, esate baterako, haien proportzioa altuagoa dela VI. mailan, aintzat hartu ditugun gainerako maila guztietan baino. Produktuen arloan, bestalde, ez da alde esanguratsurik sumatu, V. mailak maila guztietako proportzio apalena ageri izanagatik ere; kanpoaldeko III. mailak eskaini dituen baino best puntu gutxiago.

Ijeki, ijekitxo eta printzen ekoizpen sistemei dagokienez, bat dituzte ezaugarri batzuk V. eta VI. mailek kanpoaldeko sekuentziako Va, IV. eta III. mailekin.

Argi eta garbi esan beharra dago, lehenik, ijeki eta ijekitxo-ekoizpena dela, maila guztietan, lanketaren helburu nagusi-


portes laminares ligeros y de laminillas se ha usado para hacer buriles de Noailles. Además se ha documentado un sistema autónomo de producción de lascas de pequeño tamaño a través de núcleos de tipo discoide.

Desde el punto de vista del utillaje retocado ambos niveles muestran grandes semejanzas, con una gran abundancia de los buriles, destacando fundamentalmente los de tipo Noailles, y una menor representación de otros tipos primarios como raspadores, perforadores o piezas de dorso. Se observan algunas diferencias sutiles, a partir de la menor proporción de Noailles en el nivel V, que se compensa con una mayor presencia de truncaduras y de útiles de sustrato, o de la mayor presencia de piezas astilladas en el nivel VI.

En comparación con los niveles gravetienses de la secuencia exterior el conjunto muestra una cierta semejanza en cuanto a la organización tecnológica, aunque la naturaleza de los conjuntos es muy diferente (Fig. 59). Desde el punto de vista de la composición tecnológica se observan algunas diferencias importantes, entre las que destaca la menor proporción de núcleos en los niveles VI y V respecto a los niveles gravetienses del exterior. Esta diferencia no se manifiesta de manera tan clara en lo que se refiere a los productos de acondicionamiento laminar, siendo su proporción en el nivel VI la más alta de todos los niveles considerados. En cuanto a los productos no se observan diferencias significativas, a pesar de que el nivel V tiene la proporción más baja de todos los niveles, cinco puntos por debajo de la del nivel III de la secuencia exterior.

En cuanto a los sistemas de producción, laminar y de lascas, los niveles V y VI del interior comparten una serie de rasgos con los niveles Va, IV y III de la secuencia exterior.

En general podemos decir que en todos ellos el principal objetivo de la talla es la producción de láminas y lamini-



59. irudia. Aitzbitarte III haizuloaren kanpoaldeko sekuentziako (Va, IV eta III) eta barruneko sekuentziako (VI eta V) Gravette mailen arteko alderaketa, multzo teknologikoen arabera.


Figura 59. Comparación por grandes grupos tecnológicos de los niveles gravetienses de la secuencia exterior (Va, IV y III) y de la secuencia interior (VI y V) de Aitzbitarte III.

sia. Kanpoaldeko Va eta IV. mailetan, bloke edo printza gainean prisma forman itxuraturiko nukleoetatik, piramide itxurako nukleoetatik eta zulakaitz-printzetatik abiatuak bideratu zen ijeki eta ijekitxoaren lanketa. Arestian ikusi dugun bezala, haitzuloaren barrunbeto V. eta VI. mailetan ere dokumentatu dira lanketa sistema horiek. Kanpoaldeko IV. mailako eta barrunbeto VI. mailako nukleo prismatikoen kasuan, aurkako haustura-planoen erabilera dokumentatu izan dugu, era berean, zenbaitetan, lanketan eginiko oker edo hutsegiteak zuzentzeko, baina ustiatze polobakarra ageri dute nukleo horietako gehienek. Kanpoaldeko Va eta IV. mailen kasuan, ijekien eta ijekitxoaren ekoizpenean halako segida izango zelako irizpidea plazaratu zen (Rios-Garaizar *et al.* 2011); aldiz, estrategia autonomoak eta desberdinak dokumentatu dira ekoizpen mota bakoitzean V. eta VI. mailetan. Egiaz gertatu zenetik hurbilago legoke ekoizpenaren bigarren kudeaketa mota hau, kontuan hartzen baditugu ijekien eta ijekitxoaren ekoizpenen kudeaketa eta erabilera nabari ageri diren aldeak. Izan ere, bi multzoetan ematen zaio segida zenbaitetan ijeki-euskarri ahituen ustiatze jarduerari, beste euskarri mota batzuk lantzeko (ijekitxoak, printzak), baina alde aurreko lanketa dinamika eten eta gero, nukleoaren orientazioa aldatuz, esate baterako (14. irudian adibidea).

Barrunbeto sekuentziako V. eta VI. mailetak ijekitxoaren ekoizpenari dagokionez, nukleo formako zulakaitzetatik eta zulakaitz karenatuetatik (busqué) abiatuak ekoizpena egiaz-tatu dugu, eta kanpoaldeko sekuentziako III. mailan dokumentaturikoaren antzekoa da. Hala eta guztiz ere, aurrealde estuak eta hegal markatuak ageri dituzten nukleo prismatikotatik abiatuak bideratu zen ijekitxo ekoizpena dokumentatu dugu azkeneko maila horretan, eta horrelakorik ez da barrunbeto mailetan sumatu.


En los niveles Va y IV del exterior, la talla de láminas y laminillas se lleva a cabo a partir de: núcleos prismáticos sobre bloque o lasca, núcleos piramidales y núcleos buril. Como vimos anteriormente, este tipo de sistemas de talla se documentan igualmente en los niveles V y VI del interior. En los núcleos prismáticos del nivel IV exterior y VI interior documentamos ocasionalmente la utilización de un plano de fractura opuesto para la corrección de los accidentes o errores en la talla, pero la mayor parte de los núcleos presentan una explotación unipolar. En los niveles Va y IV del exterior se ha propuesto la existencia de una continuidad entre la producción de láminas y laminillas (Rios-Garaizar *et al.* 2011), sin embargo en los niveles V y VI se documentan estrategias autónomas y diferenciadas para ambos tipos de producciones. Este tipo de gestión parece más probable habida cuenta las claras diferencias en la gestión y uso de las producciones de láminas y de laminillas. De hecho, en ambos conjuntos la explotación de núcleos laminares agotados en ocasiones se continua para producir otro tipo de soportes (laminillas, lascas) pero rompiendo la dinámica de talla previa, cambiando por ejemplo la orientación del núcleo (ej. Fig. 14).

Respecto a la producción de laminillas en los niveles V y VI de la secuencia interior se observa una producción a partir de buriles nucleiformes o carenados (busqué), que es semejante a la documentada en el nivel III de la secuencia exterior. Sin embargo en este último nivel se documenta una producción de laminillas anchas a partir de núcleos prismáticos con frentes estrechos y flancos marcados que no se aprecia en los niveles del interior.



60. irudia. Aitzbitarte III haitzuloaren kanpoaldeko sekuentziako (Va, IV eta III) eta barrunbeto sekuentziako (VI eta V) Gravette mailen arteko alderaketa, multzo tipologikoen arabera, Noailles zulakaitzak zulakaitzen multzoaren barruan aintzat harturik.

Figura 60. Comparación por grandes grupos tipológicos, incluyendo los buriles de Noailles dentro del grupo de los buriles, de los niveles gravetienses de la secuencia exterior (Va, IV y III) y de la secuencia interior (VI y V) de Aitzbitarte III.



6I. irudia. Aitzbitarte III haizuloaren kanpoaldeko sekuentziako (Va, IV eta III) eta barruneko sekuentziako (VI eta V) Gravette mailen arteko alderaketa, multzo tipologikoen arabera, Noailles zulakaitzak multzo berezi batean aintzat harturik.

Figura 6I. Comparación por grandes grupos tipológicos, añadiendo un grupo independiente para los buriles de Noailles, de los niveles gravetienses de la secuencia exterior (Va, IV y III) y de la secuencia interior (VI y V) de Aitzbitarte III.

Beste alde garrantzitsu bat da barruneko mailetan (V eta VI) printzen lanketa metodo autonomoak (disco itxurakoak eta polobakarrak) azaldu izana. Ez dira kanpoaldeko Va eta IV. mailetan azaldu, baina kanpoaldeko sekuentziako III. mailan dokumentatu dira.

Tresneria ukituari dagokionez, lehen mailako multzo tipologikoetan multzokaturik alderatu ditugu Aitzbitarte III haizuloaren barruneko eta kanpoaldeko sekuentzietako multzoak. Aintzat hartu diren maila guztien arteko altuenetakoa da, inondik ere, VI. eta V. mailetakoa, baina batez ere VI. mailako, tresna ukituen proportzioa (% 16 eta % 12,2). Multzo ukituen osaearen sumatzen ditugu alde esanguratsuenak, kontuan harturik betiere Noailles zulakaitzen presentzia handiak barruneko sekuentziako Gravette mailetan duen eragina. Horren beraiazkoak diren tresna horiek alderaketatik kanpo uzten baditugu, aldeak oraindik ere garrantzitsuak direla ohartuko gara, kontuan hartzen badugu ijekitxo ukituak, mozturak eta pieza bizkardunak barrunbean zeinen ugari ageri diren. Antzinako Gravette Aldiko mailetan (kanpoaldeko Va eta IV. mailetan), ugari azaldu dira pieza ezpalduak, ijeki ukituak eta zulakaitzak, eta urri ageri dira, ordea, ijekitxo ukituak edota mozturak, eta guztiz esanguratsua da, gainera, bizkardun piezarik topatu ez izana. Bestalde, barruneko mailenaren antz handiagoa du III. mailako osaera tipologikoak (Gravette Aldi Amaiera).

Aitzbitarte III haizuloko Gravette maila desberdinen arteko alderaketari esker, elementu komunak identifikatu ahal izan ditugu azaldu diren hiru multzo handien artean. Halaz ere, funtsezko aldeak sumatu dira kudeaketa teknologikoan eta tresneria ukituaren arloan, eta argi eta garbi bereizten dituzte alde horiek antzin Gravette Aldia, Noailles gutxi ageri duena, eta Gravette Aldia, Noailles zulakaitzetan jorria. Segida eman zion honi Gravette Aldi Amaierak, III. mailan azaldu denak.

Otra diferencia importante es la presencia de métodos de talla de lascas autónomos (discoides y unipolares) en los niveles del interior (V y VI), que están ausentes en los niveles Va y IV del exterior, pero que sí se documentan en el nivel III de la secuencia exterior.

En cuanto al utillaje retocado, hemos comparado los conjuntos de la secuencia interior y exterior de Aitzbitarte III, agrupándolos por grupos tipológicos primarios. La proporción de útiles retocados en los niveles VI y V, especialmente en el VI, son de las más altas de todos los niveles considerados (16% y 12,2%). Es en la composición de los conjuntos retocados donde observamos diferencias más significativas, derivadas de la abundante presencia de buriles de Noailles en los niveles gravetienses de la secuencia interior. Si excluimos estos útiles tan característicos de la comparación, vemos que aún así las diferencias son importantes, destacando en el interior la abundancia de laminillas retocadas, de truncaduras y de dorsos. En los niveles del Gravetiense Antiguo (Va y IV de la secuencia exterior) hay abundantes piezas astilladas, láminas retocadas y buriles, y escasas laminillas retocadas o truncaduras, siendo notable la ausencia de piezas de dorso. Por otro lado, la composición tipológica del nivel III (Gravetiense Reciente) es más semejante a la de los niveles del interior.

La comparación de los distintos niveles Gravetienses de Aitzbitarte III permite identificar elementos comunes entre los tres grandes conjuntos representados. Sin embargo, se observan diferencias sustanciales en la gestión tecnológica y en el utillaje retocado que diferencian claramente un Gravetiense Antiguo con escasos Noailles y un Gravetiense rico en Noailles que presenta cierta continuidad con el Gravetiense más reciente representado en el nivel III.

5.3. AITZBITARTE III HAITZULOAREN BARRUNBEKO SEKUENTZIAKO MAILAK ESKUALDEKO GRAVETTE TESTUINGURUAN

Bultzada garrantzitsua jaso dute azken urteotan Gravette Aldiko kulturak Kantauri aldeko lurraldearen ekialdean eduki zuen eraginaren gaineko ikerketek, hainbat aztarnategitan bideraturiko azterketa-lanei esker: Antoliñako Koba edota Aldatxarren haitzuloetako sekuentzien azterketa (Aguirre 1998, Sáenz de Buruaga 2007), haize zabaleko aztarnategien aurkikundea eta indusketa (Ametzagaina edo Irikaitz; Tapia *et al.* 2009; Arrizabalaga & Iriarte 2011; Arrizabalaga *et al.* 2014;), haitzuloetako arte multzoen aurkikundea (Askondo; Garate eta Ríos-Garaizar 2012), gaugerero ezagunak ziren sekuentzia eta aztarnategietako berrikuste lanak (Bolinkoba, Iriarte-Chiapusso eta Arrizabalaga 2012), eta alderdi puntual batzuen azterketa, hala nola Izturitze motako puntak (Ríos-Garaizar y Garate 2014) edota objektu higigarrien artea (Rivero eta Garate 2014). Hala eta guztiz ere, bultzada bizkorrena eman diete ikerketa horiei Aitzbitarte IIIko kanpoaldeko sekuentziako Gravette maileri buruzko azterketa-lanen (Altuna *et al.* 2011, 2012) eta, batez ere, bertako industria multzoei buruzko ikerketa-lanen (Ríos-Garaizar *et al.* 2011) ondorioen argitalpenak. Era berean, Gravette Aldiko kulturaren izaera poliedrikoa agerian utzi duten laborpen-saiakera batzuk argitaratu dira azken urteotan (De La Peña 2011, Arrizabalaga eta De La Peña 2012). Tesi horren arabera, Gravette aldia, alde batetik, hedadura-eremu oso zabalean bere kultura eta ageraldi teknologiko batzuen aurrean batasun handia ageri duen teknokonplexu modukoa bada ere (Otte 2013), beste alde batetik denbora eta geografia eskala oso zabalean (Europa osoa ia 10 mila urtean barrena) era askotako portaerak ageri dituen teknokonplexua dugu era berean.

Gravette aldiak Kantauri-Pirinio lurralde honetan bete zuen sekuentzia kronologikoari dagokio orain arteko ikuspegia funtsean aldatu izana erakusten digun alderdietako bat, 28.000 BP (31-32 cal BP) datazioaren aurreko datak dokumentatu egin baitira maila batzuetan. Eta teknokonplexu horren lekukotasun zaharrenetakoak ditugu horietatik Europar. Hain zuzen ere, ekialdeko eta Pirinio aldeko aztarnategiak dira data zaharrenak eskaini dituztenak (datazio koadroak *in* Ríos Garaizar, *et al.*, 2011). Ekialdeko aztarnategi horietako batzuk dira Aitzbitarte III (sarrerako aldea), Antoliña (Aguirre, 1998), Amalda (Altuna, 1992), Aldatxarren (Sáenz de Buruaga 2007), Alkerdi (Cava, *et al.*, 2009) eta Zatoia (Barandiaran eta Cava, 2008). Pirinioetatik haranzko aldean badira, halaber, datazio zaharrak eman dituzten aztarnategiak, horra Gargas, La Carene, Enlene, Tarté, eta La Tuto de Camalhot (Foucher, *et al.*, 2008). Kantauri aldeko lurraldearen erdialdean eta mendebaldean datazio zahar xamarrek eskainiak dira honako aztarnategi hauek: El Mirón (Straus eta González Morales, 2003), Morín (Bradtmöller 2014) eta Cueto de la Mina (Hoyos Gómez eta De La Rasilla Vives, 1994). Antzin Gravette Aldiko kulturak Kantauri-Pirinio aldean eduki zituen ezaugarriak sakon aztertuko dituen ikerketa baten faltan gaudelarik, bereziki azpimarratu beharko genituzke lehen Gravette aldiok agerri diren Aurignac Aldi Garatuak eskualde berean erakutsi dituen ezaugarriekin itxuraz dituzten loturak, hala nola Noailles zulaikitzak, tamaina handiko formatuan ageri baitira Aitzbitarte III haitzuloko Aurignac Aldi Garatuan (Ríos-Garaizar *et al.* 2013).

Informazio gehiago dugu eskura Erdi Gravette Aldiaren kasuan, eta bereziki garrantzitsuak ditugu honetan Antoliñako Koba, Bolinkoba, Izturitze eta Gatzarria aztarnategiak, orain berri argitara eman diren Hego Mugarduia edota Ametzagaina, haize zabaleko aztarnategiak (Barandiaran *et al.* 2013; Calvo *et al.* 2012) alde bat utzi gabe. Une honetarako lortu diren

5.3. LOS NIVELES DE LA SECUENCIA INTERIOR DE AITZBITARTE III EN EL CONTEXTO GRAVETIENSE REGIONAL

El estudio del Gravetiense en el oriente de la región cántabrica ha recibido un impulso importante en los últimos años gracias al estudio de nuevas secuencias en cueva como Antoliñako Koba o Aldatxarren (Aguirre 1998, Sáenz de Buruaga 2007), al descubrimiento y excavación de yacimientos al aire libre como Ametzagaina o Irikaitz (Tapia *et al.* 2009; Arrizabalaga & Iriarte 2011; Arrizabalaga *et al.* 2014;), al descubrimiento de conjuntos de arte rupestre como Askondo (Garate y Ríos-Garaizar 2012), o a la revisión de secuencias o yacimientos ya conocidos como Bolinkoba (Iriarte-Chiapusso y Arrizabalaga 2012), y al estudio de aspectos puntuales como las puntas de tipo Izturitz (Ríos-Garaizar y Garate 2014) o el arte mueble (Rivero y Garate 2014). No obstante el mayor impulso viene de la mano de la publicación de los niveles Gravetienses de la secuencia exterior de Aitzbitarte III (Altuna *et al.* 2011, 2012), y especialmente de la publicación de sus conjuntos industriales (Ríos-Garaizar *et al.* 2011). Asimismo en los últimos años se han publicado ensayos de síntesis (De La Peña 2011, Arrizabalaga y De La Peña 2012), que muestran el carácter poliédrico del Gravetiense, siendo por un lado un tecnocomplejo que muestra una gran unidad en algunas de sus manifestaciones culturales y tecnológicas a lo largo de su vasta área de dispersión (Otte 2013), y por otro un tecnocomplejo que muestra una gran variabilidad de comportamientos en una escala temporal y geográfica muy amplia (la totalidad de Europa durante casi 10 milenios).

Uno de los aspectos que se ha modificado de manera sustancial se refiere a la secuencia cronológica del Gravetiense de la región cántabro-pirenaica, donde se han reconocido niveles con fechas anteriores a 28.000 BP (31-32 cal BP), siendo éstas algunas de las evidencias más antiguas para este tecnocomplejo en Europa. Precisamente son los yacimientos de la zona oriental y pirenaica los que dan fechas más antiguas (ver cuadro con dataciones en (Ríos Garaizar, *et al.*, 2011), algunos de estos yacimientos de la zona oriental son Aitzbitarte III (sector de entrada), Antoliñako Koba (Aguirre, 2012), Amalda (Altuna, 1992), Aldatxarren (Sáenz de Buruaga 2007), Alkerdi (Cava, *et al.*, 2009) y Zatoia (Barandiaran y Cava, 2008). Al otro lado de los Pirineos también hay yacimientos que han proporcionado dataciones antiguas, Gargas, La Carene, Enlene, Tarté, La Tuto de Camalhot (Foucher, *et al.*, 2008), y otros como El Mirón (Straus y González Morales, 2003), Morín (Bradtmöller 2014) y Cueto de la Mina (Hoyos Gómez y De La Rasilla Vives, 1994), situados en el Cantábrico Central y Occidental, respectivamente, presentan también fechas bastante antiguas. A falta de una investigación en profundidad de las características de este Gravetiense más antiguo en la región cántabro-pirenaica destacan los aparentes vínculos con el Auriñaciense Evolucionado regional, especialmente en la continuidad de algunos tipos de útiles muy específicos, como los buriles de Noailles, que aparecen en el Auriñaciense Evolucionado de Aitzbitarte III en formatos de gran tamaño (Ríos-Garaizar *et al.* 2013).

Respecto al Gravetiense rico en buriles de Noailles la información disponible es más abundante, siendo especialmente importantes los yacimientos de Antoliñako Koba, Bolinkoba, Izturitz y Gatzarria, a los que hay que sumar los yacimientos al aire libre recientemente publicados de Mugarduia Sur o Ametzagaina (Barandiaran *et al.* 2013; Calvo *et al.* 2012). Las dataciones disponibles para éste momento son muy escasas en los

datazioak gutxi dira haizuloetako aztarnategietan eta, gainera, haize zabaleko aztarnategi bakar batean ere ezin izan da datazio guztiz fidagarririk lortu (Barandiaran et al. 2013). Bolinkoba, Izturitze edota Gatzarria aztarnategietako sekuentziatarako ere ez dugu oraingoz datazio fidagarririk, eta sekuentzia horiek, gainera, arazoak sorrarazi dituzte estratigrafia zehazterakoan (Iriarte-Chiapusso eta Arrizabalaga 2012, Normand et al. 2012, Sáenz de Buruaga 1991). Azkenik, Aitzbitarte III haizuloko VI. mailakoak (32100 eta 31000 calBP) baino datazio zaharragoak lortu dira Antoliñako Koba aztarnategian, bertako LMbk sup mailan hain zuzen ere (Aguirre 2012). Gravette Aldiko fase honen ezaugarritzeari ekitekoan, arazoa da, batere zalantzarik gabe, kronologia marko fidagarririk ez izatea eta kontrastaturiko sekuentzia aski ez edukitzea.

Argudiatu izan da orain berri Aitzbitarte III haizuloaren barruneko sekuentziako VI. eta V. mailetan lorturiko datazioak berriek direla denboran Erdi Gravette Aldiaren barrukotzat hartuak izan ahal izateko (De La Peña Alonso, 2011a, ikus era berean eztabaida in Rios-Garaizar et al. 2011), Dordoinan, Pirinioetan eta Kantauri aldean Noailles zulakaitzez hornituriko multzoei egokituriko datazioak baino mila urte geroagoak direla kontuan hartzen badugu batez ere. Argiagotu egin behar dago, alabaina, uste hori, kontuan harturik Mendebaldeko Pirinioetan Noailles zulakaitz multzo joriak azaldu diren aztarnategiek (Izturitze, Gatzarria eta Bolinkoba) ez dutela datazio absolutu fidagarri eskaini (Foucher 2012). Gainera, Pirinioetako hainbat aztarnategitan, La Tuto de Camalhot-en adibidez, multzo mota horren iraupen luzea adierazi da, gutxi gorabehera 23.500 uncalBP data bitarte (Foucher 2012), hau da, Aitzbitarte III haizuloaren barruneko sekuentzian lorturikoak baino data berriagoak eskaini dituzte datazioek. Ekialdeko Kantauri aldean 25-23.000 uncalBP bitarterako lortu diren lekukotasunak oso gutxi dira eta Aitzbitarte III haizuloko multzora, Arlanpeko 2. mailan datatu zen multzo txiki batera (Rios-Garaizar et al. 2013), eta Askondoko haizuloetako arte multzorako lortu zen dataziora (Garate eta Rios-Garaizar 2013) mugatzen dira. Arestian adierazi dugun bezala, Aitzbitarte III haizuloko VI. eta V. mailetan lorturiko datazioen artean badira outlier gisa har litezkeen emaitza batzuk eta, itxura den bezala, VI. mailan lorturiko balioek indusketa-azalen araberako antolakuntza ageri ez duten arren, hori ez da hartu behar datazioen beren arazoa balitz bezala, baizik eta mailaren palimpsesto izaeraren eta indusketa metodologiaren beraren ondorioztat, sekuentzia mikroestratigrafikoetan ezin izan baitira indusketa-azalak aintzat hartu. VI. mailako datazioak batera harturik aztertzen baditugu, gutxi gorabehera 24.500 eta 23.500 uncalBP daten artean banatzen direla ikusiko dugu; hau da, Ekialdeko Kantauri aldean oso informazio eskasa daukagun bi milurtekoan hain zuzen ere. Beraz, bidezkoa da proposatzea Aitzbitarte III haizuloaren barruneko sekuentzian Noailles zulakaitzez jori hornituriko Gravette aldi bati dagozkion okupazioak dokumentatu direla, La Tuto de Camalhot aztarnategikoen antzeko datetan, eta Erdi Noailles aldiaren amaierako fase baten aurrean geundeko, beraz, 26-24.000 uncalBP daten artean hain zuzen ere.

Lehengaie dagokienez, hornikuntza jarduera konplexua sumatzen da aztarnategian, eta datu esanguratsua da hartan lehengaien mugikortasuna (Tarrío Vinagre eta Elorrieta Baigorri, 2012; Tarrío et al. 2014). Halatan, Aitzbitarte III edota Alkerdi aztarnategietako Antzin Gravette Aldiko mailetan ere gertatzen zen bezala (Tarrío Vinagre eta Elorrieta Baigorri, 2012), oso maiz dokumentatu da kanpoko suharrien presentzia suharri-azaleratzeetatik urrun kokaturiko aztarnategietan, halako moldez non, kanpoko suharriaren proportzioa % 15,2koa dela Antoliñako Koban (Trebiniu eta Urbaskoa nagusiki, Tarrío

yacimientos en cueva, y además ninguno de los yacimientos al aire libre ha producido hasta el momento dataciones fiables (Barandiaran et al. 2013). Tampoco se dispone de dataciones fiables para las secuencias de Bolinkoba, Izturitz o Gatzarria, secuencias que además presentan problemas de definición estratigráfica (Iriarte-Chiapusso y Arrizabalaga 2012, Normand et al. 2012, Sáenz de Buruaga 1991). Finalmente para el yacimiento de Antoliñako Koba se dispone, para el nivel Lmbk sup, de una batería de dataciones, que son más antiguas que las del nivel VI de Aitzbitarte III (32100 y 31000 calBP) (Aguirre 2012). Sin duda esta carencia de un marco cronológico fiable, así como de secuencias contrastadas, supone un problema a la hora de abordar la caracterización de esta fase del Gravetiense.

Recientemente se ha planteado que las dataciones de los niveles VI y V de la secuencia interior de Aitzbitarte III son demasiado recientes para ocupaciones asimilables al "Gravetiense Medio" de Francia (De La Peña Alonso, 2011a, ver también discusión en Rios-Garaizar et al. 2011), sobre todo teniendo en cuenta que son un milenio más recientes que las dataciones disponibles para conjuntos con Noailles en Dordoina, Pirineos y Cantábrico. Sin embargo hay que matizar esta impresión teniendo en cuenta que los sitios del Pirineo Occidental con conjuntos Gravetienses ricos en buriles de Noailles (Izturitz, Gatzarria y Bolinkoba) carecen de dataciones absolutas fiables (Foucher 2012). Además en Pirineos se ha señalado la pervivencia de este tipo de conjuntos hasta ca. 23.500 uncalBP en yacimientos como La Tuto de Camalhot (Foucher 2012), es decir, en fechas ligeramente más recientes a las obtenidas en la secuencia interior de Aitzbitarte III. Las evidencias disponibles para el intervalo 25-23.000 uncalBP en el cantábrico oriental son muy escasas y se limitan al conjunto de Aitzbitarte III, a un pequeño conjunto datado en el nivel 2 de Arlanpe (Rios-Garaizar et al. 2013) y a la datación obtenida para el conjunto de arte rupestre de Askondo (Garate y Rios-Garaizar 2013). Como hemos señalado anteriormente, el conjunto de dataciones de los niveles VI y V de Aitzbitarte III presentan algunos resultados que pueden considerarse como *outliers* y, aunque aparentemente los valores obtenidos en el nivel VI no muestran una ordenación de acuerdo a los lechos de excavación, esto no debe interpretarse como un problema de las dataciones en sí mismas, sino como un efecto combinado del carácter de palimpsesto del nivel y de la propia metodología de excavación, que impide considerar los lechos de excavación a una secuencia micro-estratigráfica. Si analizamos las dataciones del nivel VI en su conjunto vemos que se distribuyen entre ca. 24.500 y 23.500 uncalBP, es decir, en los dos milenios para los que tenemos escasa información en el cantábrico oriental. Por tanto parece apropiado plantear que en la secuencia interior de Aitzbitarte se recogen ocupaciones atribuibles a un Gravetiense rico en buriles de Noailles con fechas semejantes a las de La Tuto de Camalhot, que puede representar una fase reciente del Noailense Medio datado entre 26-24.000 uncalBP.

Respecto a las materias primas se observa un aprovisionamiento complejo en el que la movilidad de materias primas es un elemento relevante (Tarrío Vinagre y Elorrieta Baigorri, 2012; Tarrío et al. 2014). Así es frecuente, como sucedía en los niveles del Gravetiense Antiguo de Aitzbitarte III o de Alkerdi (Tarrío Vinagre y Elorrieta Baigorri, 2012), la presencia de sílex exógenos en los yacimientos situados lejos de los principales afloramientos de sílex. De este modo, la proporción de sílex exógeno, principalmente de Treviño y Urbasa en Antoliñako Koba, alcanza el 15,2 % (Tarrío Vinagre y Elorrieta Baigorri, 2012), en Ametzagaina el de Chalosse y Urbasa casi alcanzan un 17%

Vinagre y Elorrieta Baigorri, 2012), ia % 17koa Ametzagainan (Chalosse eta Urbasakoa, Arrizabalaga et al. 2014a), eta % 13,3 eta % 28,4 bitartekoa Aitzbitarte III haizuloaren kanpoaldeko mailetan (Tarrío 2011). Azken bi aztarnategi horietan oso maiz azaldu da Pirinioez haranzko lekuetako suharriak. Kalitatezko suharrien azaleratze-gunetan egokituriko aztarnategietan, horra Mugarduia Urbasa aldean, guztiz nagusitu zen bertako suharriaren erabilera (Barandiaran et al. 2013).

Ekipamendu teknologikoaren ikuspuntutik, ezaugarri komun batzuk sumatu eta ikusi ahal izan dira multzo gehienetan. Honetan guztian halako kultura segida edo koherentzia izan zelako ideia berresten digu datu horrek, eta segida hori sumatu ere egiten da Antzin Gravette aldiko fase zaharretan ere, Aitzbitarte III haizuloaren kanpoaldeko sekuentziako Va eta IV. mailetan batez ere.

Kantauri eta Pirinio aldeko Gravette multzoetan bideraturiko ikerketa teknologikoen (Barandiaran eta Cava, 2008; Cava et al., 2009; De la Peña 2011; Ríos, et al., 2011; Simonet, 2009b) ezaugarri komun batzuk hauteman dituzte harrizko tresneriaren ekoizpenean (Altuna, et al., 2012), eta bat dituzte, oro har, ezaugarri horiek Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto sekuentziako V. eta VI. mailek. Hona hemen Pirinio aldean Gravette aldiko mailak eta multzoak ageri dituzten aztarnategien ezaugarri komunitako batzuk:

- Polobakartasuna nagusi, prisma formako nukleoaren antolakuntzan; behin edo beste baizik ez dira horietan aurkako haustura-planoak bideratu, zuzenketari begira.
- Ijeki edo ijekitxo bidezko euskarriak dira lanketaren helburu nagusiak, ijekitxoak batez ere.
- Prestaera eskasa ageri dute nukleoek, eta haien mantentze estrategiak ere ximpleak dira: aurpegi bakarreko edo biko gandorrak, garbiketako printzak, hegalak eta tabletak.
- Bidaxuneko lauzotxoetatik abiatutako lanketa dokumentatu dugu, hegal azaldunei eutsiz, ijeki-formatu zabalak eta ijeki-printzak itxuratzeari begira.

Tresneria ukituaren ikuspuntutik, bereziki aipagarria da Noailles zulakaitzaren, pieza ezpalduen eta bizkardun elementuen presentzia, eta Pirinio aldera ere hedatzen genezake joera hori (Foucher 2012). Esanguratsuak dira, halarik ere, aintzat harturiko aztarnategietan bizkardun punten eta Noailles zulakaitzen proportzio-balioen artean ageri diren alde nabariak. Noailles zulakaitzak erruz ageri dira lan honetan deskribatu ditugun antzeko multzoetan, hala nola Aitzbitarte III edo Izturitze (Normand et al. 2012). Kopuru handian azaldu dira, era berean, Ametzagainako haize zabaleko multzoan, Antoliñako Koban edota Bolinkoban, eta maiz agertzen den elementua dugu beste multzo txikiago batzuetan, hala nola Atxurra (Tapia et al. 2009; Aguirre 2012; Arrizabalaga 1994; Barandiaran 1967). Beste multzo batzuetan, haatik –hor dugu adibidez Hego Mugarduia–, alerik ere ez da azaldu (Barandiaran et al. 2013). Beste horrenbestekoa gertatu da bizkardun punten multzoan, Gravette punten kasuan bereziki, Hego Mugarduian eta beste aztarnategi batzuetan oso ugari azaldu arren, anekdota baizik ez baitira haizulo barruko multzoetan, hala nola Aitzbitarte III haizuloan, Bolinkoban eta Antoliñako Koban. Bi entitate teknologiko desberdin bereiztera, edo lurralde barruan halako egituratze edo banakuntza funtzional sakona zegoelakoa uste izatera, garrantzitsuak dira hauek haizulo barruko eta haize zabaleko aztarnategi batzuetan pisu handia edukiko zuten Noailles zulakaitzen ekoizpenak eta erabilerak, eta beste batzuetan garrantzitsuagoak izango ziren ehizarako tresneriaren konpontze jarduerak.

(Arrizabalaga et al. 2014a) y en los niveles exteriores de Aitzbitarte III oscilan entre el 13,3 y 28,4 %, (Tarrío 2011) siendo la presencia de sílex norpirenaico bastante frecuente en estos dos últimos yacimientos. En yacimientos como Mugarduia, situados sobre afloramientos de sílex de calidad, en este caso Urbasa, el uso de sílex local es abrumadoramente mayoritario (Barandiaran et al. 2013).

Desde un punto de vista del equipamiento tecnológico se pueden reconocer algunas características comunes en la mayor parte de los conjuntos que apoyan la idea de una cierta continuidad o coherencia cultural, reconociéndose además cierta continuidad con los niveles gravetienses más antiguos, especialmente con los niveles Va y IV de la secuencia exterior de Aitzbitarte III.

Los estudios tecnológicos realizados en los conjuntos gravetienses del área cantábrica y pirenaica (Barandiaran y Cava, 2008; Cava et al., 2009; De la Peña 2011; Ríos, et al., 2011; Simonet, 2009b) muestran ciertos rasgos comunes en la producción lítica (Altuna, et al., 2012), que a su vez comparten a grandes rasgos los niveles V y VI de la secuencia interior de Aitzbitarte III. Algunos de estos rasgos comunes que presentan los yacimientos adscritos al Gravetiense en la zona pirenaica son:

- Unipolaridad dominante en la ordenación de los núcleos prismáticos, en los que sólo ocasionalmente se acude a planos de fractura opuestos como medio de corrección.
- Los principales objetivos de la talla son los soportes laminares, concretamente las laminillas.
- Escasa preparación de los núcleos y estrategias simples de mantenimiento a través de crestas uni y bifaciales, lascas de limpieza, flancos y tabletas.
- Se ha documentado la talla a partir de plaquetas de Bidache, conservando flancos corticales, especialmente para ciertos formatos laminares anchos y de lascas laminares.

Desde un punto de vista del utillaje retocado destaca la presencia de buriles de Noailles, de piezas astilladas y de elementos de dorso, algo que es extensible a la región Pirenaica (Foucher 2012). Resulta sin embargo notable la variación en la proporción de puntas de dorso y de buriles de Noailles que se observan en los distintos yacimientos considerados. Los buriles de Noailles son extraordinariamente abundantes en conjuntos como los aquí descritos de la secuencia interior de Aitzbitarte III o en Izturitze (Normand et al. 2012). Son también frecuentes en el conjunto al aire libre de Ametzagaina, en la cueva de Antoliña o en Bolinkoba, representando también un elemento frecuente en otros conjuntos menores como Atxurra (Tapia et al. 2009; Aguirre 2012; Arrizabalaga 1994; Barandiaran 1967). Sin embargo en otros conjuntos como Mugarduia Sur están completamente ausentes (Barandiaran et al. 2013). Algo semejante sucede con las puntas de dorso, especialmente con las puntas de la Gravette, muy abundantes en conjuntos como Mugarduia Sur, y apenas presentes en conjuntos en cueva como Aitzbitarte III, Bolinkoba o Antoliña. Estas variaciones conducen a valorar la existencia de dos entidades tecnológicas diferenciadas, o a la existencia de una fuerte estructuración funcional del territorio, con yacimientos en cueva y al aire libre en los que la producción y uso de los buriles de Noailles tiene un gran peso, mientras que en otros la reparación del utillaje de caza es más importante.

Harrizko industriaren berezko elementu hauekin batean kontuan hartu behar dira hezurrezko industriaren ageri diren elementu komunak, hala nola Izturitze puntan presentzia, Izturitze, Gatzarria, Aitzbitarte III, Bolinkoba, Usategi edota Askondo aztarnategietan (San Juan eta Vercoutère 2003, Rios-Garaizar eta Garate 2014; Rios liburu honetan), eta haiekin batera lerrokatu beharko genituzke, era berean, Antoliñako Koban azaldu diren antzeko objektu batzuk (Aguirre 2012).

Azkenik, berrikuste baten xede bihurtu zaigu, halaber, eskualde honetan Gravette aldiak bizi izan zuen amaiera. Gaur den egunean ugari dira ezaugarriak errepertatu ondoren Gravette aldiko teknokonplexuari lotuak diren arren oso data berriak salatzen ari diren multzo arkeologikoak: nahasirik ageri baitira Gravette adskripzio horiek eskola frantsesaren arabera sekuentzia klasikoko Behe eta Erdi Solutre aldikoekin. Aitzbitarte haitzuloaren kanpoaldeko sekuentziako III. maila dugu honetan maila adierazgarria (Rios-Garaizar *et al.* 2011), baina antzeko ezaugarriak ageri dituzten multzoak dokumentatu dira, era berean, beste aztarnategi batzuetan, horra Antoliñako Koba (Aguirre 2013), Fuente del Salín (González Morales eta Moure, 2008), La Garma A (Álvarez Fernández, 2007) edota Altamira (De Las Heras, *et al.*, 2012). Beste aztarnategi batzuetan (Morín, Hornos de la Peña, La Riera eta Rascaño), Gravette multzoekin loturiko datazio berriak ere dokumentatu dira, baina arazoak dira horiek guztiak, metodologia eta estratigrafia arazo batzuk direla medio (De la Rasilla eta Straus, 2004, González Echeagaray eta Freeman, 1978, Straus, *et al.*, 1983). Multzo horietako batzuek Noailles zulakaitzetan joria den Gravette teknokonplexuaren segidakoak direla ageri bide dute peto-peto, hala da Kantauri aldearen ekialdeko eskualdean behinik behin, eta berritasun batzuk azaldu dituzte ijekitxoan ekoizpenean, halako pisua hartu baitute hartan nukleo karenatuek. Bestalde, herabe bada ere, ukiera lauko elementuak ere azaldu dira haietan.

A estos elementos propios de la industria lítica hay que añadir elementos comunes en la industria ósea como la presencia de puntas de Izturitz en conjuntos como Izturitz, Gatzarria, Aitzbitarte III, Bolinkoba, Usategi o Askondo (San Juan y Vercoutère 2003, Rios-Garaizar y Garate 2014; Rios en este volumen), a las que hay que sumar algunos objetos semejantes de Antoliñako Koba (Aguirre 2012).

Por último el final del Gravetiense en esta región también está siendo objeto de una revisión, siendo a día de hoy bastante numerosos los conjuntos arqueológicos con características que permiten una adscripción al tecnocomplejo Gravetiense que presentan sin embargo fechas muy recientes, que se solapan con el Solutrense inferior y medio de la secuencia clásica francesa. El nivel más característico es el III de la secuencia exterior de Aitzbitarte (Rios-Garaizar *et al.* 2011), pero en otros yacimientos como Antoliñako Koba (Aguirre 2013), Fuente del Salín (González Morales y Moure, 2008), La Garma A (Álvarez Fernández, 2007) o Altamira (De Las Heras, *et al.*, 2012), se han documentado conjuntos con rasgos semejantes. Otros como Morín, Hornos de la Peña, La Riera o Rascaño presentan dataciones recientes asociadas a conjuntos gravetienses que resultan más problemáticas por distintos problemas de orden metodológico y estratigráfico (De la Rasilla y Straus, 2004, González Echeagaray y Freeman, 1978, Straus, *et al.*, 1983). Alguno de estos conjuntos parece mostrar una fuerte continuidad con el tecnocomplejo Gravetiense rico en Noailles, al menos en la zona oriental del Cantábrico, incorporando algunas novedades en la producción de laminillas, donde adquieren cierto peso los núcleos carenados, e incorporando de manera tímida algunos elementos de retoque plano.

6. IV. MAILA

6.1. SARRERA

6. azalari dagokio IV. maila, eta induskaturiko azalera guztian agertu da, K eta L bandetan izan ezik. Kareharri eta hareharriko lauzatxo osaturiko geruza fin baten moduan deskribatu da maila; elkarren gainean ageri dira harriak, zoladura modura, eta matrize apurrak ageri dira euren arteko zirrikietan. Definitu zen bezala, horizta, konkrezionatua eta zulatzen zaila da matrizea, eta hartan azaldu dira maila honetan berreskuratu diren aztarnak. Oso lodiera txikiko maila da, 4 cm batez beste.

6.2. MULTZOAREN OSOTASUNA ETA KONTSIDERAZIO TAFONOMIKOAK

Arazo batzuk ageri ditu IV. mailak, arrazoi batzuk direla medio. Natura dago, alde batetik: elkarren gainean ageri diren harri edo lauzatxo zabalaren presentziak ezaugarrituriko maila da, eta haren jatorria antropikoa izan zitekeela iradoki dute (Altunak, liburu honetan). Hala izanez gero, mugitu eta nahasi egingo zituzten materialak (horrenbestez azaldu ahal izango litzateke orri hostokararen zatiaren presentzia V. eta IV. mailen arteko kontaktu-eremuan). Bestalde, mesederik ez diote egiten mailaren potentzia eskasak eta goialdeko eta behealdeko mailakiko mihizatzerik azaldu ez izanak multzoaren osotasunari-

Aztarnen banaketari erreparatzen badiogu, garbi ikusiko dugu, orotan berdintsua ez izateaz gainera, aztarnak barreiatu-rik eta, oro har, dentsitate apalean ageri direla, K-L bandetan, hau da, lauzatxo-rik ageri ez den gunean, eta 57O-Q eta 60M-N laukietan batez ere.

6. NIVEL IV


6.1. INTRODUCCIÓN

El Nivel IV comprende únicamente el lecho 6, y se reconoce en toda la extensión excavada salvo en las bandas K y L. Este nivel se describe como una fina capa de pequeñas lascas, de caliza y arenisca, yuxtapuestas a modo de pavimento y con poca matriz intercalada. Esta matriz se definió como de color amarillento, concrecionada y complicada de excavar; es en ella donde aparecen los restos recuperados en este nivel. Se trata de un nivel muy poco espeso, de unos 4 cm de potencia media.

6.2. INTEGRIDAD DEL CONJUNTO Y CONSIDERACIONES TAFONÓMICAS

El nivel IV resulta problemático debido a varias razones. Por un lado está su naturaleza, se trata de un nivel caracterizado por la presencia de lascas yuxtapuestas y se ha sugerido su posible origen antrópico (Altuna, en este volumen) lo que sin lugar a dudas provocaría una remoción de los materiales y posibles mezclas (esto podría explicar la presencia del fragmento de foliácea en el contacto entre el nivel V y IV). La escasa potencia del mismo y la ausencia de remontados dentro del nivel, y con los niveles superior e inferior no apoya la idea de integridad del conjunto.

Si nos fijamos en la distribución de los restos vemos que es bastante desigual, los restos aparecen dispersos y con densidades bajas en general, y en particular en las bandas K-L, que es donde no aparecen las lascas, y en los cuadros 57O-Q y 60M-N.




62. irudia. IV. mailako aztarna koordinatuen banaketa.

Figura 62. Distribución de los restos coordinados del nivel IV.

63. irudia. IV. mailan dokumentaturiko alterazioen berri ematen duten grafika eta taula.

Figura 63. Gráfico y tabla con las distintas alteraciones documentadas en el nivel IV.



Materialen kontserbazio egoerari dagokionez, itxuraldaturik ageri dira, hola edo hala, piezen erditik gora, eta alterazio bat baino gehiago ageri dituzte batzuek aldi berean, horrelakoak gutxi badira ere (% 4). Itxura guztien arabera, era bereizgarrian gertatu da multzoa prozesu natural eta antropiko batzuen mendean. Deshidratazioa eta hainbat gradutan ageri diren patinak dira alterazio nagusiak, eta uraren ekinarekin lotuak ageri zaizkigu biak. Materialak garraiatu ote zituzten ideia iradokitzen diguten alterazio mekaniko eta kimiko batzuk dokumentatu dira (eremu altxatuak eta haustura berriak, biratzeak, konkrezioak). Suaren ekinak eraginiko alterazio termikoak eta haustura zaharrak ere azaldu dira, baina ez dira horren esanguratsuak. Garrantzitsua da, bestalde, patina burdintsuen presentzia, behealdeko mailan ere (IV. maila) dokumentatu zena.

Laburbilduz, hainbat alterazio mota jasan bide zituzten maila honetan materialek. Datu hau eta mailaren izaera, haren potentzia eskasa eta mihiztatze eza, kontuan harturik, inolaz ere ezin ziurtatuko dugu mailaren osotasuna, ez eta materialen nolabaiteko sinkronia ere. Bestalde, arazotsuak dira halaber lortu ditugun datazioak eta, beraz, batere ez dugu baztertzen maila hau osatu zen unean material nahasteak gertatuko zira-tekeelako ideia.

353 aztarna aztertu ditugu guztira IV. mailan, eta ukieren bitartez taxutu edo itxuratu ziren haietako 73. Haien artean erregistratu dira 5 aztarna makrolitiko eta kuartzozko bloke bat, aldarazi eta erabili gabe. Bestalde, forma gabeko 48 zati zenbatu ditugu guztira, bai eta 10 mm-tik beherako 55 ezkail ere. Sekuentziako txikiena da IV. maila, alde bat utzirik Gainazaleko maila, hala harrizko piezen kopuruan nola materialak ageri diren dentsitatean.

6.3. LEHENGAIK

IV. mailan, beherago ageri diren beste mailetan bezala, suharrria da inolaz ere lehengai erabiliena, halaxe gertatu baita kasuen % 97,73an (17. taula), baina presentzia handiagotu dute, hein oso txikian bada ere, beste materia batzuek, hala nola hareharriak, harri-kristalak, kuartzitak, kuartzoak eta okreak. Lotuago daude horiek guztiak industria makrolitikoarekin lanketa jarduerarekin berarekin baino. Segida izango du beste lehengai batzuk gehiago erabiltzeko joerak II.-III. mailatan, baina inoiz ere ez dira portzentajea esanguratsuetan azalduko.

Con respecto al estado de conservación de los materiales, más de la mitad de los efectivos presenta algún tipo de alteración, y algunos presentan varias alteraciones a la vez, aunque esto último se da en un porcentaje bastante bajo (4%). Parece que el conjunto ha sido afectado de forma diferencial por distintos procesos naturales y antrópicos. Las principales alteraciones son la deshidratación y las pátinas que aparecen en distintos grados, y que están vinculadas con la acción del agua. Se han documentado algunas alteraciones mecánicas o químicas que sugieren un transporte de materiales (desconchados y fracturas recientes, rodamiento, concreciones). Las alteraciones térmicas por la acción del fuego y las fracturas antiguas aparecen pero son poco relevantes. Destaca la importante presencia de pátinas ferruginosas, también presentes en el nivel inferior (Nivel V).

En resumen, los materiales de este nivel parecen haber sufrido diversas alteraciones. Esto junto con la naturaleza del nivel, su escasa potencia y la ausencia de remontados, hace que no podamos asegurar la integridad del nivel ni la relativa sincronía de los materiales. Por otro lado, las dataciones obtenidas también son problemáticas, por lo tanto no descartamos que se hayan producido mezclas de materiales en el momento de su formación.

El total de restos analizados del conjunto del nivel IV es de 353, de los cuales 73 han sido conformados mediante retoque. Entre ellos se han registrado 5 restos macrolíticos y 1 bloque lítico sin modificar y sin usar de cuarzo. Por otro lado se han contabilizado un total de 48 fragmentos informes y 55 esquirlas menores de 10 mm. El nivel IV es el nivel más pequeño de la secuencia, sin contar el nivel Superficial, tanto en términos de efectivos líticos como de densidad de materiales.

6.3. MATERIAS PRIMAS

En el nivel IV, al igual que en los niveles inferiores, encontramos un predominio del uso del sílex como materia prima, alcanzando un 97,73% (tabla 17), pero vemos un ligero aumento del uso de otras materias como arenisca, cristal de roca, cuarcita, cuarzo y ocre, vinculadas más a la industria macrolítica que a la talla en sí. Esta tendencia a un mayor uso de otras materias primas continuará en el nivel II-III, aunque en ningún caso lleguen a representar porcentajes relevantes.

Baliaturiko suharri motei erreparatuz gero, halako aldaketak sumatuko ditugu, halaber, beheko mailen aldean. Zehaztu gabe gelditu edo multzo jakin batean kokatzen zail diren suharriak kontuan hartu gabe (% 18 guztira), bertako Flysch-eko suharriak dira gehien agertzen diren motak, eta haien artetik bereziki nabarmentzen da Gaintxurizketakoa. Presentzia esanguratsua da, halaber, bertako suharri urgoniarrarena, kopuruari dagokionez hirugarrena hain zuzen ere, haren portzentajea Bidaxuneko Flysch-eko suharriaren parekoa baita ia-ia. Urbasako mendialdeko suharri kanpotarra ere azaldu da maila honetan, baina gainerako multzoen atzetik. Oso portzentajea apalak ageri dituzte, aldiz, gainerako suharri mota kanpotarrek, hala nola *Chalosse* eta *Tercis*-ko mota frantsesek eta Trebiñuko suharri arabarrak (batera ez dira % 4ra iristen).

Si nos fijamos en los tipos de sílex empleados vemos ciertos cambios con respecto a los niveles inferiores. Sin tener en cuenta los sílex indeterminados o difíciles de asignar a un grupo (18% del total), las variedades más representadas siguen siendo los sílex locales del Flysch, destacando muy por encima de los demás el de Gaintxurizketa. El sílex Urganiano local aquí tiene una presencia importante, siendo el tercero más utilizado ligeramente por debajo del Flysch de Bidache. El sílex exógeno procedente de la Sierra de Urbasa también aparece representado en este nivel aunque muy por detrás de los demás grupos. El resto de variedades exógenas, como los sílex franceses de Chalosse y Tercis o el Sílex de Treviño, aparecen en porcentajes muy bajos (todos juntos no llegan a representar un 4%).

LEHENGAIK / MATERIAS PRIMAS	KOP. / N°	%
Beste gai batzuk / Otras materias	8	2,27
Suharria / Sílex	345	97,73
Guztira / Total	353	100,00

I7. taula. IV. mailako lehengaien sailkapena.

Tabla 17. Clasificación de las materias primas del nivel IV.

6.4. SAILKAPEN TEKNOLOGIKOA

353 harrizko aztarnak osatua da IV. mailan aztertu dugun lagina (18. taula). Aztarna horietako asko suharri urgoniarren bideraturiko aztarna formagabeak eta 10 mm-tik beherako ezkailak dira. Aipagarriak dira, era berean, lehen asmoko objektuak, printzak eta ijeki-euskarriak (% 38). Antzeko proportzioetan azaldu diren arren, gehixeago dira aurrenekoak. Azal-kentze euskarriek % 15 hartzen dute multzo osoan eta, lanketaren hasierako uneekin bezala lotu litezke eremu azaldunei berariaz etsi dieten ekoizpenekin.

Bestalde, nukleo gutxi (aztarnen % 1,42 baizik ez) eta egokitzapenerako produktu berriro ere gutxi (% 5,38) azaldu dira, era berean. Horrez gainera, tresneria mota jakin batzuekin, horra zulakaitz-ebakinak eta pieza ezpalduak, loturiko produktuen presentzia handi xamarra da nolabait (% 7,65). Kontuan hartzen badugu, gordinenenaren aldean, euskarri ukituen portzentajea altua dela, uste izatekoa da mailari dagokion uean euskarrien kontsumo eta mantentze jarduerak garrantzi handiagoa eduki zutela lanketa-jarduerak baino.

6.4. CLASIFICACIÓN TECNOLÓGICA

La muestra analizada del nivel IV está formada por 353 restos líticos (Tabla 18), buena parte de los cuales son restos informes de sílex Urganiano y esquirlas menores de 10 mm. También destacan los productos de primera intención, lascas y soportes laminares (38%), que aparecen en proporciones similares aunque ligeramente superiores en el caso de las primeras. Los soportes de decortinado, en este conjunto representan un 15% y pueden estar vinculados tanto a momentos iniciales de la talla como a producciones que mantienen zonas corticales de forma intencional.

Por otro lado, los núcleos son escasos (apenas suponen un 1,42% de los restos) y los productos de acondicionamiento son también escasos (5,38%). Además encontramos una presencia relativamente abundante (7,65%) de productos vinculados con el uso y reavivado de cierto tipo de utillaje, como son los golpes de buril y las astillas. Esto unido al alto porcentaje de soportes retocados en relación a los brutos, indican una mayor importancia de las actividades de consumo y mantenimiento de soportes frente a las de talla.

EUSKARRIAK / SOPORTES	KOP. / N	%
Nukleoa / Núcleo	1	0,28
Printza nukleoa / Núcleo de lascas	2	0,57
Ijeki-nukleoa / Núcleo laminar	1	0,28
Printza gaineko ijeki -nukleoa / Núcleo laminar sobre lasca	1	0,28
Lehen mailako azal-kentze printza / Lasca decortinado primario	5	1,42
Bigarren mailako azal-kentze printza / Lasca decortinado secundario	38	10,76
Bigarren mailako azal-kentze ijekia / Lámina decortinado secundario	11	3,12

.../...

.../...

EUSKARRIAK / SOPORTES	KOP. / N	%
Bi aurpegiko gandorra / Cresta bifacial	3	0,85
Aurpegi bakarreko gandorra / Cresta unifacial	10	2,83
ljeki gainditua / Lámina sobrepasada	2	0,57
ljeki islatua / Lámina reflejada	4	1,13
Birbizitze-tableta / Tableta de reavivado	4	1,13
Printza / Lasca	69	19,55
ljeki-euskarriak / Soportes laminares	66	18,70
Zulakaitz-ebakina / Golpe de buril	13	3,68
Ezpala / Astilla	14	3,97
Formagabea / Informe	48	13,60
Ezkailak / Esquirla	55	15,58
Blokea / Bloque	1	0,28
Harkosko erabilia / Canto usado	4	1,13
Guztiak batera / Total general	353	100,00

I 8. taula. IV. mailako multzoaren sailkapen teknologikoa.

Tabla 18. Clasificación tecnológica del nivel IV.

6.5 IRAKURKETA TEKNOLOGIKOA

Nukleoen eta haiek egokitzeko jardueretan sorturiko beste produktuen deskripzio laburra bideratuko dugu atal honetan, eta agertu ere egingo ditugu berreskuratu diren euskarrien ezaugarri teknologikoa.

Nukleok

IV. mailan azaldu diren nukleoen kopurua urria bada ere, molde desberdinekoak dira berreskuratu eta identifikatu ditugunak: ljekitxoak (K=2) eta printzak (K=2) ekoizteko bina nukleo, eta forma gabeko nukleo bat.

Bi ijekitxo-nukleo dokumentatu dira, sasipiramidalak dira biak (64. irudia). Bidaxuneko suharri-lauzatxo baten gainean taxutu da bata, eta bertako suharri urgoniarraren gainean bestea. Lauzatxo baten gainean landu zuten lehenengoa (32x17x11 mm), plataforma laua ageri du, hainbat erauzteren ondoan, eta bizkar azaldunari eutsi dio. Printzaketa-aurpegia hiruki itxurakoa da, lanketaren garapena erdi-garatzaila eta lorturiko euskarriak hiruki itxurako ijekitxo estuak (21x8 mm). Nukleoen hondoak ertza erakusten du, eta hartatik birbizitu zuten printzaketa-aurpegia. Nukleoa ahiturik dago guztiz, lanketari gehiago ekiteko aukerarik gabe gelditu zen, lehengairik ez zeukalako eta ganbiltasunak ahiturik zirelako.

Antzeko ezaugarriak ditu beste nukleok (31x23x34 mm). Bertako suharri urgoniarrean taxutua da, baina printza lodi bat da euskarria. Plataforma laua da, halaber, eta azpialde fosilaren itxura duen alde lauak egituratzen du bizkarraldea. Hiruki itxurakoa da, era berean, printzaketa-aurpegia, lanketaren garapena erdi-inguratzaila da, eta ijekitxo zabal trianguluarak lorturiko euskarriak (33x11, 10x5 mm). Ertza eratzen zuen hondoan erdigandor bat itxuratu zuten, birbizitzeak bideratzeko. Negatiboak printzaketa-aurpegian islarazten zituzten diaklasen eta ez-purutasunen eragozpenaren ondorioz utzi zuten nukleoa, lanketa-jarduerei segidarik ezin eman zirelako.

6.5. LECTURA TECNOLÓGICA

En este apartado veremos una descripción sintética de los núcleos, los productos derivados de las labores de acondicionamiento de los mismos y las características tecnológicas de los soportes recuperados.

Núcleos

En el conjunto del nivel IV el número de núcleos es escaso, pero son relativamente variados. En él hemos identificado núcleos destinados a la producción de la laminillas (N=2), de lascas (N=2) y un núcleo informe.

Se documentan dos núcleos laminares de laminillas, los dos son de tipo pseudopiramidal (Fig. 64), y uno se ha realizado sobre plaqueta de sílex de Bidache y el otro sobre lasca de sílex Urgoniano local. El primero de ellos (32x17x11 mm), fabricado sobre plaqueta, tiene una plataforma lisa por varias extracciones y mantiene el dorso cortical. La cara de lascado es triangular, el desarrollo de la talla semienvolvente y los soportes obtenidos son laminillas triangulares anchas (21x8 mm). El fondo del núcleo permanece en arista y presenta un reavivado de la cara de lascado desde el mismo. El núcleo está completamente agotado, no hay posibilidad de continuar con la talla debido a la falta de materia prima y al agotamiento de las convexidades.

El otro núcleo, de sílex Urgoniano local (31x23x34 mm) presenta similares características, aunque el soporte es una lasca espesa. La plataforma también es lisa y el dorso está formado por una zona plana que parece una cara ventral fósil. La cara de lascado también es triangular, el desarrollo de la talla semienvolvente y los soportes obtenidos son laminillas anchas triangulares (33x11, 10x5 mm). En el fondo que permanecía en arista parece que se ha conformado una semicresta para realizar reavivados. El núcleo se ha abandonado ante la imposibilidad de continuar con la talla a causa de las diaclasas e impurezas que hacen que se reflejen los negativos en la cara de lascado.



64. irudia. Nukleo sasipiramidalak IV. maila.

Figura 64. Núcleos pseudopiramidales nivel IV.

Printza-nukleoi eta forma gabeko nukleoari dagokienez, Gaintxurizketako suharri-noduluaren gainean taxutuak dira, eta bakuola eta ez-purutasun asko ageri dituzte hiru kasuetan. Joera globularra ageri du nukleo batek eta polo ugariak da beste bat, bira eta bira ondozkatu ziren hartan printzake-ta-aurpegiak. Neurri txikiko printzak lortu zituzten horrenbestez (23x16 mm); alabaina, irakurketa zaileko negatiboak dira horiek, nukleoak azkeneko ustiatze unean daudelako, hau da, ahiturik daudelako.

Egokitzapenak

IV. mailan lanketa prestatzeko eta mantentzeko jardueren bitartean sorturiko euskarrien artean, bereziki aipagarriak ditugu azal-kentze euskarriak. Guztiz argitu beharra dago, nolahi ere, azaleko eremuak eutsi zizkieten nukleoaren ustiatzean lanketa beteko uneetan zeudelarik sortuko zitezketela azal-kentze euskarri horietako batzuk. Pisu garrantzitsua dute, halaber, lanketa hasierako beste ohiko elementu batzuen egokitzapenen artean, hala nola gandorren artean (aurpegi bakarrekoetan bereziki). Bestalde, oso urri azaldu dira lanketaren zuzenketa eta mantentzerako elementuak, tabletak

Con respecto a los núcleos de lascas y el núcleo informe, están realizados sobre nódulos de sílex de Gaintxurizketa, que en los tres casos presenta abundantes vacuolas e impurezas. Se trata de un núcleo de tendencia globular y otro multipolar en que se han ido rotando las caras de lascado. Los productos obtenidos son lascas de pequeño tamaño (23x16 mm), aunque estos negativos son de difícil lectura puesto que los núcleos se hallan en momentos finales de su explotación, están agotados.

Acondicionamientos

En el nivel IV destacan los soportes de decortinado entre los soportes originados en labores de preparación y mantenimiento de la talla. Hay que matizar que alguno de estos soportes corticales puede haberse generado en momentos de plena talla en explotaciones de núcleos que conservan zonas corticales. También tienen un peso importante dentro de los acondicionamientos otros elementos típicos del inicio de la talla como son las crestas (principalmente unificiales). Por otra parte, nos encontramos con una escasa aparición de elementos de corrección y mantenimiento de la talla, como son las

adibidez, eta ijekitxo-euskarri gaindituak baizik ez zituzten erabili ijeki eta ijekitxoen printzaketa-aurpegien karenari eusteko elementu gisa.

Bat datoz maila honetan dokumentatu ditugun teknologia mota hauek ijekiak eta ijekitxoak lantzeko metodoei hasiera emateko eta eusteko estrategiek.

Azaleko ijekiak eta printzak: Printza azaldunen kasuan, ezin zehaztu dezakegu ijeki edota ijekitxoen edo printzen ekoizpenetik datozen. Ezin esan dezakegu, era barean, zein taxutu den lanketaren hastapenetako uneetan eta zein lanketa beteko momentuetan, bi ekoizpen une horietan erreserbatu baitziren eremu azaldunak. Gutxi xamar dira lehen mailako azal-kentze printzak, ziurtasun osoz aurreneko uneetan edota plataformen irekiera uneetan taxutu zirenak (K=5), eta ugari xamar, ordea, bigarren mailako azal-kentze printzak (K=38), mailan azaldu diren printza guztien % 35 hain zuzen ere.

Ez dugu guztiz azalduna zatekeen ijeki produkturik berreskuratuta eta, beraz, uste izatekoa da nukleo hauetan arbastatze eta lehen prestaerarako jarduera batzuk bideratuko zituztela. Eremu azaldunak ageri dituzten ijeki produktuen kopurua (K=11) askoz ere murriztagoa da (ijekiki multzoen % 14) printzen artekoa baino, eta ijeki-nukleoetan azaleko eremuei eutsi izanarekin lotu behar dira haietako batzuk.

Azal-kentze printzen kasuan, nagusi da Gaintxurizketako suharri motaren erabilera, eta ondoren datoz bertako suharri urgoniarra eta Bidaxuneko; ijeki azaldunen kasuan, ordea, gehiago erabili zuten Bidaxuneko suharria. Anekdotak baino ez da beste suharri moten presentzia.

Ukiera bitartez landu zuten ondoren bigarren mailako azal-kentze euskarri hauen zati garrantzitsu bat, printza azaldunak batez ere, pieza ezpalduak, zulagailuak, mozturak, kamerak, horzdunak edo dentikulatuak eta beste mota batzuetako tresnak taxutu baitzituzten haietatik abiatuta. Neurri txikiagoan ukitu zituzten, aldiz, bigarren mailako azal-kentze ijekiak (K=3), marruskak eta zulakaitzak itxuratzeke. Gaintxurizketako suharri motan euskarri azaldun gehiago taxutu arren, bereziki aipatu beharra dago, ukitu behar zirelarik, gehiago landu zituztela Bidaxuneko suharri motakoak, eta datu hau are eta adierazgarriagoa da ijeki-euskarri ukituen kasuan, Bidaxuneko suharrian landuak baitira azaldu diren guztiak.

Aurpegi bakarreko eta biko gandor-ijekikiak: 13 gandor berreskuratuta dira IV. mailan, aurpegi bikoak dira haietako hiru eta

tabletas, y la exclusividad del uso de soportes laminares sobrepasados como elemento para mantener la carena de las caras de lascado laminares.

Estas variedades tecnológicas documentadas en este nivel se corresponden con estrategias para la iniciación y mantenimiento de métodos laminares.

Láminas y lascas corticales: En el caso de las lascas corticales, no podemos precisar si proceden de producciones laminares o de lascas. Tampoco podemos precisar cuáles proceden de momentos de inicio de talla y cuáles de momentos de plena talla puesto que se reservan zonas corticales en ambas producciones. Las lascas de decorticado primario, que con seguridad proceden de momentos iniciales o de apertura de plataformas son bastante escasas (N=5) frente a la relativa abundancia de las lascas de decorticado secundario (N=38) que suponen el 35% de las lascas del nivel.

No hay productos laminares totalmente corticales, con lo cual se suponen ciertas labores de desbastado y preparación inicial de estos núcleos, y el número de productos laminares parcialmente corticales (N=11) es mucho más reducido (14% de los soportes laminares) que en el caso de las lascas, y parte de ellos está vinculado a la pervivencia de zonas corticales en los núcleos laminares.


En el caso de las lascas de decorticado predomina el uso del sílex de Gaintxurizketa, seguido del Urganiano local y el de Bidache, mientras que en el caso de las láminas corticales predomina el uso del sílex de Bidache. La presencia del resto de variedades es testimonial.

Una parte importante de estos soportes de decorticado secundario se ha conformado mediante retoque, especialmente en el caso de las lascas corticales que se han transformado en astillados, perforadores, truncaduras, muescas y denticulados y utilaje diverso. En el caso de las láminas de decorticado secundario se han retocado en menor medida (N=3), para convertirse en raspadores y buriles. Es destacable que a pesar que hay más soportes corticales elaborados en sílex de Gaintxurizketa, a la hora de retocarlos se seleccionan los fabricados en sílex de Bidache, esto es más relevante en el caso de los soportes laminares retocados, todos ellos de sílex de Bidache.

Láminas cresta unificiales y bifaciales: En el nivel IV se han recuperado 13 crestas, de las cuales 3 son bifaciales y 10 unifa-

65. irudia. IV. mailako printzen eta ijeki-euskarrien azalekotasuna.

Figura 65. Corticalidad de lascas y soportes laminares del nivel IV.



bakarrekoak beste hamarrek. Euskarri mota hau ez da ugari ageri, baina guztiz esanguratsua da maila honetan berreskuratu diren ijeki-nukleoaren kopurua.

Neurri handiagokoak dira aurpegi biko gandor-ijekiak ($34 \times 18 \times 10$ mm batez beste) eta ijeki-nukleoetatik abiatuak landu zituzten. Ukiturik azaldu dira gandor horiek guztiak, pieza ezpaldu bat, pieza kamerdun bat eta ertzean bizkar malkartsua ageri duen beste pieza bat lantzeko. Bertako flysch-eko suharrari, Gaintxurizketakoan eta Bidaxunekoan, fabrikatu zituzten pieza hauek guztiak.

Neurri txikiagoak dira ($19 \times 10 \times 5$ mm batez beste) aurpegi bakarreko gandrak ($K=10$), eta printza gaineko ijekitxo-nukleoetatik eta zulakaitz lodietatik abiatuak landu zituzten, neurri handiko bi modulu ageri baitituzte, lagina txikia den arren. Gandor hauek lanketaren hasierako uneetan sortu ziren, printza gaineko ekoizpen mota honetarako printzaketa-aurpegiak irekitzeko, eta azaldu diren arteko bakar bat ere ez zuten nukleo horien makodura zuzentzeko erabili. Ukiturik azaldu diren euskarri horietako hiru; neurri handiagoko aleak dira eta marruska, eta mozturadun ijekitxo eta pieza ezpaldu bana landu zituzten haietatik abiatuta.

Birbizitze-tableta: Birbizitze-tableta gutxi berreskuratu dira maila honetan ($K=4$), eta ijekitxo-nukleoetatik sortu zituzten guztiak. Neurri txikiagoak dira, 23×25 mm batez beste. Printzaketa-aurpegitik eta hegaletatik erauzi zituzten, eta lauatzko gainean aurrealdetik ustiatuak nukleo batetik taxutu zuten haietako bat: hegal leuna ageri du alde batean eta hondo azalduna bestean. Aldez aurreko birbizitze jardueraren arrastoak ageri ditu haietako batek, gainera.

Bi ale ukitu zituzten, moztura bat eta Noailles zulakaitz bat lantzeko. Baliaturiko lehengaiei dagokienez, Gaintxurizketa, Urbasa eta Chalosseko suharri motak erabili zituzten.

Nukleo-hegalak eta printzaketa-aurpegiko garbiketa-printzak: Maila honetan, ez dirudi euskarri mota hori ijeki-euskarrien printzaketa-aurpegiak egokitzeko elementu gisa erabili zutenik. Ijeki gaindituen erabilera baizik ez dugu dokumentatu ($K=2$), baina karenari eusteko eta zuzentzeko. Ukitu egin zuten, gainera, euskarri haietako bat, Noailles zulakaitz bihurtzeko hain zuzen ere.

Euskarriak

Teknologiaren ikuspuntutik azter daitezkeen 145 euskarri, 69 printza eta 66 ijeki-euskarri, azaldu dira (18. taula).

Tipometria: Ijeki-euskarri eta printza gutxiren azterketa tipometrikoa bideratu dugu ($K=13$ eta $K=25$), neurri osoak ageri zituztenak baizik ezin baikenituen horretarako kontuan hartu. 66. irudian ongi ikusten dugu printzak ijeki-euskarrien antzekoak direla, luzera eta lodierari dagokienez, baina dezente zabalagoak (printzen batez besteko balioak: 14 eta 25 mm bitarteko luzera, 11 eta 23 mm bitarteko zabalera, eta 3 eta 6 mm bitarteko lodiera). Laburrak eta estuak dira ijeki-euskarriak (batez besteko balioak: 17 eta 22 mm bitarteko luzera, 7 eta 14 mm bitarteko zabalera, eta 2 eta 5 mm bitarteko lodiera). Beheko mailetakoa baino laburragoak eta zabalagoak dira, oro har, euskarriak.

Beheko mailetan gertatu bezala, ukiera bitartez lantzeko hautaturiko euskarrien modulua euskarri gordin osoena eta maila honetan landuriko euskarrien batez bestekoa baino nabarmen handiagoa dela ($25,8 \times 18,7 \times 6,6$ mm) adierazten du sakabanaketaren grafikak (57. irudia). IV. maila honetan badi-rudi V. eta VI. mailetan baino euskarri zabalagoak eta lodiagoak hautatu zituztela ondoren ukiera bitartez lantzeko.

ciales. Este tipo de soportes no es muy abundante, pero cobra entidad si lo comparamos con el número de núcleos laminares recuperados en el nivel.

Las láminas cresta bifaciales son de mayor tamaño ($34 \times 18 \times 10$ mm de media) y proceden de núcleos laminares. Todas estas crestas se han retocado para elaborar un astillado, una pieza de muesca y una pieza de dorso abrupto marginal. Todas ellas están fabricadas en sílex de flysch local, de Gaintxurizketa y Bidache.

Las crestas unificiales ($N=10$) son de menor tamaño ($19 \times 10 \times 5$ mm de media) y provienen de núcleos de laminillas sobre lasca y de buriles espesos, ya que parecen mostrar dos módulos de tamaño, aunque la muestra es pequeña. Estas crestas se generan en momentos iniciales de la talla, para abrir caras de lascado en este tipo de producciones sobre lasca, no aparece ninguna utilizada para corregir el cintrado en estos núcleos. Entre estos soportes aparecen 3 retocados, se trata de ejemplares de tamaño mayor y se han convertido en un raspador; en una laminilla truncada y en una pieza astillada.

Tabletas de reavivado: Se ha documentado un número muy escaso de tabletas de reavivado en este nivel ($N=4$), todas ellas procedentes de núcleos de laminillas. Son de pequeñas dimensiones, tienen un tamaño medio de 23×25 mm. Se han extraído desde la cara de lascado y desde los flancos, y una de ellas pertenece a un núcleo de explotación frontal sobre plaqueta y arrastra un flanco liso en un lado y un flanco cortical en el otro. Además una de ellas muestra restos de un reavivado frontal previo.

Se han retocado 2 ejemplares para elaborar una truncadura y un buril de Noailles. Con respecto a las materias primas utilizadas son variadas, se ha usado sílex de Gaintxurizketa, Urbasa y Chalosse.

Flancos de núcleo y lascas de limpieza de la cara de lascado: En este nivel no parece que se utilicen este tipo de soportes como elemento de acondicionamiento de las caras de lascado de los núcleos laminares. Solamente hemos documentado el uso de láminas sobrepasadas ($N=2$) para mantener y corregir la carena. Además uno de estos soportes ha sido retocado para elaborar un buril de Noailles.

Soportes



Hay un total de 145 soportes, 69 lascas y 66 soportes laminares, analizables desde el punto de vista tecnológico (tabla 18).

Tipometría: Los soportes laminares y las lascas sometidos a un análisis tipométrico son escasos, son aquellos que aparecen con sus dimensiones completas ($N=13$ y $N=25$). En la Fig. 66 se aprecia que las lascas son similares en longitud y espesor a los soportes laminares, pero bastante más anchas (valores medios entre 14 y 25 mm de longitud, 11 y 23 mm de anchura y 3 y 6 mm de espesor). Los soportes laminares son poco alargados y estrechos (valores medios entre 17 y 22 mm de longitud, 7 y 14 mm de anchura y 2 y 5 mm de espesor). En general, los soportes son menos alargados y más anchos que los de los niveles inferiores.

La gráfica de dispersión (Fig. 67), al igual que en los niveles inferiores, muestra que el módulo de los soportes que se seleccionan para retocar ($25,8 \times 18,7 \times 6,6$ mm) es bastante mayor que el de soportes brutos enteros y que la media de los soportes fabricados en este nivel. En el nivel IV parece que se seleccionan soportes más anchos y espesos para su retoque que en los niveles V y VI.

66. irudia. Kutxa eta arbotante grafika, IV. mailako euskarri gordinen neurri nagusiak erakusgai.


Figura 66. Gráfico de cajas y arbotantes con las principales dimensiones de los soportes brutos del nivel IV.



Hiru populazioaren presentzia zehaztu du ijeki-euskarri osoetan eta zatituetan, *Mixture Analysis* delakoren emaitzak kontuan harturik bideraturiko azterketak. Honenbestez zehaztu dira populazio horiek: ijekitxo zabalak (6-13 mm), ijeki estuak (13-18 mm) eta ijeki zabalak (18-25 mm). Ijekitxo zabalen multzoa da ugariena eta ijeki zabalena urriena. Modulu hauen eta maila honetan berreskuratu ditugun nukleoaren negatiboetan islaturikoen arteko erlazioaren bila abiatuz gero, ijekitxo zabalen multzoa baizik ez dela ageri ohartuko gara, eta horixe bera da, hain zuzen ere, maila osoan kopuru handienean ageri den multzoa. Halatan, arazorik gabe suposatu ahal izango dugu haien jatorria aztarnategitik atera diren, aztarnategiko beste alde batean zeuden edo aztarnategitik kanpo fabrikatu diren beste nukleo mota batzuetan dagoela.

El análisis de la anchura de los soportes laminares enteros y fracturados, a partir de los resultados del *Mixture Analysis* muestra la presencia de tres poblaciones. Estas poblaciones pueden definirse como laminillas anchas (6-13 mm), láminas estrechas (13-18 mm) y láminas anchas (18-25mm), siendo el grupo de las laminillas anchas el más numeroso y el de las láminas anchas el más escaso. Si intentamos buscar la correspondencia de estos módulos con los reflejados en los negativos de los núcleos recuperados en este nivel, encontramos que solamente aparece representado el grupo de las laminillas anchas, qué es también el más representado numéricamente en el conjunto del nivel. Así podemos suponer que los otros grupos procedan de distintos tipos de núcleos que se han sacado del yacimiento o se encuentran en otra zona del mismo, o que se han fabricado fuera del yacimiento.

Kop. / N	65
Shapiro-Wilk W	0,9571
p(normal)	0,02436
Jarque-Bera JB	5,014
p(normal)	0,0815
p(Monte Carlo)	0,0538
Chi ²	0,78462
p(normal)	0,37573
Chi ² OK (N>20)	YES
Anderson-Darling A	0,6911
p(normal)	0,06786



Zabalera / Anchura	Prob	Mean	Stdev
ljekitxo zabalak / Laminillas anchas	0,68644	9,3149	2,8208
ljekitxo estuak / Láminas estrechas	0,24161	15,812	1,8115
ljekitxo zabalak / Láminas anchas	0,071953	22,679	2,1808

68. irudia. Ijeki-euskarrien banaketa, haien zabalaren arabera; kolore motelean, gris argian, ageri da banaketa, eta kurba gorrix adierazi dira Mixture Analysis delakoaren bidez identifikaturiko hiru multzoak.


Figura 68. Distribución por anchuras de los soportes laminares en la que se observa la distribución suavizada (Curva en gris claro) y tres grupos identificados por el Mixture Analysis (curvas en rojo).

Negatiboak: Printzetan eta ijekietan polo bakarreako da negatiboen antolakuntza, baino bereziki areagotzen da izara hori ijeki-euskarrietan. Printzen artean, aniztasun handiagoa ageri dute bizkaraldeko negatiboen patroiek (polobakarrak, polo bikoak, gurutzatuak, zeiharrek eta erradialak), eta halako garrantzia hartzen dute, gainera, gurutzaturiko negatiboek. Ijekien ekoizpenean landuriko hegalen lanketarekin edo birbizitzarekin lotu beharko liriteke beharbada.

Anekdotak baizik ez da, bestalde, polo biko negatiboak dituzten euskarrien proportzioa, hala ijeki-euskarrietan nola printzetan; beraz, batere esanguratsuak ez dira maila honetan polo biko lanketa edota elkarren aurkako plataformetatik bideraturiko birbizitzeak (69. irudia).

Negativos: Tanto en las lascas como en las láminas predomina una organización de los negativos unipolar, pero esto es más marcado en el caso de los soportes laminares. Entre las lascas hay mayor variabilidad en los patrones de negativos de la cara dorsal (unipolares, bipolares, cruzados, oblicuos y radiales), adquiriendo cierta importancia los negativos cruzados, quizá vinculados a la talla o reavivado de flancos tallados en explotaciones laminares.

La proporción de soportes con negativos bipolares es meramente testimonial tanto entre los soportes laminares como entre las lascas con lo cual la talla bipolar o los reavivados desde plataformas opuestas son poco relevantes en este nivel (Fig. 69).




69. irudia. Negatiboen antolakuntza IV. mailako ijeki formako euskarrietan eta printzetan.

Figura 69. Organización de los negativos en los soportes laminares y las lascas del nivel IV.

70. irudia. IV. mailako ijeki-euskarrien ebakidurak.

Figura 70. Secciones de los soportes laminares del nivel IV.



Ebakidurak, azpialde fosilak eta perfilak: Ijeki-euskarriek, modulu handienek bereziki, trapezio isoszele eta hiruki angeluzorrotzen itxurako ebakidurak ageri dituzte; lanketa-garapen erdi-inguratzaile eta hegal gutxi markatuekin lotzen dira ebakidura horiek. Trapecio angeluzuzen itxurako ebakidurek ijekitxo zabalak kasuan baizik ez dute garrantzia, eta multzo honetan baizik ez dira hiruki angeluzuzen eta laukizuzenen itxurako ebakidurak ageri. Halatan, ijekitxo zabalak dira, itxura guztien arabera, printzen sorbatzetatik abiatu bideratu diren ekoizpen sistemekin loturiko ijeki-euskarri bakarrak.

Printzen gaineko lanketaren beste adierazle bat dugu azpialde fosilen presentzia ijeki-euskarrietan. IV. mailako multzoan oso urria da presentzia hori (% 6), eta ijekitxo zabalak taldean, euskarri horien alboetan hain zuzen ere, baizik ez da ezaugarri hori ageri. Horrenbestez eraten dituzte laukizuzen eta trapezio angeluzuzenen itxurako ebakidurak.

Azkenik, ijeki-euskarriek dagokienez, kopuru handixeagoan ageri dira euskarri hein batean kurbatuak eta euskarri lerrozuzenak, eta anekdota baino ez dira perfil okerrak eta, aldi berean, kurbatuak, eta okerrak.

Orpoak: Informazio eskasa eskaini digu orpoen irakurketak, euskarrien ia erdiak zatituz eta orporik gabe azaldu direlako, eta beste % 4 orpoa birrindurik agertu direlako, piezan bideraturiko ukieren ondorioz. Kontserbaturiko orpoei erreparatzen badiegu, argi ikusiko dugu orpo leunak direla nagusi printzen artean bezala ijeki-euskarri molde guztietan, bai eta zulakaitzetan ere (ijeki zabalak taldean ez da horrelakorik gertatzen, baina datu hori ez da batere adierazgarria, ale bat baizik ez baita azaldu). Gainera, ez da orpo azaldunez hornituriko ale bakarrik ere dokumentatu eta badirudi, beraz, perkusiorako plataformak nola edo hala prestatzen zituztela, azal guztiak erretiratu eta garbituz, eta plataformak leun utziz.

Printzek plataformak nolabait prestatzen zirelako lekukotasunak ageri dituzte, proportzio desberdinetan (% 7 eta % 16 bitartean) azaldu baitira orpo diedroak, aurpegidunak, birrinduak eta puntu formakoak. Ijekitxo zabalak ere prestaera mota batzuk ageri dituzte: orpo leunak, puntu formakoak, birrinduak eta diedroak. Zulakaitz-ebakinen kasuan, leunez gainera, puntu formakoak eta aurpegidunak ere ageri dira. Ijeki zabalak eta estuei buruzko datuak ez dira esanguratsuak, oso euskarri gutxi eutsi diotelako orpoari (19. taula).

Perkusio bigunarekin eta plataformen nolabaiteko prestaera eskasarekin lotu behar dira mailan nagusi ageri diren orpoak.

Secciones, caras ventrales fósiles y perfiles: Los soportes laminares, especialmente los módulos más grandes, presentan secciones con forma de trapecio isósceles o con forma de triángulo obtusángulo, vinculados con desarrollos de talla semienvolventes y flancos poco marcados. Las secciones con forma de trapecio rectángulo solamente tienen importancia en el caso de las laminillas anchas, y las secciones con forma de triángulo rectángulo y rectangulares solamente están presentes en este grupo. Así las laminillas anchas parecen ser los únicos soportes laminares vinculadas con sistemas de producción a partir de fillos de lascas.

La presencia de caras ventrales fósiles en los soportes laminares es otro indicador de talla a partir de lascas. En el conjunto del nivel IV es muy escasa (6%), y este rasgo aparece solamente en el grupo de las laminillas anchas, en los laterales de estos soportes, con lo cual se generan secciones con forma de rectángulo y trapecio rectángulo.

Finalmente en lo relativo a los perfiles de los soportes laminares, predominan los soportes ligeramente curvos y rectilíneos, siendo testimoniales los perfiles torcidos y curvos y torcidos.

Talones: La lectura de los talones es poco informativa ya que casi el 50% de los soportes están fragmentados y no conservan el talón, a éstos hay que añadir un 4% de talones abatidos por el retoque de la pieza. Si nos fijamos en los talones conservados vemos que tanto en el caso de las lascas como en los distintos grupos de soportes laminares y golpes de buril predominan los talones lisos (en el grupo de las láminas anchas no ocurre esto pero no es representativo puesto que solamente se conserva un ejemplar). Además no se ha documentado ningún ejemplar con talones corticales, con lo cual parece que existe una mínima preparación de las plataformas de percusión, al menos limpiando el córtex y dejando una plataforma lisa.

Las lascas presentan diversas preparaciones de las plataformas en vista de la presencia de proporciones variables (entre un 7 y un 16%) de talones diedros, facetados, machacados y puntiformes. Las laminillas anchas presentan también cierta variabilidad de preparaciones, con talones lisos, puntiformes, machacados y diedros. En el caso de los golpes de buril, aparte de los lisos también aparecen talones puntiformes y facetados. Los datos referentes a las láminas anchas y estrechas no son significativos debido a la escasez de soportes que conservan el talón (tabla 19).

El tipo de talones predominantes en el nivel suelen estar vinculadas a una percusión blanda y a una escasa preparación de las plataformas.

Orpoak / Talones	ljekitxo zabalak Laminillas anchas	ljekitxo estuak Láminas estrechas	ljekitxo zabalak Láminas anchas	Printzak Lascas	Zulakaitz-ebakinak Golpes de buril
Diedroa / Diedro	10,53	0,00	0,00	9,09	0,00
Aurpegiduna / Facetado	0,00	25,00	0,00	6,82	16,67
Leuna / Liso	47,37	75,00	0,00	59,09	50,00
Birringia / Machacado	10,53	0,00	100,00	15,91	0,00
Puntu-formakoa / Puntiforme	31,58	0,00	0,00	9,09	33,33

19. taula. IV. mailako orpo motak.

IV. mailako multzoan, erlaizta urraturik ageri diren elementu batzuk dokumentatu ditugu, halaber, baina prestaera mota hori ez da multzoan maiz azaldu.

6.6. TRESNERIA

Sonneville-Bordes Perrot-en tipologiaren arabera sailkatzeko modukoak diren 4 makrotresna, edo haien zatiak, eta 73 pieza berreskuratatu ditugu IV. mailan.

Makrotresneria

Hiru hareharrizko harkoskok eta bertako suharri urgoniarrean taxaturiko nodulu zati batek osatzen dute makrotresneria. Zatiturik azaldu dira hareharrizko bi harkosko, eta alterazio termikoak ageri ditu haietako batek (sutegi batekoa izango zen beharbada). Beste hareharrizko harkoskoa neurri txikikoa da (60x35x20 mm), eta ukigailu edo eraunskailu bat izango zen, agian, eremu bat zulaketaz betea eta hegaletan kupulak ageri dituelako.

Tresneria ukitua

IV. mailako euskarri ukitu nagusiak azalduko ditugu hurrengo taulan, Sonneville-Bordes tipologiaren arabera sailkatuak. Letra etzanean ageri dira azalduko aleak.

73 pieza osatzen dute tresneria ukitua eta, beraz, mailan guztira azaldu diren euskarrien % 21 dira ia-ia. Euskarri ukituen sailean oso portzentajea altua da hori: hauxe da, izan ere, Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto sekuentzian ukituen proportzio handiena eskaini duen maila. Azalduko tresna ukitu guztien arteko ale bakar bat, denticulatu bat hain zuzen ere, landu zuten suharria ez den beste lehengai batean, kuartzitan.

IV. mailako multzoan, kategoria tipologiko handiak ez dira berdintsu banaturik azaldu (20. taula), baina bai beheargoko mailetan baino modu orekatuagoan, guztiz nagusi baitzen haietan zulakaitzen taldea, besteen aldean (tresneria ukituaren % 60tik gora). IV. mailan, ugariena dugu betiere zulakaitzen taldea, tresna ukituen % 29 ia, eta Noailles zulakaitzak ageri diren kopuru handia da betiere nagusitasun horren eragilea (% 23).

Multzoan ageri diren beste tresna taldeak ditugu mozturak (% 13), pieza ezpalduak (% 10), substratu-tresnak (% 10) eta

Tabla 19. Tipos de talones del nivel IV.

También se ha documentado en el conjunto del nivel IV algunos elementos con abrasión de la cornisa, pero no es una preparación frecuente dentro del conjunto.

6.6. UTILLAJE

En el nivel IV se han recuperado 4 macroútiles o fragmentos de macroútiles y 73 piezas clasificables tipológicamente según la tipología de Sonneville-Bordes Perrot (De Sonneville-Bordes y Perrot, 1956).

Macrouillaje

El macrouillaje está compuesto por tres cantos de arenisca y un fragmento de nódulo de sílex Urgoniano. Dos de los cantos de arenisca aparecen fracturados, uno de ellos con alteraciones térmicas (quizá procedente de un hogar). El otro canto de arenisca, de pequeño tamaño (60x35x20 mm) es un posible retocador o percutor ya que muestra un área con piqueteado y cúpulas en los extremos.

Utillaje retocado

La siguiente tabla muestra los principales soportes retocados del Nivel IV, según la tipología de Sonneville-Bordes (De Sonneville-Bordes y Perrot, 1956). Los ejemplares diversos aparecen descritos en cursiva.

El utillaje retocado está compuesto por 73 efectivos, casi un 21% del total de los soportes analizados del nivel, lo que supone un porcentaje muy alto de soportes retocados siendo el nivel con mayor proporción de retocados de la secuencia del interior de Aitzbitarte III. Entre todo el utillaje retocado solamente un ejemplar, un denticulado, ha sido realizado en materias primas diferentes al sílex, en cuarzcita.

En el conjunto del nivel IV las grandes categorías tipológicas no se reparten igualmente (tabla 20) pero lo hacen de una forma más equilibrada que en los niveles inferiores, donde el grupo de los buriles destacaba de forma absoluta sobre el resto de grupos (superando el 60% del utillaje retocado). En el nivel IV el grupo de los buriles sigue siendo el más abundante, suponiendo casi un 29% de los soportes retocados, y este peso sigue siendo debido a la abundancia de buriles de Noailles (23%).

Los siguientes grupos representados son las truncaduras (13%), astilladas (10%), útiles de sustrato (10%) y diversos

bestelakoak (% 9). Neurri txikiagoan (% 8 eta % 5 artean) ageri diren beste familia batzuk dira ijekitxo ukituak eta marruskak. Aipa ditzagun, azkenik, anekdota mailan ageri diren beste tresna talde batzuk, hala nola zulagailuak, tresna konposatuak eta bizkar malkartsuko piezak. Bereziki aipatzekoa da, halaber, maila honetan ez dela puntarik ez orri hostokararik azaldu.

(9%). Otras familias representadas en menor medida (ente 8 y 5%) son las laminillas retocadas, y los raspadores. Por último están los grupos que aparecen en proporciones anecdóticas como es el caso de los perforadores, útiles compuestos y piezas de dorso abrupto. Hemos de mencionar la ausencia en este nivel de puntas y de foliáceas.

MOTAK / TIPOS	KOP / N	%
Marruska soila / Raspador simple	4	5,48
Printza edo orri ukituaren gaineko marruska / Raspador sobre lasca u hoja retocada	1	1,37
Marruska – Mozturadun pieza / Raspador - Pieza truncada	1	1,37
Zulagailua – Marruska / Perforador – Raspador	1	1,37
Zulagailua edo bec anizkuna / Perforador o bec múltiple	1	1,37
Mikrozulagailua / Microperforador	1	1,37
Haustura gaineko angeludun zulakaitza / Buril de ángulo sobre rotura	1	1,37
Albo-moztura gaineko zeharkako zulakaitza / Buril transversal sobre truncadura lateral	1	1,37
Zulakaitz anizkun mistoa / Buril múltiple mixto	2	2,74
Noailles zulakaitza / Buril de Noailles	17	23,29
Ertza guztiz zanpatua duen orria / Hoja de borde abatido total	1	1,37
Mozturadun pieza zuzena / Pieza truncada recta	4	5,48
Mozturadun pieza zeharria / Pieza truncada oblicua	2	2,74
Mozturadun pieza ganbila / Pieza truncada convexa	2	2,74
Moztura bikoitzeko pieza / Pieza de doble truncadura o bitruncada	1	1,37
Ertz batean ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre un borde	3	4,11
Bi ertzetan ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre los dos bordes	1	1,37
Kamerdun pieza / Pieza de muesca	1	1,37
Pieza dentikulatua / Pieza denticulada	5	6,85
Pieza ezpaldua / Pieza astillada	8	10,96
Karrakagailua / Raedera	2	2,74
Mozturadun orritxoa / Hojita truncada	2	2,74
Bizkardun orritxoa / Hojita de dorso	1	1,37
Bizkardun ijekitxo mozturaduna / Hojita de dorso truncada	1	1,37
Kamerdun orritxoa / Hojita de muesca	2	2,74
Bestelakoak / Diversos	7	9,59
<i>Noailles zatia litekeena / Posible fragmento de Noailles</i>	1	1,37
<i>Printza ukitua / Lasca retocada</i>	2	2,74
<i>Tresna zatia / Fragmento de útil</i>	4	5,48
Pieza ukituak guztira / Total retocados	73	20,68
Ukitu gabeko tresneria / Utillaje sin retocar	280	79,32
Guztiak batera / Total general	353	100,00

20. taula. IV. mailako zerrenda tipologikoa (Sonneville-Bordes eta Perrot, 1956).

Tabla 20. Lista tipológica (Sonneville-Bordes y Perrot, 1956) del nivel IV.


MOTAK / TIPOS	KOP./ N	%
Marruskak guztira / Total raspadorer	5	6,85
Konposatuak guztira / Total compuestos	2	2,74
Zulagailuak guztira / Total perforadores	2	2,74
Zulakaitzak guztira / Total buriles	21	28,77
Puntak guztira / Total puntas	0	0,00
Bizkardun piezak guztira / Total piezas de dorso	1	1,37
Mozturak guztira / Total truncaduras	9	12,33
Ijeki ukituak guztira / Total láminas retocadas	4	5,48
Ale hostokarak guztira / Total foliáceas	0	0,00
Pieza ezpalduak guztira / Total piezas astillas	8	10,96
Substratu-tresnak guztira / Total sustrato	8	10,96
Raclette-ak guztira / Total rechettes	0	0,00
Geometrikoak guztira / Total geométricos	0	0,00
Ijekitxo ukituak guztira / Total laminillas retocadas	6	8,22
Askotarikoak guztira / Total diversos	7	9,5
Guztira / Total	73	100,00

21. taula.V. mailako tresneria kategoría handiak.

Tabla 21. Grandes categorías de utillaje del nivel IV.

Ukiera bitartez taxutzeko aukeratu diren euskarri errepazten badiegu, nagusiki lanketa beteko euskarriak hautatu zituztela ohartuko gara inolaz ere. Nagusi dira, haien artean, ijeki-euskarriak (% 44), hala ijekiak nola ijekitxoak. Printzak datoz ondoren (% 26), eta ukitu ere egin ziren haietako asko. Horietaz gainera, produktu azaldunak (% 16) eta egokitzapenerako produktuak (% 12) ageri dira: ukitu eta baliatu egin ziren berriro. Euskarri horien artetik, modulu luzeenak (20-38 mm), zabalak (14-27 mm) eta lodiak (6-12 mm) hautatu ziren nagusiki. Ikus daitekeen bezala, mailako euskarrien batez beste-ko neurriak ageri dituzte oro har (71. irudia).

Si nos fijamos en los soportes que se han escogido para ser conformados mediante retoque, vemos que en general se han escogido preferentemente los soportes de plena talla, y entre ellos predominan los soportes laminares (44%), tanto láminas como laminillas, frente a las lascas (26%) que también se retocan en buena medida. Además, un buen número de productos corticales (16%) y de acondicionamiento (12%) se han aprovechado y se han retocado. De entre estos soportes se ha optado por los módulos más alargados (20-38 mm), anchos (14-27 mm) y espesos (6-12 mm), por lo general mayores que la media de los soportes del nivel (Fig. 71).



71. irudia. Kutxa eta arbotante grafika, IV. mailako euskarri gordinen eta ukituen neurri nagusiak erakusgai.

Figura 71. Gráfico de cajas y arbotantes con las principales dimensiones de los soportes brutos y retocados del nivel IV.

Marruskak (72. irudia. 1-2): Marruska kopuru ez horren handia (K=5) berreskuratu dugu IV. mailan. Ijeki ertzaren gaineko marruska soilak dira haietako lau, eta printza edo ijeki ukituaren gaineko marruska bestea.

Flysch-eko suharria, Bidaxunekoa nahiz Gaintxurizketakoa, baizik ez zuten lehengai gisa baliatu. Ijekiak hautatzen zituzten gehienetan tresna honen euskarri gisa; azaldun bat ageritu da haien artean. Helburu honi begira baliatu ziren aurpegi bakarrek gandarra eta printza bat ere berreskuratu ditugu.

Badirudi formatu luze xamarra eta lodiak erabili zituztela oro har (31x18 x10 mm batez beste). Jatorrizko luzera handiagoa izango zen, euskarriak zatituz azaldu baitira kasu gehienetan. Marrusketako bat kontrakolpe ukiturik ageri da eta eremu altxatuak ageri ditu beste batek, erabileraren poderioz. Zail da beste aleren bat erabili ote zuten jakitea, eremu altxatu berriagoak eta deshidratazio indartsu baten zantzuak ageri dituelako.

Konposatuak edo mota bikoitzak: Lekuko oso gutxi utzi dituzte maila honetan (K=2), marruska-mozturadun pieza da bata, eta marruska-zulagailua bestea. Lanketa beteko euskarriak dira bi kasuetan, estua bata eta zabala bestea. Flysch-eko suharri motak bideratu zituzten bi kasuetan, Bidaxunekoa eta Gaintxurizketakoa. Erabilera-arrastoei dagokienez, eremu altxatuak ageri dituzte bi aleek sorbatzetan, tresnaren erabileraren poderioz edo kirtenak utzitako aztarnen ondorioz.

Zulagailuak (72. irudia. 3-4): Konposatuen taldean beza-la, anekdota baizik ez da maila honetako zulagailuen kopurua (K=2); anitzuna da bata eta mikrozulagailua bestea. Flysch-eko suharri-printza azaldunen gainean bideratu ziren biak. Mota desberdinekoak dituzte euskarrien moduluak; neurri txikikoa da euskarrietako bat (18x16x6 mm) eta handixeagoa bestea (43x31x11 mm). Haien erabilerari dagokionez, ez dute eremu altxaturik ez erabilera-arrasto makroskopikorik ageri.

Zulakaitzak (72. irudia. 5-10): Behealdeko mailetan gertatzen den moduan, ukituriko tresnen arteko kategoria ugariena osatzen dute zulakaitzek, ukituriko tresneriaren % 28,7 guztira. Noailles zulakaitzen proportzio altuari esker hartu dute zulakaitzek horrenbesteko pisua (tresna ukituaren % 23,3).

Halatan, Noailles zulakaitzek eskaini dituzten 17 aleek gainera, haustura gaineko angeludun zulakaitz bat, alboko mozturaren gainean landu den zeharreko zulakaitz bat eta bi zulakaitz anizkun misto ere berreskuratu ditugu. Neurri handiko zulakaitzak lantzeko hautatu ziren euskarri dagokienez (diedroak, anizkunak eta moztura gainekoak), printzak eta ijeki zabal lodi xamarra lehenetsi zituzten (30x22x7 mm batez beste).

Moztura gaineko zulakaitz arinak (Noailles zulakaitzak) ijekitzoen gainean lantzen ziren nagusiki, eta haietako bi azaldunak ziren. Alabaina, beste euskarri batzuk, printzak eta egokitzapenak tarteko, baliatu zituzten horrelakoak fabrikatzeko. Ukiera bidez lantzeko hautatzen ziren ijekitzoak zabalak ziren (14,5x10x3 mm batez beste), eta printzak eta egokitzapenak txikiak eta arinak (17x17x3,4 mm). Ohiko Noailles zulakaitzak dira azaldutako guztiak, moztura zuzen edo zeharren gainean bideratuak, gelditze-kamerraz hornituak eta aurpegi oso estutuak (<2mm). Zulakaitz hauek bi baizik ez dira bikoitzak. Tresna hauen oina trapezoide, hiruki eta laukizuzen itxurakoak dira batez ere, eta haien perfilak lerrozuzenak edo hein batean ganbilak.

Lehengaiei dagokienez, neurri handiko zulakaitzei erreparatuz gero ikusiko dugu Flysch-ekoak, Gaintxurizketa eta

Raspadores (Fig. 72.1-2): En el nivel IV se ha recuperado un número discreto de raspadores (N=5) de los cuales cuatro son raspadores simples sobre extremo de lámina y uno es un raspador sobre lasca o lámina retocada.

Cómo materia prima se usa exclusivamente sílex del Flysch, tanto de Bidache como de Gaintxurizketa. Se eligen láminas como soporte para este utillaje, una de ellas cortical, aunque también se ha retocado una cresta unifacial y una lasca.

En general parece que se utilizan formatos bastante alargados y espesos (31x18 x10 mm de media). La longitud original sería mayor, ya que los soportes están fracturados en la mayoría de los casos. Uno de los raspadores ha sido reavivado por contragolpe y otro presenta desconchados de uso en uno de los filos, resulta difícil de asegurar si algún otro ejemplar ha sido utilizado ya que presentan desconchados recientes y una fuerte deshidratación.

Compuestos o Tipos dobles: Tienen una presencia testimonial en este nivel (N=2), uno es un raspador-pieza truncada, y el otro un raspador-perforador. En ambos casos los soportes son láminas de plena talla, una estrecha y otra ancha. El sílex empleado en ambos casos es sílex local del Flysch, de Bidache y Gaintxurizketa. Con respecto a las huellas de uso, ambos ejemplares muestran desconchados de uso en ambos filos, bien como producto de su utilización o producto de su enmague.

Perforadores (Fig. 72.3-4): Al igual que el grupo de los compuestos, los perforadores en este nivel tienen una presencia anecdótica (N=2), uno de ellos es múltiple y el otro un microperforador. Ambos útiles se han realizado sobre lascas corticales de sílex del Flysch. El módulo de los soportes es variado, uno los soportes es de pequeño tamaño (18x16x6 mm) y el otro de un tamaño mayor (43x31x11 mm). Con respecto a su uso, no muestran desconchados ni huellas de uso macroscópicas.

Buriles (fig. 72, 5-10): Al igual que ocurre en los niveles inferiores, los buriles son la categoría más representada entre los útiles retocados, suponiendo un 28,7% del utillaje retocado. Este gran peso de los buriles se deriva casi exclusivamente de la alta proporción de buriles de Noailles (23,3% de los retocados).

De este modo aparte de los 17 ejemplares de Buriles de Noailles, aparece un buril de ángulo sobre rotura, un buril transversal sobre truncadura lateral y dos buriles múltiples mixtos. Con respecto a los soportes elegidos para fabricar los buriles de gran formato (diedros, múltiples y sobre truncadura) se han escogido lascas y láminas anchas y bastante espesas (30x22x7 mm de media).

Los buriles ligeros sobre truncadura (buriles de Noailles) se fabrican preferentemente sobre laminillas, un par de ellas son corticales, pero también sobre otros soportes como lascas y acondicionamientos. Las laminillas seleccionadas para su retoque son laminillas anchas (14,5x10x3 mm de media) y las lascas y acondicionamientos son de pequeño tamaño y escaso espesor (17x17x3,4 mm de media). Todos son buriles de Noailles típicos (Arrizabalaga, 1994) sobre truncadura recta u oblicua, con muesca de paro y paños muy estrechos (<2mm). De éstos buriles solamente dos son dobles. Predominan las formas trapezoidales, triangulares y rectangulares en la planta de estos útiles, y los perfiles son rectilíneos o ligeramente convexos.

Entre las materias primas, si nos fijamos en los buriles de gran formato, todos los sílex proceden del Flysch, de Gaintxu-

Bidaxunekoak, direla erabilitako suharri guztiak; aldiz, Noailles zulakaitzei erreparatuz gero, bestelakoa da egoera, askotari-koagoa, bertako suharriak proportzio altuan ageri diren arren, kanpoko suharrietan, Urbasa, Chalosee eta Terciskoetan, landuriko piezak ere ageri baitira, antzeko portzentajeen ageri ere.

Maila honetako zulakaitzen erabilerari dagokionez, badirudi zulakaitz lodiak matrize eta, era berean, tresna gisa baliatu zituztela. Zail da, ordea, aukera hori guztiz ziurtatzea, ez baita zulakaitzen negatiboen antzeko moduluak zituzketen ijekitxo estuen talde jakin baten presentzia egiaztatu ahal izan, eta berreskuratu diren zulakaitzetan ez da, gainera, erabili izana salatuko zuketan aztarna makroskopikorik sumatu. Noailles zulakaitzen kasuan, badirudi etengabe erabili zituztela, zatituri ageri baitira maiz askitan; horretaz gainera, eremu altxatuak ageri dituzte batzuek diedroan, bai eta aurpegiak birbizituak ere, erabileraren poderioz.

Ertza zanpatua ageri duten piezak: Atal honen barruan sailka litekeen pieza bakarra berreskuratu dugu. Bidaxuneko suharrian itxuraturiko gandar zabal xamarra da (29x19x8 mm), eta ukiera erdi-malkartsu oso fina ageri du bizkaraldeko ertz batean, piezaren urrunaldean.

Mozturak (72. irudia. 13-17): IV. mailan aztertutako lagineko talde garrantzitsuena da, zulakaitzen ondoan. Bederatzi moztura berreskuratu ditugu, eta bat baizik ez da bikoitza. Ukiera malkartsu lodi edo finaren eta ukiera erdi-malkartsuen bitartez taxutu ziren mozturak; sorbatzen perfilen artean, bestalde, nagusi ageri dira lerrozuzenak (K=4), eta zeiharrek eta ganbilak datoz ondoren. Noailles zulakaitzen aurreformatzat har liteke ale horietako bat, bi kamer ageri baititu eskuinaldeko sorbatzean, zuzena bata eta alderantzizkoa bestea.

Bideratu zituzten metodoei dagokienez, nagusi ageri zaigu ijeki-euskarri estuen erabilera (15 mm-ko zabalera batez beste), baina printzak eta itxura angeluzuzeneko birbizitze-tableta bat ere berreskuratu ditugu euskarrien artean.

Flysch-eko suharria, Gaintxurizketakoa, bideratu zuten nagusiki, baina jatorria zehaztu gabeko suharriak ere azaldu dira. Kanpoko suharrien presentzia oso urria da, Urbasako suharrian landuriko ale bakarra baizik ez.

Ijeki ukituak (72. irudia. 11-12): Lau ijeki ukitu azaldu dira zuzenean IV. mailako multzoaren barrenean; haietako hiruk ukiera soila ageri dute ertz batean eta bakar batek baizik ez ditu bi ertzak ukiturik.

Ijeki-euskarriak baizik ez zituzten erabili, azaldunak ez diren ijeki estuak hain zuzen ere. Dokumentatu diren lau aleak zatituri daude eta, horretaz gainera, ez dute beste erabilera-arrasto makroskopikorik ageri. Lehengaei dagokienez, Bidaxune, Gaintxurizketa eta Urbasako suharrietan landuak dira nagusiki.

Pieza ezpalduak (73. irudia. 1-3): IV. mailako multzoan presentzia ugarienetakoa duen tresna taldea da hau, zortzi ale baitira guztira. Printza soilak eta azalekoak, isuri bakarreko eta biko gandarrek eta forma gabeko zatiak bideratu zituzten euskarri gisa. Euskarriak handiak eta lodiak dira (33,3x23,4x11,1 mm batez beste), erabilera dela medio murrizturik ageri diren arren. Bertako suharrietan landuak dira guztiak: nagusi ageri da Bidaxuneko Flysch-eko suharria, eta bertako suharri urgoniarra eta Gaintxurizketakoa datoz ondotik.

Multzo honetan ez dirudi, pieza ezpalduetatik abiatuturik, euskarriak kontrakolpe jorik ekoizteko asmorik izango zuketarik, ezpalen presentzia horrenbestekoa ez izateaz gainera, ez baita euskarri horietako bakar batean ukierarik dokumentatu.

rizketa y de Bidache, mientras que si nos fijamos en los buriles de Noailles el panorama es más variado puesto que se mantiene una alta proporción de estos sílex locales, pero acompañados de un porcentaje similar de sílex exógenos como el de Urbasa, Chalosse y Tercis.

Acerca del uso de los buriles de este nivel, parece que en el caso de los buriles espesos han podido ser empleados como matriz y también cómo útil. Esto es difícil de asegurar puesto que no se ha comprobado la existencia de un grupo concreto de laminillas estrechas con módulos similares a los negativos de los buriles, ni se aprecian huellas de uso macroscópicas en los buriles recuperados. En el caso de los buriles de Noailles parece que han sido usados intensamente porque aparecen frecuentemente fracturados y alguno muestra desconchados de uso en el diedro y reavivados de los paños.

Piezas de borde abatido: Solamente se ha recuperado una pieza clasificable en este apartado. Se trata de una cresta de sílex de Bidache bastante ancha (29x19x8 mm) con un dorso conformado mediante retoque semiabrupto marginal muy fino en la zona distal de la pieza.

Truncaduras (Fig. 72. 13-17): Es el grupo más importante, tras los buriles, de la muestra estudiada del nivel IV. Se han recuperado 9 truncaduras, de las cuales solamente una es doble. Las truncaduras se han realizado mediante retoque abrupto espeso o fino y semiabrupto, y según la delineación de los filos predominan las rectas (N=4) seguidas por las oblicuas y convexas. Uno de estos ejemplares puede considerarse una preforma de buril de Noailles ya que presenta dos muescas en el filo derecho, una directa y otra inversa.

Con respecto a los soportes empleados, predomina el uso de soportes laminares estrechos (15 mm de anchura media), pero también se emplean lascas y una tableta de reavivado que tiene una forma rectangular.

Predomina el uso de sílex local del Flysch, de Gaintxurizketa, y también de sílex indeterminados, mientras que la presencia de sílex exógenos es muy reducida, limitándose a un ejemplar de sílex de Urbasa.

Láminas retocadas (Fig. 72. 11-12): Las láminas retocadas tienen una presencia discreta en el conjunto del nivel IV con 4 ejemplares, 3 de ellas tienen retoque simple sobre un borde y solamente una está retocada en los dos bordes.

Se utilizan exclusivamente soportes laminares, concretamente láminas estrechas no corticales. Los cuatro ejemplares documentados están fragmentados, y aparte de ello no muestran otras huellas macroscópicas de uso. Con respecto a las materias primas, están fabricadas en sílex de Bidache, Gaintxurizketa y Urbasa principalmente.

Piezas astilladas (Fig. 73.1-3): Es otro grupo de los mejor representados en el conjunto del nivel IV, con un total de 8 ejemplares. Como soporte se han empleado lascas simples y corticales, crestas a una y dos vertientes y fragmentos informes. Se trata de soportes grandes y espesos (33,3x23,4x11,1 mm de media) a pesar de que se han visto reducidos debido a su uso. Prácticamente todos los ejemplares están fabricados en sílex locales, predominando el sílex del Flysch de Bidache, el sílex Urgoniano local y el de Gaintxurizketa.

En este conjunto no parece probable la intención de producir soportes mediante percusión por contragolpe a partir de astillados, ya que la presencia de astillas es discreta y no se ha documentado el retoque de ninguno de estos soportes.



72. irudia. Marruskak, zulagailuak, zulakaitzak, ijeki ukituak eta mozturak.
 1-2 Marruskak; 3-4 Zulagailuak; 5-6 Zulakaitzak; 7-10 Noailles zulakaitzak;
 11-12 Ijeki ukituak; 13-17 Mozturak.

Figura 72. Raspadores, perforadores, buriles, láminas retocadas y truncadas.
 1-2 Raspadores; 3-4 Perforadores; 5-6 Buriles; 7-10 Buriles de Noailles;
 11-12 Láminas retocadas; 13-17 Truncadas.

Hargatik uste dugu pieza ezpaldu horiek bitarteko pieza gisa baliatuko zituzketela, ohiko sorbatz pitzatuak eta haustura eta eremu altxatu txikiz hornituriko sorbatz irregularrak ageri baitituzte. Etengabe erabili zituzten maila honetan azalduko piezak, gutxienez hiru aleren euskarriak hautsi baitzituzten sorbatz berriak sortzeko, ordura arteko eremu aktiboak kamustu eta gero. Zatiurik azaldu dira, gainera, beste hiru ale, ziri gisa erabili izan eta gero seguruenik.

Substratu-piezak (73. irudia. 4-9): Beste multzo adierazgarrietako bat dugu, kopuruari dagokionez, zortzi ale baitira guztira. Pieza denticulatuak dira substratu-pieza gehienak (K=5), eta karrakagailuak (K=2) eta kamerrak (K=1) datoz ondotik. Printzak hautatu zituzten batez ere haien euskarriarako, azalekoak dira bi, eta erdi-gandorra bestea. Neurri handiko euskarriak dira (38,8x30x10,8 mm batez beste), eta bat ez beste guztiak suharrin landuak. Izan ere, kuartzitan itxuratu zuten denticulatuak dira. Erabili zituzten suharriek dagokionez, nagusi ageri dira bertako Flysch-eko, Gaintxurizketako, suharria eta haizuloko bertako suharri urgoniarra.

Substratu-piezek sorbatz bakarri ageri dute, oro har: Ez da hori, ordea, karrakagailu konbergente baten kasua. Bestalde, lodia eta ezkatatsua ageri dute eskuarki ukiera.

Ijekitxo ukituak (73. irudia. 10-15): Nolabaiteko garrantzia du talde honek maila honetan, sei ale baitira guztira: bi mozturadun ijekitxo, bi kamerdun ijekitxo, bizkardun ijekitxo bat eta bizkardun ijekitxo mozturadun bat. Flysch-eko suharria da ijekitxo horiek lantzeko baliatu zen funtsezko lehengaia; alabaina, zehaztu gabeko suharrietan itxuratu zituzten haietako bi, eta Urbasako suharrin beste bat.

Erdigandor baten gainean taxuturiko alea izan ezik, neurri txikiko ijeki-euskarriak dira baliaturiko euskarri guztiak. Bi talde bereizi ditugu tresnen zabaleraren arabera (alerik ere ez da osorik azaldu eta, beraz, ezin zehaztu izan dugu talde honetako ijekitxoen luzera): 6 mm inguruko zabalera duten ijekitxo estuak, alde batean, eta ijekitxo zabalxeagoak, batez beste 9 mm ingurukoak, bestean. Bizkardun ijekitxoak eta bizkardun ijekitxo mozturadunak dagozkio lehen taldeari, eta mozturadun ijekitxoak eta kamerdun ijekitxoak bigarrenari. Horrenbestez ikusi ahal izango dugu bi kasuetan hautatu ziren euskarriak ijekitxo zabalak, 9 mm-ko zabalera aurrerakoak, zirela, bizkarrak lantzeko anean hainbat milimetrotan murriztuko baitzuten euskarri horien jatorrizko zabalera.

Elementu hauen erabilerari dagokionez, bizkardun ijekitxo mozturadun batek bakarrik ageri ditu sorbatzean eremu altxatu zeiharrek, ukaldien ondorioz beharbada: jaurtigai-armadura gisa erabiliko zuten. Kamerdun eta mozturadun ijekitxoek ez dute erabileraren arraste makroskopikorik ageri, baina Noailles zulakaitzen ekoizpenarekin lotu litezke beharbada, tresna horien aurreformak izango ziratekeelako.

Bestelakoak (73. irudia. 16): Zazpi pieza sailkatu dira guztira bestelako tresna gisa. Honako hauek bereizten dira haien artetik: sailkatzen zailak diren tresnen lau zati, ukiera soila ageri duten bi printza eta Noailles zulakaitza litzatekeen pieza baten zatia. Suharrin eginak dira guztiak, Bidaxuneko eta Gaintxurizketako Flysch-eko suharri motak nagusi.

Harrizko tresneriaren taxuketa eta mantentzea

Birbizitze-printzak, zulakaitz-ebakinak eta ezpalak: Maila honetan ez dugu birbizitze-printzarik berreskuratu, eta tresneria ukituaren taxuketa eta mantentze jarduerekin lotu ohi diren gainerako euskarri motak ere ez dira ugari ageri. Halatan,

Por ello hemos considerado estos astillados como piezas intermedias ya que presentan los característicos filos fisurados y filos irregulares con fracturas y desconchados pequeños. Las piezas de este nivel se han aprovechado de forma intensa ya que al menos en tres ejemplares el soporte se ha rotado para crear nuevos filos cuando las zonas activas se han embotado, además otros tres ejemplares aparecen fracturados presumiblemente a causa de su utilización en labores de tipo cuña.

Piezas de sustrato (Fig. 73.4-9): Es otro de los grupos relevantes numéricamente hablando, con 8 efectivos. La mayor parte de las piezas de sustrato son piezas denticuladas (N=5) y las raederas (N=2) y muescas (N=1) son escasos. Cómo soporte se han elegido principalmente lascas, un par de ellas son corticales, y una semicresta. Son soportes de un tamaño grande (38,8x30x10,8 mm de media) fabricados en sílex, salvo en un caso que se ha fabricado un denticulado en cuarcita. Respecto a los sílex empleados, predomina el uso de sílex local del Flysch de Gaintxurizketa y el sílex Urgoniano procedente de la propia cueva.

Las piezas de sustrato muestran por lo general un filo, salvo en el caso de una raedera convergente, y el retoque es generalmente espeso y escamoso.

Laminillas retocadas (Fig. 73.10-15): Es un grupo con importancia relativa en este nivel, con un total de 6 efectivos. Aparecen dos laminillas truncadas, dos laminillas de muesca, una laminilla de dorso y una laminilla de dorso truncada. El sílex del Flysch es la materia prima fundamental para hacer estas laminillas, aunque hay un par de ellas fabricadas en sílex indeterminados y otra de sílex de Urbasa.


Todos los soportes empleados son soportes laminares de pequeño tamaño, salvo un ejemplar elaborado sobre una semicresta. Según la anchura de los útiles (ninguna está completa así que no podemos analizar la longitud de los ejemplares de este grupo) se pueden diferenciar dos grupos, uno de laminillas estrechas de unos 6 mm y otro de laminillas un poco más anchas, de unos 9 mm de media. El primer grupo se corresponde con las laminillas de dorso y laminillas de dorso truncadas, y el segundo con las laminillas truncadas y laminillas de muesca. Con ello vemos que los soportes elegidos son en ambos casos laminillas anchas, a partir de 9 mm de anchura, ya que al elaborar los dorsos se eliminan algunos milímetros de la anchura original del soporte.

Con respecto al uso de estos elementos, solamente una laminilla de dorso truncada muestra desconchados oblicuos en el filo, quizá de impacto y podría haber sido utilizada como barba de proyectil. Las laminillas con muesca y truncadas no presentan huellas de uso macroscópicas pero quizá pudieran relacionarse con la producción de buriles de Noailles, siendo preformas de estos útiles.

Diversos (Fig. 73.16): Hay un total de 7 útiles retocados clasificado como diversos. Entre ellos destacan cuatro fragmentos de útiles difíciles de identificar, además aparecen dos lascas con retoque simple y un posible fragmento de buril de Noailles. Todos ellos están fabricados en sílex, destacando las variedades del Flysch de Bidache y Gaintxurizketa.

Conformación y mantenimiento del utillaje lítico

Lascas de reavivado, golpes de buril y astillas: No se ha recuperado ninguna lasca de reavivado en este nivel, pero el resto de soportes vinculados con labores de conformación y mantenimiento del utillaje retocado tampoco son relativamen-



73. irudia. Tresna ezpalduak, substratu-tresnak, ijekitxo ukituak eta bestelako tresnak. 1-3 Ezpalduak; 4-5 Karrakagailuak; 6-7 Kamerrak; 8-9 Dentikulatuak; 10-11 Bizkardun ijekitxoak; 12-13 Kamerdun ijekitxoak; 14-15 Mozturadun ijekitxoak; 16 Printza ukitua.

Figura 73. Útiles astillados, de sustrato, laminillas retocadas y diversos. 1-3 Astillados; 4-5 Raederas; 6-7 Muestras; 8-9 Denticulados; 10-11 Laminillas de dorso; 12-13 Laminillas de muesca; 14-15 Laminillas truncadas; 16 Lasca retocada.

15 ezpal eta 13 zulakaitz-ebakin identifikatu ditugu. Bat datoz datu horiek maila honetan ikusi dugunarekin, zulakaitzak baitira hartan talde tipologiko nagusia eta pieza ezpalduena ere talde esanguratsuenetakoa.

Zulakaitz-ebakinak: Aipatzeko moduko luzera ageri dute osorik azaldu diren zulakaitz-ebakinak, baina oso euskarri es-tuak dira oro har (20,4x3,9x2,5 mm batez beste). Mota asko-tako ebakidurak ageri dituzte euskarri horiek, baina oso mar-katuak guztiak; lauangeluarrak eta laukizuzenak dira batez ere, baina badira, halaber, trapezio angeluzuzenak eta hiruki ange-luzuzenak edo angeluzorrotzak. Euskarri hauen orpoen erdiak ere ez dira kontserbatu, baina leunak eta puntu formakoak dira nagusi. Bestalde, ale bakar batek baizik ez ditu aurpegiak ageri.

Flysch-eko, hau da, Bidaxune eta Gaintxurizketako suharri motak dira nagusi lehengaien artean, eta Urbasako suharrian landuriko pieza bat dokumentatu dugu.

Oso gutxi dira lehen belaunaldiko zulakaitz-ebakinak (% 23) eta, zulakaitz-ebakinen erauzte gidatzeko, alde zurretik bideraturiko gandorren negatiboak ageri dituzte gehienek. Ugari dira bigarren belaunaldiko ebakinak (% 77), alde zurreko aurpegi negatiboak ageri dituzte eta irekierarako erdigandorren aztarnak ageri dituzte bi kasuetan.

Zulakaitz-ebakinen talde honetako piezen zabalera txikia-goia da IV. mailako multzoan identifikatu diren ijeki taldeetako piezuna baino. Bestalde, euskarri horietako bakarrik ere ez zen ukitu eta, beraz, maila honetan ez dago zulakaitzetatik abiatu-rik landuko ziren ijekitxoek ekoizpenen zantzurik ere ageri. Ez dugu, gainera, Noailles zulakaitzetatik abiatu-rik sortuko zuketzen zulakaitz-ebakinak dokumentatu, Noailles pieza horiek horren ugari ageri izanagatik ere. Beraz, zulakaitz lodien erabilera eta birbizitze jardueren ondorio genituzke berreskuratu ditugun zulakaitz-ebakinak.

Ezpalak: Ugari xamar ageri da hondakin mota hau IV. mailan aztertutako laginean (K=14). Askotariko morfologia ageri dute euskarri hauek, neurri ertainekoak dira (18,3x14,6x5,7 mm batez beste) eta Gaintxurizketa eta Bidaxuneko suharrietan, eta bertako suharri urgoniarrean, landuak dira.

Euskarri hauen ekoizpena hala nahirik bideratu zen ala ez jakin nahian egin genezakeen galderari ezetz erantzun behar-ko genieke seguruenik, maila honetan ez baita kontrakolpe sorturiko nukleorik dokumentatu, ez eta ezpalik ukitu. Pieza ezpalduak bai, pieza ezpalduak berreskuratu ditugu eta ez gutxi; beraz, azterketa funtzional baten faltan gaudela, tresna ezpalduak bitarteko pieza gisa erabiltzearen poderioz sortuko ziren euskarri haiek.

6.7. LABURPEN TEKNOLOGIKOA

Arazoak planteatu dizkigu inolaz ere IV. mailak, arrazoi bat-zuk direla medio ezin izan baitugu haren osotasuna ziurtatu: badirudi hartan materialak irauli zirela eta halako material na-hasteak gertatu zirela, dokumentatu den zoladuraren (elkarren gainean pausaturiko harri zabalak) jatorri antropikoarengatik eta mailaren beraren potentzia eskasagatik. V. eta IV. mailen arteko kontaktu-eremuan orri hostokara baten zatia agertu izana ere berresten digu hipotesi hori, pieza hori berez IV. mailari dagokiola uste dugun aldetik. Mailaren izaera nahasia iradoki-tzen diguten beste faktore batzuk dira materialen kontserbazio egoera txarra, mihiztatzerik eza eta materialen banaketa des-berdina induskaturiko eremuetan barrena.

te abundantes. De este modo se han identificado 15 astillas y 13 golpes de buril, esto resulta coherente con lo que hemos visto en este nivel dónde los buriles son el grupo tipológico mayoritario y las piezas astilladas son otro de los grupos más relevantes.

Golpes de buril: Los golpes de buril enteros muestran una longitud notable, pero son por lo general soportes muy estrechos (20,4x3,9x2,5 mm de media). Estos soportes muestran secciones variadas pero muy marcadas, principalmente cuadrangulares y rectangulares, aunque también aparece alguna con forma de trapecio rectángulo y triángulo rectángulo o acutángulo. Se conservan menos de la mitad de los talones de estos soportes, pero predominan los lisos y puntiformes, mientras que solamente un ejemplar está facetado.

Las materias primas predominantes son el sílex del Flysch de Bidache y Gaintxurizketa, y se ha documentado un ejemplar de sílex de Urbasa.

Los golpes de buril de primera generación son muy escasos (23%), y la mayoría muestran negativos de crestas realizadas previamente para guiar la extracción del golpe de buril. Los golpes secundarios son abundantes (77%), muestran negativos de los paños previos y en un par de ocasiones muestran restos de esas semicrestas de apertura.

Las anchuras de este grupo de los golpes de buril son menores que la de los grupos laminares identificados en el conjunto del Nivel IV. Por otra parte ninguno de estos soportes se ha retocado, así que no hay indicios de una producción de laminillas a partir de buriles en este nivel. Además tampoco hemos reconocido ningún golpe de buril identificable como producido a partir de buriles de Noailles, a pesar de la abundancia de estos útiles. Con lo cual, los golpes de buril recuperados serían el resultado de las labores de uso y reavivado de los buriles espesos.

Astillas: Son un tipo de resto bastante abundante en la muestra analizada del nivel IV (N=14). Son soportes de morfología variada, de tamaño medio (18,3x14,6x5,7 mm de media) y están realizadas en sílex de Gaintxurizketa, Urganiano y de Bidache.

Con respecto a la intencionalidad de la producción de estos soportes no parece probable puesto que en éste nivel no se han documentado núcleos por contragolpe ni se ha retocado ninguna astilla. Lo que sí se ha recuperado y en buena cantidad son piezas astilladas, con lo cual, y a falta de un análisis funcional, estos soportes se han producido a causa del uso de útiles astillados como piezas intermedias.

6.7. SÍNTESIS TECNOLÓGICA

El nivel IV es un nivel problemático del que no podemos asegurar su integridad por diversas razones: parece que ha sufrido una remoción de los materiales y se han podido dar mezclas de materiales a causa de posible origen antrópico del pavimento de lajas yuxtapuestas documentado y por la escasa potencia del propio nivel. La presencia del un fragmento de foliácea en la zona de contacto entre el nivel V y IV, que consideramos que puede pertenecer a este último nivel también apoya esto. Otros factores que sugieren un estado alterado del nivel son el mal estado de conservación de los materiales, la ausencia de remontados y la distribución desigual de los mismos por las distintas zonas excavadas.

Honengatik guztiarengatik ere, maila hau ahalik eta hobekien ezaugarritzen saiatuko gara:

- a. Mailaren egoera nahasia.
- b. Suharrria erabili zuten nagusiki lehengai gisa (materialen % 97), baina beheko mailetakoa baino apalxeagoa da indize hori, beste gai batzuk puntualki erabili zituztelako, industria makrolitikoarekin loturiko jardueretan batez ere. Suharriaren arloan, nabarmen apaldu dira kanpoko hornikuntza-iturriak, begien bistakoa baita kontraste hori beheko mailen aldean, kontuan harturik haietan pisu bereziki garrantzitsua zuela Urbasako suharriak. Areagotu egin da, beraz, bertako Flysch-eko suharrien eta haizuloan berean eskura zuten suharri urgoniarraren erabilera.
- c. Eragin txikiagoa dute lanketa jarduerak eta oso aniztasun maila apala ageri dute, bestalde, ekoizpen sistemek. Printzen ekoizpen sistemez gainera, ijekitxo zabalak ekoizpena ere hauteman dugu: bertan bideratzen zen eta, itxura guztien arabera, unean uneko premia larrienei aurre egiteko baliatzen zituzten. Beste ijeki ekoizpen mota batzuk dokumentatu ditugu, halaber: ijeki zabalak eta estuak lantzen zituzten, baina ez dugu bertan landu zirela ziurtatuko ligukeen lekukotasunik topatu. Beste aztarnategi batzuetatik ekarriko zituzten edo landu eta gero sarraraziko zituzten aztarnategian.

Printzen kasuan, ijekien ekoizpen metodoekin lotu beharrik dira euskarrietako batzuk, eta polo anizkuneko nukleoetatik abiatuak sortuko ziren besteak (neurri txiki-kiko euskarriak): prestaera eskasekoak eta irakurtzen zailak dira. Azaldunak dira printza horietako asko eta pieza ezpaldurak, zulagailuak, mozturak, substratu-tresnak eta bestelako tresnak sortu zituzten haietatik.

Nukleo sasipiramidaletatik (edo prisma itxurako nukleo konbergenteetatik) eta printzeetatik (hegalak markatuak eta garapena erdi-garatzaila) edota zulakaitz lodiko nukleoetatik abiatuak landu zituzten ijekitxo zabalak. Ijekitxoek ekoizpen hori ez da oso ugaria, eta haietako gutxi batzuk baizik ez ziren ukitu Noailles zulakaitz, bizkardun elementu eta mozturadun eta kamerdun ijekitxo bihurtzeko. Antza denez, gordinik erabiliko zituzten, beraz, elementu hauek.

Neurri handiagoko ijeki-euskarriak (ijekiki zabalak eta estuak) inportatu ziren, bestalde. Tresna ukitu bilakatuko zituzten maiz, zulakaitzak, mozturak, ijeki ukituak eta maruskak sortuz batez ere. Maila honetan ez dira ekoizpen hauei zegozkiekeen nukleoak azaldu, eta kopuru txikian berreskuratu diren egokitzapenak ere ukiturik azaldu dira. Alabaina, horrek ez du esan nahi leku urrunetatik ekarritzen zituztenik, bertako suharrian, Bidaxunekoan bereziki, fabrikatu baitziren.

Aztarnategian bideratu ziren ustiatze jarduerak bizi xamarrik izan ziren eta nukleo ahituak utzi zituzten; haiena ez da zaindu itxura eta ez da, era berean, baliaturiko lehengaien kalitatearen aurrean halako kezka sumatzen (suharri urgoniarra eta Gaintxurizketako suharria, bakuolak eta ez-purutasunak maiz ageri dituztenak).

- d. Euskarri guztien aldean, ukitu ziren euskarrien portzentajea altuena da, inondik ere, Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto sekuentzia guztian. Handiagoa da, gainera, maila honetan azaldu diren talde tipologikoen arteko oreka, beheko mailetakoa baino. Halarik ere, zulakaitzen taldea ageri zaigu nagusi, eta garrantzitsua da betiere haien artean Noailles zulakaitzen multzoak duen presentzia (% 151

A pesar de esto vamos a intentar caracterizar éste nivel lo mejor posible:

- a. Estado alterado del nivel.
- b. Predominio del uso del sílex como materia prima (97% de los materiales) aunque desciende un poco con respecto a los niveles inferiores, derivado del uso puntual de otras materias, fundamentalmente en relación con la industria macrolítica. En el sílex hemos observado un descenso notable de las fuentes de aprovisionamiento exógenas, que contrasta con los niveles inferiores donde tenía un peso especialmente importante el sílex de Urbasa, a la vez que se intensifica el uso del sílex del flysch local y del sílex Urganiano procedente de la propia cueva.
- c. Menor incidencia de las actividades de talla y escasa variedad en los sistemas de producción. Además de sistemas de producción de lascas hemos detectado una producción de laminillas anchas que se realiza *in situ* y que parecen orientadas a hacer frente a las necesidades más inmediatas. Se han documentado además otras producciones laminares, de láminas anchas y estrechas, pero no hay evidencias que se hayan hecho *in situ*, puede que procedan de otras zonas del yacimiento o se hayan introducido en él ya elaboradas.

En el caso de las lascas, una parte de los soportes es subsidiario de los métodos de producción laminares, y otra parte (soportes de pequeño tamaño) se genera a partir de núcleos multipolares, con escasa preparación y de difícil lectura. Muchas de estas lascas son corticales y se transforman en astillados, perforadores, truncaduras, útiles de sustrato y utillaje diverso.

La producción de laminillas anchas se realiza a partir de núcleos pseudopiramidales (o prismáticos convergentes) y sobre lasca (con flancos marcados y desarrollo semienvolvente) o de tipo buril espeso. Ésta producción de laminillas es abundante, pero sólo unas pocas se retocan para hacer buriles de Noailles, elementos de dorso y laminillas truncadas o de muesca con lo cual el resto pudieron ser usadas en bruto.

Por otro lado, hay una importación de soportes laminares de mayor tamaño (láminas anchas y estrechas) que frecuentemente están transformados en útiles retocados, fundamentalmente buriles, truncaduras, láminas retocadas y raspadores. En este nivel no se han hallado núcleos correspondientes con estas producciones y los escasos acondicionamientos hallados también están retocados. Pero esto no quiere decir que se traigan de lugares lejanos, ya que la mayoría están fabricadas en sílex locales, de Bidache fundamentalmente.

Las explotaciones realizadas en el yacimiento son bastante intensas y dejan núcleos agotados, que presentan un aspecto poco cuidado, y no se aprecia demasiada preocupación por la calidad de las materias primas empleadas (sílex Urganiano y de Gaintxurizketa presenta frecuentes vacuolas e impurezas).

- d. El porcentaje de soportes retocados con respecto al total de los soportes es el más alto de toda la secuencia del interior de Aitzbitarte III. Además se da un mayor equilibrio entre los grupos tipológicos representados en este nivel, en comparación con los niveles inferiores. Aún así el grupo de los buriles sigue siendo el más representado, y todavía se mantiene una presencia importante del grupo

23). Mozturak ere pisu garrantzitsua dute maila honetan. Pieza ezpalduek, substratu-tresnak eta bestelako tresnak ere talde ugariak dira eta euskarrien baliakuntza oportunistak, berehalako erabilerari begirakoa, salatzen digute (printzak eta, askotan, azaleko printzak aukeraturaz). Ijekitxo ukituak eta makrotresneria, bertan fabrikatzen zirenak, eta marruskak, aztarnategira kanpotik inportaturiko ijekien gainean landuak, kopuru esanguratsuan azaldu dira era berean. Gainerako mailen aldean, izugarri apaldu da er-tzean bizkar malkartsua ageri duten piezak, eta urri azaldu dira, halaber, zulagailuak eta tresna konposatuak (beheko mailetan ere sumatzen da joera hori). Guztiz aipagarria da, bestalde, maila honetan puntarik azaldu ez izana; mota honetako elementu bakarra dugu V. mailarekiko kontaktu-eremuan topatu genuen erramu-puntaren zatia, jatorriz kanpokoa dena.

Badirudi euskarri zabalagoak eta lodiagoak erabili zituztela IV. mailan beheko mailetan (V eta VI) baino; ukierak bideratu zituzten haietan. Haitzuloko beste gune batzuetatik edo beste aztarnategi batzuetatik eramango zituzten euskarri haietako batzuk.

- e. Aztarnategi hau eskualdeko beste batzuekin harremanetan jartzen duten portaera konplexu batzuk ikus daitezke IV. mailako multzoan, irauli eta nahasi bazen ere. Euskarrien ekoizpen eta kontsumo jarduerak bideratu ziren, alde batetik, oinarriko premiei berehala aurre egin ahal izateko, eta espazio hartan bideratuko ziren jarduera batzuen alde aurreko planifikazioa ere sumatzen da, bestetik, mota desberdineko eginbeharretan erabiliko ziren euskarri eta tresna jakin batzuk sarrarazi zirelako. Elementu horien artekotzat jo liteke, beharbada, maila honen eta V. mailaren arteko kontaktu-eremuan azaldu zen pieza hostokararen zatia. Maila honetan, zehatz-mehatz ezin dokumentatu izan dugu esportaziorako euskarrien ekoizpena.
- f. IV. mailako harrizko multzoak antzekotasunak ageri ditu, ikuspegi tipologiko eta teknologikotik, Aitzbitarte III haitzuloaren sarrerako multzoarekin.

de los Noailles (23%). Las truncaduras también tienen un peso importante en este nivel. Las astilladas, útiles de sustrato y diversos, son grupos abundantes y denotan un aprovechamiento oportunista de los soportes (eligiendo lascas a menudo corticales) para un uso inmediato. Las laminillas retocadas y el macrouillaje, fabricados *in situ*, y los raspadores, elaborados sobre láminas introducidas en el yacimiento, mantienen una presencia discreta. Desciende mucho con respecto a los demás niveles la presencia de piezas de dorso abrupto marginal, y también son escasos los perforadores y útiles compuestos (esta tendencia continúa de los niveles inferiores). Hemos de mencionar la ausencia en este nivel de puntas, el único elemento de este tipo es el fragmento de punta de laurel encontrado en el contacto con el nivel V y de procedencia exógena.

En el nivel IV parece que se seleccionan soportes más anchos y espesos para su retoque que en los niveles inferiores (V y VI), una parte de los cuales parecen ser importados desde otras zonas de la cueva o desde otros yacimientos.

- e. En el conjunto del nivel IV, a pesar de su posible alteración, se observan unos comportamientos complejos que comunican este yacimiento con otros de la zona. Por un lado se dan unas actividades de producción y consumo de soportes orientadas a hacer frente a unas necesidades inmediatas y por otro se aprecia la planificación previa de ciertas actividades que se van a dar en este espacio, puesto que se introducen ciertos soportes y utillajes para ser empleados en diferentes tareas. Quizá se puede incluir entre estos elementos un fragmento de foliácea que se encuentra en el contacto entre este nivel y el V. En este nivel no hemos podido documentar claramente la producción de soportes orientados a su exportación.
- f. El conjunto lítico del Nivel IV muestra ciertas semejanzas desde el punto de vista tipológico y tecnológico, con el conjunto del nivel III de la entrada de Aitzbitarte III.

7. II-III. MAILA

7.1. SARRERA

Ukiera bitartez taxutuak izateko hautatu diren euskarriei erreparatzen badiegu, moduluak hainbat motatakoak direla ohartuko gara (ez-ohiko balioen presentzia egiaztatuko dugu 85. irudian). Arruntean ukitu ziren printzak eta (% 43,2) ijeki-euskarriak (% 45,6). Ukituriko printzen artean, azaldunak


Tabla 27. Grandes categorías de utillaje del nivel II-III.

Si nos fijamos en los soportes que se han escogido para ser conformados mediante retoque vemos que hay cierta variabilidad en los módulos (en la fig. 85 vemos presencia de valores atípicos). Se retocan indistintamente tanto lascas (43,2%) como soportes laminares (45,6%). Entre las lascas retocadas,

MOTA / TIPO	KOP. / N	%
Marruska soila / Raspador simple	1	1,23
Printza edo orri ukituaren gaineko marruska / Raspador sobre lasca u hoja retocada	1	1,23
Marruska – Zulakaitza / Raspador – Buril	1	1,23
Mikrozulagailua / Microperforador	7	8,64
Moztura ukituaren gaineko zulakaitz anizkuna / Buril múltiple sobre truncadura retocada	1	1,23
Noailles zulakaitza / Buril de Noailles	3	3,70
Ertza guztiz zanpatua duen orria / Hoja de borde abatido total	4	4,94
Mozturadun pieza zuzena / Pieza truncada recta	1	1,23
Mozturadun pieza zeharra / Pieza truncada oblicua	2	2,47
Mozturadun pieza ahurra / Pieza truncada cóncava	1	1,23
Moztura bikoitzeko pieza / Pieza de doble truncadura o bitruncada	1	1,23
Ertz batean ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre un borde	7	8,64
Bi ertzetan ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre los dos bordes	2	2,47
Kamerdun pieza / Pieza de muesca	3	3,70
Pieza dentikulatua / Pieza denticulada	7	8,64
Pieza ezpaldua / Pieza astillada	3	3,70
Karrakagailua / Raedera	5	6,17
Raclette / Raclette	3	3,70
Mozturadun orritxoa / Hojita truncada	2	2,47
Bizkardun orritxoa / Hojita de dorso	6	7,41
Bizkardun ijekitxo mozturaduna / Hojita de dorso truncada	1	1,23
Horzdun ijekitxo / Hojita denticulada	2	2,47
Kamerdun orritxoa / Hojita de muesca	2	2,47
Mozturadun ijeki ukitua / Lamina retocada con truncadura	1	1,23
Bestelakoak / Diversos	14	17,28
<i>Printza ukitua / Lasca retocada</i>	5	6,17
<i>Ukiera txandakatzailako printza / Lasca con retoque alternante</i>	2	2,47
<i>Tresna zatia / Fragmento de útil</i>	1	1,23
<i>Sorbatz batean alderantzizko ukiera eta aurkakoan zuzeneko dituen ijekitxoak Laminilla con retoque inverso en un filo y directo en el opuesto</i>	1	1,23
<i>Ertzean ukiera duen ijekitxoak / Laminilla con retoque marginal</i>	1	1,23
<i>Ukiera alderantzikatuko printza / Tableta con retoque inverso</i>	1	1,23
<i>Ijekitxo ukituaren zatia / Fragmento de laminilla con retoque</i>	1	1,23
<i>Sasiukieradun formagabea / Informe con pseudoretoque</i>	1	1,23
<i>Ukitutako ijekiaren zatia / Fragmento de lámina retocada</i>	1	1,23
Pieza ukituak guztira / Total retocados	81	9,76
Ukitu gabeko tresneria / Utillaje sin retocar	749	90,24
Guztiak batera / Total general	830	100,00

26. taula. II-III. mailako zerrenda tipologikoa (Sonneville-Bordes eta Perrot, 1954).

Tabla 26. Lista tipológica (Sonneville-Bordes and Perrot, 1954) del nivel II-III.



85. irudia. Kutxa eta arbotante grafika, II-III. mailako euskarri gordinen eta ukituen neurri nagusiak erakusgai.

Figura 85. Gráfico de cajas y arbotantes con las principales dimensiones de los soportes brutos y retocados del nivel II-III.

dira euskarrien ia erdiak eta ukitu ere egin ziren egokitzapenerako euskarriak, ezpalak eta formarik gabeko zatiak (% 10). Moduluei dagokienez, eskura zituzten euskarrien arteko handienak ukitu zituzten (14 eta 36 mm bitarteko luzera eta 13 eta 25 mm bitarteko zabalera batez beste), baina, itxura guztien araber, bereziki landu nahi izan zituzten euskarri mardulenak, 4 eta 13 mm bitarteko lodierakoak.

Marruskak: Bi marruska baizik ez ditugu berreskuratu, ijeki baten ertzaren gainean taxaturiko marruska soila da bata, eta ijeki ukitu batean gainean landurikoa bestea. Ijeki zabalak (37x20x10 mm batez beste) baliatu zituzten euskarri gisa, eta nahita zatitu zituzten, marruskaren luzera kontrolatzeko. Flysch-eko suharria bideratu zuten bi kasuetan. Nabarmen aldarazi izan ziren zantzuak ageri dituzte bi marruskek: pieza bitan zatitzen duen haustura berria ageri du bata eta biratzeak eraginiko leundurak besteak.

Pieza konposatuak edo bikoitzak (86.1 irudia): II-III. multzoan aztertutako laginean marruska-zulakaitz bat baizik ez dugu dokumentatu, Bidaxuneko suharrian taxaturiko ijeki gaiditu baten aurkako ertz batean. Ere mu azalduna ageri du, gainera, sorbatzean. Plataforma gisa baliatu zuten urrunaldeko eremu gaiditua, zulakaitz-ebakina erazuzi ahal izateko, eta ijekiaren hurbilaldeko ertzean fabrikatu zuten marruska.

Zulagailuak: (86. irudia 2-8): Zazpi pieza sailkatu dira talde honen barnean, eta multzoko talde garrantzitsuenetako bat da beraz. Mikrozulagailutzat har genitzake zazpi zulagailuak, sorbatz ukituaren neurri txikia dela medio, kontuan harturik, aldi berean, tamaina eskaseko printzen gainean landu zirela (10 mm-tik beherakoak dira berreskuratu ditugun zatiak, baina haietako bat baizik ez dago osorik). Askotarikoak dira erabilitako suharriak: Bidaxune, Gaintxurizketa, urgoniarra... eta, areago, bada Trebiñuko suharrian taxaturiko pieza bat.

Haien erabilerari dagokionez, argi esan dezagun zatituri agertu direla guztiak eta haien arteko bakar batean ere ez dela altxaturiko eremu makroskopikorik azaldu.

Zulakaitzak (86. irudia 9-11): Tresna hauen presentzia ez da horren esanguratsua izan II-III. mailan aztertu dugun laginean. Lau alde dokumentatu ditugu, moztura gaineko zulakaitz anizkuna da haietako bat, eta Noailles zulakaitzak beste hirurak.

casi la mitad de los soportes son corticales y también se han retocado soportes de acondicionamiento, astillas y fragmentos informes (10%). Con respecto a los módulos, de los soportes disponibles se han retocado aquellos más grandes, entre 14 y 36 mm de longitud y 13-25 mm de anchura media, pero además parece haber un especial interés en los soportes espesos, entre 4 y 13 mm de espesor.

Raspadores: Solamente se han recuperado 2 raspadores, un raspador simple sobre extremo de lámina y un raspador sobre lámina retocada. Los soportes empleados son láminas anchas (37x20x10 mm de media) que han sido fracturadas intencionalmente para controlar la longitud del raspador. El sílex empleado en ambos casos es sílex del Flysch. Ambos raspadores presentan fuertes signos de alteración, uno de ellos presenta una fractura reciente que parte la pieza en dos, y el otro presenta signos de rodamiento.

Compuestos o Tipos dobles (Fig. 86.1): En la muestra analizada del conjunto II-III solamente se ha documentado un raspador-buril situado en los extremos opuestos de una lámina sobrepasada de sílex de Bidache, que además arrastra una zona cortical en el filo. Se ha aprovechado la zona distal sobrepasada como plataforma para extraer el golpe de buril mientras que el raspador se ha fabricado en el extremo proximal de la lámina.

Perforadores (Fig. 86.2-8): Hay 7 piezas clasificadas dentro de este grupo, que además es uno de los grupos más importantes del conjunto. Los siete perforadores pueden considerarse microperforadores debido al pequeño tamaño del filo retocado y también se han fabricado sobre lascas de escaso tamaño (los fragmentos recuperados son menores de 10 mm pero solamente uno está completo). Los sílex utilizados son variados, sílex de Bidache, Gaintxurizketa, Urgoniano e incluso aparece un ejemplar en sílex de Treviño.

Con respecto a su uso, prácticamente todos aparecen fracturados, pero no se ha documentado desconchados macroscópicos de uso en ninguno de ellos.

Buriles (Fig. 86.9-11): Este grupo de útiles muestra una presencia discreta en la muestra analizada del nivel II-III. Se han reconocido cuatro ejemplares, uno de ellos es un buril múltiple sobre truncadura y los restantes son buriles de Noailles.

Neurri handiko printza baten gainean (37x32x14 mm) landu zuten zulakaitza. Normala da euskarri handiak eta lodiak aukeratu izana, nukleoen ezaugarriak dituen zulakaitza izaki. Aurpegi moduluak ijekitxoeren tankerakoak dira (34x7 mm eta 14x6 mm) eta, beraz, ijekitxoak erazteko matrize gisa erabiliko zuten behar bada, kontuan harturik ez duela erabilerara-arrasto makroskopikorik ageri.

Ijekitxoeren edo ijeki estuen gainean (15x11x4 mm batez beste) fabrikatu ziren dokumentatu diren hiru Noailles zulakaitzak. Ohiko Noailles zulakaitzak dira, aurpegiak laburrak eta oso estuak (9x1 mm batez beste) eta gelditze-kamerrak agerian. Zulakaitz-ebakinak oinarritu ziren mozturak zeharrak dira, ukiera malkartsu oso fin batez bideratuak. Haien erabilerari dagokionez, ezer gutxi esan genezake ez baitute erabilerara-arrasto makroskopikorik ageri, baina zatiturik azaldu dira hirurak. Beraz, aurreko mailetan gertatu bezala, uste izatekoa da askotan erabiliko zituztela eta erabilerara horren poderioz zatitu zirela.

Bertako lehengaiak, Bidaxuneko eta Gaintxurizketako Flysch-eko suharriak hain zuzen ere, baliatu zituzten zulakaitz horiek guztiak lantzeko.

Ertza zanpatutako piezak (86-12 irudia): II-III. maila honetan presentzia ez horren esanguratsua erakutsi duen beste talde bat dugu ertza zanpatutako piezena (K=4). Kasu honetan, ertza oso-osoa zanpaturik ageri dute dokumentaturiko pieza guztiek. Bertako suharrian, Gaintxurizketakoan eta zehaztu gabeko suharrien batean landu zituzten. Euskarriak ere askotarikoak dira: azal-kentze printza, ezpala, neurri txikiko ijeki-euskarriak. Bizkarrak ere hainbat motatakoak dira, finak gehien batean eta ertzean ukiera erdi-malkartsua bideratuz itxuratuak. Alderantzizko ukiera bitartez taxaturiko ale bat ere dokumentatu dugu.

Mozturadun piezak (82. irudia. 13-15): Sei moztura zenbatu ditugu; ijeki ukituaren gainean landu zuten bat eta haien arteko bakarra da bikoitza. Ukiera malkartsu edo erdi-malkartsu lodien bitartez landu ziren sorbatzak. Sorbatzen perfilen arabera, zeharrak dira gehienak, haietako lau, eta lerrozuzena eta ahurra beste biak. Egokitzapen batzuk ageri dituzte bi aleko alboetako sorbatzetan eta tresna horien gidar edo kirtenarekin lotu beharke lirateke behar bada: kamerra da kasu batean eta ukiera dentikulatua bestean. Bertako suharrietan (urgoniarrean eta Gaintxurizketakoan) eta zehaztu gabeko suharrietan landuriko ijeki estuak (15 bat mm-ko zabalera) eta lodiak bideratu zituzten euskarri gisa.

Ijeki ukituak (86. irudia. 16-18): Tresna talde honek pisu garrantzitsua du II-III. multzoan. Bederatzi ale dira guztira, ertz baten gaineko ukiera soila ageri dute haietako zazpi eta bi ertzen gainekoa beste biek.

Ijeki zabalak eta estuak dira nagusiki bideraturiko euskarriak. Ez dira lodiegiak (15 mm inguruko zabalera eta 6 mm inguruko lodiera), eta ez dute eremu azaldunik ageri. Hala eta guztiz ere, printza luzexka batzuk ere agertu dira haien artean. Askotarikoak dira landu ziren suharri motak, bertakoak bezala ageri baitira kanpokoak (urgoniarra, Bidaxune, Urbasa eta Trebiñu); Gaintxurizketako Flysch-ekoak da maizenik erabili zutena.

Ukiera soilaz taxutuak dira sorbatz ukituak eta erregularrak dituzte perfilak, baina aipagarria da angelu apaleko ukiera lau xamarra ageri duen alea. Baliatu ziren suharrien askotariko izaerari erreparatzen badiogu, pieza horiek ekoizpenen kudeaketa luzearekin eta aztarnategi batetik bestera bideratuko zen garraio modu batekin lotu beharrik direla ohartuko

El buril múltiple está fabricado sobre una lasca de tamaño grande (37x32x14 mm), es normal esta preferencia por soportes grandes y espesos al tratarse de un buril con rasgos nucleiformes. Los módulos de los paños son similares a los de las laminillas (34x7 mm y 14x6 mm) con lo cual probablemente ha podido ser usado como matriz para extraer laminillas, además no presenta huellas de uso macroscópicas.

Los tres ejemplares de buriles de Noailles documentados se han fabricado sobre laminillas o láminas estrechas (15x11x4 mm de media). Se trata de buriles Noailles típicos con paños cortos muy estrechos (9x1 mm de media) y muescas de paro. Las truncaduras sobre las que se apoyan los golpes de buril son oblicuas, realizadas mediante retoque abrupto muy fino. Respecto a su uso poco se puede decir ya que no presentan huellas de uso macroscópicas, pero todos ellos aparecen fracturados, así que, al igual que ocurría en los niveles anteriores cabe relacionarlos con una relativa intensidad de uso que provoca que se fracturen.

Todos los buriles se han realizado utilizando materias primas locales, concretamente sílex del Flysch de Bidache y Gaintxurizketa.

Piezas de borde abatido (Fig. 86-12): Otro grupo de presencia discreta en el nivel II-III son las piezas de borde abatido (N=4), aquí todas las documentadas son de borde abatido total. Están fabricadas en sílex de procedencia local, de Gaintxurizketa, y en sílex indeterminados. Los soportes usados son variados, desde una lasca de decorticado, hasta una astilla y soportes laminares de tamaño pequeño. Con respecto a los dorsos también son variados, en general son finos y están conformados mediante retoque semi-abrupto marginal, aunque se ha documentado un caso realizado mediante retoque inverso.

Piezas truncadas (Fig. 86.13-15): Se han contabilizado 6 truncaduras, de las cuales una está fabricada sobre lámina retocada y solamente una es doble. Los filos se han realizado mediante retoque abrupto o semiabrupto espeso. Según la delineación de los filos predominan las oblicuas, aunque también aparece una recta y una cóncava. Dos de los ejemplares presentan ciertos acondicionamientos en los filos laterales, quizá relacionados con el empuje de estos útiles, en un caso es una muesca y en el otro retoque denticulado. Los soportes empleados son láminas estrechas (en torno a 15 mm de anchura) y espesas, de sílex local (Urgoniano y de Gaintxurizketa) e indeterminado.

Láminas retocadas (Fig. 86.16-18): Este grupo de útiles tiene un peso importante en el conjunto II-III, cuenta con 9 ejemplares, de los cuales 7 presentan retoque simple sobre un borde y 2 sobre los dos bordes.

Los soportes utilizados son fundamentalmente láminas anchas y estrechas, no demasiado espesas (alrededor de 15 mm de anchura y 6 de espesor) y no corticales, aunque también se usan algunas lascas con formatos alargados. Los tipos de sílex en que están fabricadas son muy variados, apareciendo tanto sílex locales como exógenos (Urgoniano, Bidache, Urbasa y Treviño), pero el del flysch de Gaintxurizketa es el que se emplea con más frecuencia.

Los filos retocados tienen perfiles regulares y se han conformado mediante retoque simple, pero debemos mencionar un ejemplar que presenta un retoque con ángulos bajos (bastante plano). La variedad de materias primas usadas nos hace vincular estos útiles con una gestión prolongada y con un transporte de unos yacimientos a otros. Además el hecho

gara. Ikusirik, gainera, erabilera-arrasto makroskopikorik ageri ez duten arren, pieza horiek guztiak zatiturik azaldu direla, ueste izatekoa da etengabe erabili izan zirela.

Pieza ezpalduek (86. irudia. 19): Talde honek II-III. mailan duen presentzia ez da horren garrantzitsua (K=3). Printzak, ijekiak eta formarik gabeko zatiak baliatu ziren haien euskarri gisa. Erdi tamainako euskarri lodi xamarrek dira oro har (26,4x25,5x11,9 mm batez beste), baina jatorrian neurri handiagokoak izango ziren, inolaz ere, murriztu egingo baitziren erabileraren poderioz. Kalitate apaleko suharrietan (bertako suharri urgoniarrean edota Gaintxurizketakoan, hau da, ez-purutasun eta bakuola ugari ageri duten suharrietan) landu ziren guztiak.

Maila honetan pieza ezpalduen morfologia lauangeluarra edo angeluzuzena da, bitarteko pieza gisa erabili izan zirelako. Lehengai gogorrekin erabiliko zituzten eta etengabe baliatu zituztelako zantzuak ageri dituzte, sorbatz nagusiak ahitu ondoren biratu egin zirelako. Tresneria mota honen erabileraren gaineko azterketa funtzionalaren faltan gaudela, pieza ezpalduek ziri gisa erabili izanaren ondorioztat hartu dira maila honetan azaldu diren ezpalak. Gainera, bigarren mailako produktua da pieza ezpalduetako bat, karrakagailua izan baitzen bitarteko pieza gisa erabili aurretik.

Substratu-piezak (87. irudia. 1-8): Maila honetako talde garrantzitsuena da, piezen kopuruari dagokionez (K=15). Dentikulatuak (K=7) eta karrakagailuak (K=5) dira haietako gehienak, eta gutxiago kamerdun piezak (K=3).

Euskarriei dagokionez, neurri oneko printzen gainean (40x31x13 mm batez beste) taxutuak dira pieza gehienak eta azaldunak dira haien erdiak. Egokitzapenak ere baliatu dira, hala nola aurpegi bakarrek gandar bat eta printzaketa-aurpegiaren garbiketarako printza bat, eta ijeki-euskarri zabal batzuk (27x21x6 mm batez beste), funtsean dentikulatuak, eta kamer bat, sortzeko baliatu ziren. Euskarri hauek zuzeneko ukiera ezkatatsu baten bitartez sorbatz lodi xamar bat sorturik ukitzen ziren eskuarki (karrakagailu bikoitzaren kasuan izan ezik); alabaina, alderantzizko ukieraren bidez landu zen karrakagailu bat, eta txandakako ukiera bideratu zuten, aldiz, dentikulatu bat ixuratzeke.

Nagusi da honetan Gaintxurizketako Flysch-eko suharriaren erabilera, eta Bidaxuneko ere baliatu zen, baina gutxiago. Bi tresna landu ziren kanpoko suharrietan, Chalossekoan eta Trebiñukoan.

Racletteak (87. irudia. 9-11): Molde horretako hiru pieza identifikatu dira II-III. mailan. Neurri txikiko printzak dira eta ukiera malkartsu lodia eta irregularra ageri dute (zuzeneko, alderantzizkoa edo txandakakoa) sorbatzen luzeran. Bertako eta, aldi berean, nola-halako kalitateko suharriak erabili zituzten, urgoniarra eta Gaintxurizketakoa.

Ijekitxo ukituak (87. irudia. 12-20): Kopuruari dagokionez, hirugarren talde garrantzitsuena da II-III. mailan aztertutako laginean. 13 ijekitxo ukitu berreskuratu dira guztira eta bizkardun ijekitxoen taldearen barnean sailkatu beharrak dira haietako gehienak. Ale bana edo bina ageri dute gainerako taldeek (mozturadun ijekitxoak, bizkardun ijekitxo mozturadunak, dentikulatuak eta kamerdunak).

Azertzen zaila da ijekitxo hauen lehengaia, zehaztu gabeko suharrietan landuak baitira haien erdiak ia-ia (aldatu egi azaldu dira haien lehengaia identifikatu ahal izateko). Gaintxurizketa, Bidaxune eta urgoniar suharrietan fabrikatuak dira gainerako ijekitxo ukituak.

de que, aunque no se observan huellas de uso macroscópicas, prácticamente todas aparecen fracturadas, hace pensar en un uso bastante intenso.

Piezas astilladas (Fig. 86.19): Se trata de otro grupo con una presencia discreta en el nivel II-III (N=3). Como soportes se han empleado lascas, láminas y fragmentos informes. En general se trata de soportes de tamaños medios y bastante espesos (26,4x25,5x11,9 mm de media), aunque en origen debieron ser de un tamaño mayor que se ha visto reducido debido a su uso. Todas ellas están fabricadas en sílex de calidades bajas como el sílex Urganiano local y el de Gaintxurizketa, que se presenta con abundantes impurezas y vacuolas.

Los astillados de este nivel tienen una morfología cuadrangular o rectangular, que ha sido adquirida a través de su uso como pieza intermedia, posiblemente usada con materias primas duras, que además muestran signos de haber sido usadas intensamente ya que han sido rotadas al agotarse los filos principales. A falta de un análisis funcional de este tipo de utillaje, en este nivel las astillas aparecidas se interpretan como producto del uso de las piezas astilladas como cuña. Además uno de los astillados es un producto secundario, se trata de una raedera previa que ha sido usada posteriormente como pieza intermedia.

Piezas de sustrato (Fig. 87.1-8): Es el grupo más importante de este nivel en cuanto a número de piezas (N=15) de las cuales a mayor parte son piezas denticuladas (N=7) y raederas (N=5) mientras que las piezas de muesca son muy escasas (N=3).

En cuanto a los soportes se observa que la mayoría de estas piezas están fabricadas sobre lascas de buen tamaño (40x31x13 mm de media) y la mitad de ellas son corticales. También se ha empleado acondicionamientos como una cresta unifacial y una lasca de limpieza de cara de lascado, y algunos soportes laminares anchos (27x21x6 mm de media) empleados fundamentalmente para hacer denticulados y una muesca. Generalmente estos soportes se retocan creando un filo (salvo en el caso de una raedera doble) bastante espeso mediante retoque escamoso directo, aunque una raedera se ha elaborado mediante retoque inverso y para fabricar un denticulado se ha recurrido al retoque alternante.

Predomina el uso de sílex local del Flysch de Gaintxurizketa, y también se utiliza el de Bidache pero de forma limitada. También están presentes un par de útiles fabricados en sílex exógenos, de Chalosse y Treviño.

Raclettes (Fig. 87.9-11): En el conjunto del nivel II-III se han identificado tres piezas de este tipo. Se trata de lascas de pequeño tamaño que presentan retoque abrupto espeso e irregular (directo, inverso o alternante) a lo largo de sus filos. Los sílex empleados son locales y de calidad regular; se usa el sílex Urganiano y el de Gaintxurizketa.

Laminillas retocadas (Fig. 87.12-20): Es el tercer grupo en importancia numérica en la muestra analizada del nivel II-III. Se han recuperado un total de 13 laminillas retocadas, de las cuales la gran mayoría se incluyen dentro del grupo de laminillas de dorso. Los restantes grupos (laminillas truncadas, de dorso truncadas, denticuladas y de muesca) están representados por uno o dos de ejemplares cada uno.

La materia prima de estas laminillas es difícil de analizar puesto que casi la mitad de ellas están fabricadas en sílex indeterminados (están demasiado alterados para poder identificar la materia prima). Las restantes laminillas retocadas están fabricadas en sílex de Gaintxurizketa, Bidache y Urganiano.



86. irudia. II-III. mailako tresneria ukitua. 1 Marruska-zulagailua; 2-8 Mikrozulagailuak; 9-11 Zulakaitzak; 12 Bizkar malkartsuko pieza; 13-15 Mozturak; 16-18 ljeeki ukituak; 19 Pieza ezpaldua.

Figura 86. Utillaje retocado variado del nivel II-III. 1 Raspador-buril; 2-8 Microperforadores, 9-11 Buriles; 12 Pieza de dorso abrupto; 13-15 Truncaduras; 16-18 Láminas retocadas; 19 Pieza astillada.

Bizkardun ijekitxoak eta bizkardun ijekitxo mozturadunak ditugu ugarien ageri diren pieza. Hautatu ziren euskarriei dagokienez, ijekitxo estuak (4 mm zabal eta 1,8 mm lodi batez beste; halaz ere, jatorrian zabalagoak izango ziren, ukierak ijekitxoaren zati bat eramaten baitzuen), sorbatz erregularrez eta trapezoide itxurako ebakidurez hornituak. Ez dugu euskarri horien batez besteko luzera ezagutzen, zatiturik azaldu baitira ijekitxo guztiak. Zera da gure ustea, nolana ere, aukeraturiko euskarriak mailan identifikaturiko ijekitxoaren modularekin lotu beharrak direla.

Bizkar soila dute batek ez beste guztiak, bikoitza du bakar horrek. Bizkarrak finak dira eta ale bat baizik ez da zorrotzu, bizkarraren beste aldeko sorbatzean bideraturiko egokitzapenaren bitartez. Hausturak alde bat utzirik, ijekitxo horietako bakarrak ageri ditu talkaren hatzak: jaurtigai-armadura izango zen, beharbada. Gainerakoen artekoen batzuk punta zatiak izango zirelako hartu dugu kontuan, baina haien modulu murrizak ez dio hipotesi horri sostengurik eskaintzen.

Bizkardunenen tankerako moduluak, baina zabalagoak eta lodiagoak (8,1 mm-ko zabalera eta 3,1 mm-ko lodiera batez beste) bideratu ziren mozturadun ijekitxoak, kamerdun ijekitxoak eta dentikulatuak lantzeko baliatu ziren euskarriei begira. Haien ebakidurak hiruki kamutsak dira, angelua erdian edo ertz batean. Euskarriak ez dira horren estandarizatuak eta lehengaiak kalitatez eskasagoak dira; suharri urgoniarrean landuak dira, adibidez, bi kamerdun ijekitxoak. Ukiera oso fina edo ertzekoa da, eta zatiturik azaldu dira tresna guztiak, kamerdun ijekitxo bat izan ezik. Horretaz gainera, mozturadun ijekitxo batek baizik ez ditu erabilera-arrastoak ageri; erabilaren poderioz bi alboetako sorbatzetan altxaturiko eremuak dira, kasu honetan.

Bestelakoak (87. irudia. 21-24: Mailako bigarren talde ugariena da, 14 pieza sailkatu baitira bestelakoen artean. Zati batean ukituriko printzak (zuzeneko ukiera soila, alderantzizkoa eta txandakakoa, eta ukiera malkartsu partziala ageri duen beste elementuren bat), tresna zatiak eta ertzeko ukierak edo sasi-ukierak ageri dituzten ijeki-euskarriak dira nagusi bestelako tresneriaren taldean.

Zirt edo zart eta euskarriak edota lehengaiak argiro hautatu gabe landuriko tresneria mota honek garrantzia handia du, tresneria ukitu urri, eta itxuraz trauskila eta zabar landua, ageri duen maila baten izaeraren adierazgarri argi xamarra baita.

Harrizko tresneriaren taxuketa eta mantentzea

Birbizitze-printzak, zulakaitz-ebakinak eta ezpalak: Lekokotasun hutsa da maila honetan printzen presentzia (K=2) eta tresneria lodiarren, adibidez karrakagailuen, birbizitze jarduerekin lotu behar dira itxuraz. Printza hauek neurritz txikiak dira (9x10x3 mm batze beste) eta Flysch-eko suharrian landuriko tresnetatik abiatuak taxutu zituzten.

Ugariago ageri dira zulakaitz-ebakinak (K=10) eta ezpalak (K=9), baina maila honetan ez dirudi lehen asmoko produktuak direnik, baizik eta tresna batzuen, adibidez zulakaitzen edota pieza ezpalduen fabrikazio, erabilera eta birbizitze jardueren ondorioak.

Zulakaitz-ebakin gehienak zatiturik azaldu dira eta II-III. mailako ijekitxoaren artean dokumentaturikoa baino tamaina dezente txikiagoa ageri dute (16x4x3 mm batez beste). Ebakidura markatuak dira haienak, hiruki angeluzuzenen itxurakoak nagusi, ertz batean azpialdeko aurpegi fosil baten hondakinak eraman ohi dituztelako. Lehen belaunaldiko zulakaitz-ebakinak dira gehienak, hau da, tresna hauen aurreneko ustiatze fasee-

Las laminillas de dorso y laminillas de dorso truncadas son los elementos más abundantes. Con respecto a los soportes seleccionados se emplean laminillas estrechas (4 mm de anchura media, aunque en origen debieron de ser algo más anchas puesto que el retoque arrastra parte de la laminilla, y 1,8 de espesor medio), con filos regulares y secciones trapezoidales. No conocemos la longitud media de estos soportes puesto que todas ellas aparecen fracturadas, aún así vemos que los soportes elegidos parecen corresponderse con el módulo de las laminillas identificados en el nivel.

En todas ellas el dorso es simple, salvo en un caso en que es doble. Los dorsos son finos y solo un ejemplar ha sido apuntado mediante un acondicionamiento del filo opuesto al dorso. Aparte de las fracturas, solamente una de estas laminillas presenta huellas de impacto, y pudiera ser una barba de proyectil, alguna de las restantes podría ser fragmentos de puntas pero el reducido módulo de las mismas no parece apoyar esta hipótesis.

Los soportes empleados para fabricar laminillas truncadas, laminillas de muesca y denticuladas emplean soportes con módulos similares a las de dorso aunque un poco más anchos y espesos (8,1 mm de anchura media y 3,1 de espesor medio), con secciones triangulares obtusángulos con el ángulo centrado o lateralizado indistintamente. Los soportes son menos estandarizados y las materias primas de menor calidad, por ejemplo las dos laminillas de muesca están fabricadas en sílex Urgoniano. El retoque es muy fino o marginal y todos estos útiles salvo una laminilla de muesca aparecen fracturados. Aparte de esto, solamente una lámina truncada muestra huellas de uso, en este caso se trata de desconchados de uso en ambos filos laterales.

Diversos (fig. 87.21-24): Es el segundo grupo más numeroso del nivel con 14 ejemplares clasificados como diversos. Entre el utillaje diverso destacan las lascas retocadas parcialmente (retoque simple directo, inverso y alternante, y también algún elemento con retoque abrupto parcial), fragmentos de útiles y soportes laminares con retoques marginales o pseudoretoque.

Esta categoría de utillaje fabricado de forma expeditiva y sin una selección clara de soportes o materias primas, adquiere mucha importancia ya que es bastante representativa de un nivel con un utillaje retocado escaso y de aspecto tosco y poco elaborado.

Conformación y mantenimiento del utillaje lítico

Lascas de reavivado, golpes de buril y astillas: La presencia de lascas de reavivado en este nivel es testimonial (N=2) y parecen estar vinculadas con el reavivado de utillaje espeso cómo raederas. Estas lascas son de pequeño tamaño (9x10x3 mm de media) y proceden de útiles fabricados en sílex del Flysch.

Los golpes de buril (N=10) y las astillas (N=9) son más abundantes y en este nivel no parecen ser productos de primera intención, sino estar vinculados a la fabricación, uso y reavivado de útiles como los buriles o las piezas astilladas.

La mayor parte de los golpes de buril están fragmentados y tienen un tamaño bastante menor (16x4x3 mm de media) que el documentado para las laminillas del nivel II-III. Presentan secciones marcadas, predominando las secciones en forma de triángulo rectángulo, puesto que suelen arrastrar restos de una cara ventral fósil en un lateral. La gran mayoría son golpes de buril de primera generación, es decir que están vinculados a las fases iniciales de explotación de estos útiles (también arrastran



87. irudia. II-III. mailako substratu-tresnak, racletteak, ijekitxo ukituak eta bestelako tresneria. 1-3 Karrakagailuak; 4-6 Dentikulatuak; 7-8 Kamerrak; 9-11 Racletteak; 12-14 Bizkardun ijekitxoak; 15 Kamerdun ijekitxoak; 19 Ijekitxo dentikulatua; 20 Mozturadun ijekitxoak; 21-24 Askotariko tresnak.

Figura 87. Utillaje de sustrato, raclettes, laminillas retocadas y utillaje diverso del nivel II-III. 1-3 Raederas; 4-6 Denticulados; 7-8 Muestras; 9-11 Raclettes; 12-14 y 16-18 Laminillas de dorso; 15 Laminilla de muesca; 19 Laminilla denticulada; 20 Laminilla truncada; 21-24 Útiles diversos.

kin lotu beharrekoak dira (erauzte lanak gidatzeko baliaturiko gandorren hondakinak ere daramatzate). Askoz ere gutxiago azaldu dira, ordea, erabili ondoren zulakaitzen birbizitze jarduerarekin loturik ondozka bideratuko ziren zulakaitz-ebakinak.

Euskarri hauek bertako Flysch-eko suharrian landuriko tresnetatik datoz batez ere; tresna gutxi batzuk, halarik ere, kanpoko suharri zehaztu gaberen batean eta Urbasako suharrian taxutuak dira. Zulakaitz-ebakinen kategoriaren presentzia ez da oso esanguratsua –bat dator datu hori berreskuratu dugun zulakaitz kopuruarekin–, eta haietako bakarrik ere ez zen ondoren ukitu.

Beste horrenbestekoa-edo gertatzen da ezpalean arloan: zulakaitz-ebakinenaren antzeko presentzia dute eta horren gutxi ($K=3$) dokumentatu ditugun pieza ezpalduen erabilerearen ondoriozko emaitza izango ziren. Beste tresna mota batzuen birbizitze jardueren ondorio ere izango ziren, beharbada, kontuan hartzen badugu multzo honetan kontrakolpe birbizituri-ko karrakagailu bat azaldu zela.

Hainbat molde erakusten dituzten euskarriak dira, moduluak handiak eta txikiak ($17 \times 12 \times 5$ mm batez beste) eta kasu batzuetan erauztekoan jasaniko ukaldien ondorioz zatitu ziren. Gaintxurizketako Flysch-eko suharria eta haitzuloko suharri urgoniarra baliatu zituzten lehengai gisa. Ez dirudi espresuki baliaturiko euskarriak direnik, eta batez bestekotik gorako neurria duen ale bakar bat baizik ez da ukiturik ageri, ertzean bideraturiko ukiera erdi-malkartsuaren bitartez hain zuzen ere.

7.7. LABURPEN TEKNOLOGIKOA

Materialak metatu ondoko prozesu batzuen eragingarritasun xamarra jasan du II-III. mailako multzoak. Prozesu horiek dirrela medio, nahasi egin dira materialak eta zalantzan jarri dugu, horrenbestez, multzoaren osotasuna. Ageri duen itxura nahasi horrengatik ere, beste faktore batzuek, hala nola mailaren koherentzia teknologikoak eta tipologikoak eta mihizatze-segida fisiko batzuk berreskuratu izanak, indartzen dute mailaren nolabaiteko osotasunaren aldeko ideia.

Mailak ageri dituen arazoak aipatu ondoren, multzoa ezagarritzen saia gaitezen:

- Multzoaren izaera nahasia eta aldarazia.
- Suharria da lehengai nahiena (% 97); alabaina, beste gai batzuen erabilera ere hauteman da: kuartzoa, kuartzita, margak. Aurreko mailan ez bezala (gogoan har bedi industria makrolitikoaren erabilerearen ondorioa zela maila horretan bestelako lehengaien presentzia), printza eta lanketa-hondakin gisa ageri dira maila honetan.
- Hornikuntzari begira, gehiago baliatu ziren inguruko suharri-azaleratzeak, kalitatez horren onak ez izanagatik ere. Zentzu horretan aldaketa nabariak sumatzen dira beheagoko mailen aldean, haitzuloko bertako suharri urgoniarra baita erabiliena, eta Gaintxurizketako Flysch-eko haren ondokoa. Bidaxuneko Flysch-eko eta Urbasako suharriak, aldiz, ez ziren ia-ia erabili, aurreko mailetan ugari ageri arren. Anekdotak hutsa, dira, bestalde, leku urrunagoetako suharri motek, hala nola Trebiñukoak, eskaintzen dituzten portzentajeak.
- Ikuspuntu teknologikotik maila berezia da guztiz, aztarnen % 70etik gora formarik gabeko zatiak eta 10 mm-tik beherako ezkalak direlako. Lanketa jarduerak bizi-biziki izan zirelako hartu beharko genuke, horrenbestez, kontuan,

restos de crestas usadas para guiar la extracción), mientras que los sucesivos golpes de buril relacionados con el reavivado de los buriles tras su uso son mucho más escasos.

Estos soportes proceden de útiles fabricados fundamentalmente con sílex local del Flysch, aunque aparece algún ejemplar fabricado en sílex exógeno indeterminado y en sílex de Urbasa. La categoría de los golpes de buril tiene una presencia discreta en el nivel, coherente con la escasez de buriles recuperados, y ninguno de ellos se ha retocado posteriormente.

Algo parecido ocurre con las astillas que tienen una presencia similar a los golpes de buril y serían producto del uso de los escasos útiles astillados documentados ($N=3$). Quizá también se produzcan por el reavivado de otro tipo de utillaje, debemos recordar que en este conjunto se recuperó una ramera reavivada mediante contragolpe.

Son soportes de morfología variada, módulos medianos y pequeños ($17 \times 12 \times 5$ mm de media) y en algunos casos se han fracturado por el impacto al extraerse. Las materias primas empleadas son el sílex del Flysch de Gaintxurizketa y el sílex Urganiano de la cueva. No parecen ser soportes buscados y solamente un ejemplar de un tamaño mayor al de la media se ha retocado mediante retoque semiabrupto marginal.

7.7. SÍNTESIS TECNOLÓGICA

El conjunto del nivel II-III está bastante afectado por distintos procesos posdeposicionales que indican una mezcla de materiales que hace que pongamos en duda la integridad del conjunto. A pesar del aspecto alterado del conjunto hay otros factores que apoyan cierta integridad del nivel, como son su coherencia tecnológica y tipológica y el hecho de que se han recuperado varias secuencias de remontados físicos.

Una vez comentados los problemas del nivel vamos a pasar a intentar caracterizar el conjunto:

- Carácter alterado del conjunto.
- El sílex es la materia prima preferida (97%) aunque se detecta un uso puntual de otras materias como cuarzo, cuarcita o margas. A diferencia del nivel anterior, en que esta presencia de otras materias primas derivaba de su uso en la industria macrolítica, en este nivel aparecen en forma de lascas y restos de talla.
- Incremento de las fuentes de aprovisionamiento de sílex cercanas de inferiores calidades. En este aspecto se aprecian cambios notables con respecto a los niveles inferiores siendo el más utilizado el sílex Urganiano procedente de la propia cueva seguido por el sílex del Flysch de Gaintxurizketa, mientras que el sílex del Flysch de Bidache y el de Urbasa, muy abundantes en los demás niveles, aquí apenas se utilizan. Otros sílex exógenos procedentes de lugares bastante alejados, como el de Treviño, aparecen en porcentajes anecdóticos.
- Desde el punto de vista tecnológico se trata de un nivel peculiar; puesto que más de un 70% de los restos son fragmentos informes y esquirlas menores de 10 mm, lo que nos hace pensar en actividades intensas de talla, pero esto no se corresponde con la escasez de núcleos y

baina uste hori ez dator nukleo eta egokitzapenerako produktuen arloan dokumentatu diren kopuru urriekin bat. Uste izatekoa da, beraz, ezkail eta formarik gabeko zatien kopuru handi hori lanketarako gaitasun ezaren eta erabili beharreko lehengaiak hautatzeko uneko jokamolde zabarraren, edo mailak ageri duen izaera nahasiaren, ondorioa izango dela. Bestalde, tresnen ukitze eta birbizitze jarduerak ere ez dira behar bezala adieraziak azaldu.

- e. Lanketa-sistema gutxi dokumentatu dira. Ijeki-euskarrien ekoizpen-sistemak, prisma itxurako nukleoetatik abiatuturik eta printza gainean, alde batetik, eta printzen ekoizpenerako sistema oso ximpleak, bestetik. Ekoizpen mota hauek bertan bideratzen ziren eta ez zuten, itxura guztien arabera, nukleoan halako prestaera edo mantentze jarduera berezirik eskatzen, kontuan hartzen bada maila honetan zeinen egokitzapen gutxi azaldu den. Arras ustiatuak eta ahitze bidean ageri dira bertan bideratzen ziren ekoizpen-jarduera haietan baliaturiko nukleoak. Ijeki-nukleoaren kasuan, zulakaitzen moduko lanketa-eskemak bideratu zituzten azken faseetan bi kasuetan. Aztarnategian landuriko ijeki-euskarriak ijekitxo ukituak, bizkardun ijekitxoak eta askotariko tresnak lantzeko erabili ziren batez ere.

Printzen kasuan, ijekien lanketa-sistemen arabera landu ziren batzuk, baina helburu horri begira berariaz eta,aldi berean, oso oinarritzko moduan bideratu ziren ekoizpeneren emaitza ditugu beste batzuk (sistema polobakarrak eta disko motakoak). Aztarnategian taxuturiko printzak tresneria ukituaren zati handi bat itxuratze baliatu ziren, eta haien artean bereziki aipatuko ditugu substratu-piezak, pieza ezpalduak eta zulagailuak, maila honetan ugari azaldu direnak.

Bertan bideratu zen euskarri-ekoizpen horretaz gainera, kanpotik inportatzen ziren, itxuraz, neurri handiagoko ijeki-euskarriak. Bi modulu bereizten dira haien artean, ijeki zabalena bata eta neurri handiko ijekiena bestea. Euskarri horiek askoz ere gutxiago dira eta tresna ukitu bihurtu zituzten aiz, orri ukituak, mozturak, zulakaitzak eta marruskak lantzeko, baina maila honetan ez dira horren ugari ageri.

- f. Tresneria ukituari dagokionez, II-III maila da, hain zuzen ere, Aitzbitarte IIIko sekuentzia osoan euskarri ukitu gutxien ageri duena (% 9,7). Ikuspegi teknologikotik, haustura nabari da maila honen eta behekoen artean: aurrenik, konpentsatuago ageri dira talde tipologiko desberdinak, eta zulakaitzen taldea ez da nagusi ageri, Noailles zulakaitzen bat edo beste azaldu arren. Substratu-piezak dira maila honetan talde nagusia, eta ondotik datoz tresneria ukitua eta ijekitxo ukituak. Aipatzeko moduko ordezkariak dute, bestalde, zulagailuen (mikrozulagailuak dira gehienak) eta mozturadun piezen taldeak. Zulakaitzak, bizkardun piezak, raclette direlakoak eta pieza ezpalduak ez dira horren kopuru esanguratsuetan azaldu, eta oso urri agertu direlako ditugu aipagarri beste talde batzuk, hala nola marrusketa eta tresna bikoitz edo konposatuena. Puntarik, ez bizkardunik eta ez hostokaririk, azaldu ez izana dugu nabarmendu beharra, azkenik.

Taxutuak izateko hautatu ziren euskarriei erreparatu gero, hautatzeko unean beste mailetan baino zabarrago jokatu zela aipatuko dugu lehenik. Printzak bezala –azalekoak ziren haietako asko– ijeki-euskarriak ukitu ziren, eta modulu handienak eta lodienak aukeratu zituzten gehien batean. Gutxi eta zabar landuriko tresneria itxuraz trauskila da oro har nagusi.

productos de acondicionamiento documentados. Con lo cual nos lleva a pensar que esta abundancia de esquirlas y fragmentos informes se derivan de la mala aptitud para la talla y escasa selección de las materias primas usadas, o del carácter alterado del nivel. Por otro lado las actividades de retoque y reavivado del utillaje tampoco aparecen bien representadas.

- e. Escasez de sistemas de talla documentados. Por un lado sistemas de producción de soportes laminares (laminillas y láminas estrechas) a partir de núcleos prismáticos y sobre lasca, y por otro sistemas bastante simples orientados a la producción de lascas. Este tipo de producciones se realizan *in situ* y parece que no conllevan una preparación o un mantenimiento excesivo de los núcleos, en vista de la escasa presencia de acondicionamientos en el nivel. Los núcleos correspondientes con estas producciones *in situ*, aparecen muy explotados y en fases de agotamiento. En el caso de los núcleos laminares, en un par de casos en las últimas fases se ha pasado a utilizar esquemas de talla de tipo buril. Los soportes laminares fabricados en el yacimiento se han empleado fundamentalmente para elaborar laminillas retocadas y de dorso, y utillaje diverso.

En el caso de las lascas, una parte son subsidiarias de los sistemas de talla laminar, pero otras son producto de explotaciones específicas aunque bastante sencillas (se emplean sistemas unipolares, y discoides). Las lascas fabricadas en el yacimiento se emplean para conformar gran parte del utillaje retocado, entre los que destacan los útiles de sustrato, las piezas astilladas y los perforadores, muy abundantes en este nivel.

Además de esta producción de soportes *in situ*, parece que hay una importación de soportes laminares de mayor tamaño, pudiéndose diferenciar dos módulos, uno de láminas anchas y otro de láminas de gran formato. Estos soportes son mucho más escasos y con frecuencia se transforman en utillaje retocado como hojas retocadas, truncaduras, buriles o raspadores, que en este nivel no son tan abundantes.

- f. Acerca del utillaje retocado, el nivel II-III es el nivel con menor proporción de soportes retocados (9,7%) de toda la secuencia de Aitzbitarte III. Desde el punto de vista tipológico vemos una ruptura entre este nivel y los niveles inferiores: en primer lugar los grupos tipológicos están más compensados, y ya no hay un predominio del grupo de los buriles, aunque todavía aparece algún buril de Noailles. Aquí son las piezas de sustrato el grupo mayoritario, seguidas de cerca por el utillaje diverso y por las laminillas retocadas. Otros grupos bien representados son las láminas retocadas, los perforadores (la mayoría son microperforadores) y las piezas truncadas. Los buriles, las piezas de dorso, las raclettes y las piezas astilladas presentan valores discretos, y destacan por su escasez otros grupos como los raspadores o el utillaje doble o compuesto. Por último, hay que mencionar la ausencia de puntas, tanto de dorso como foliáceas.

Si nos fijamos en los soportes que se han escogido para ser conformados vemos una menor selección de los mismos, retocándose indistintamente tanto lascas, muchas de ellas corticales, como soportes laminares, eligiéndose por norma general los módulos más grandes y espesos. En general predomina el utillaje poco elaborado y de aspecto tosco.

- g. En el conjunto del nivel II-III predomina una estrategia más

- g. II-III. mailan bereziki nabarmentzen da berehalakotasuna lehenesten zuen estrategia; haren arabera, bertako lehengaiak baliatu ziren bertan neurri txikiko printzak eta ijeki-euskarriak lantzeko, eta gordinik nahiz ukiturik erabili ziren pieza haiek berehalako beharrei begira. Estrategia honen osagarri bideratu zen modulu handiagoko ijeki-euskarrien inportazioa, baina ez dirudi leku urrunetatik ekarriko zituztenik, arras gutxi azaldu baitira leku oso urrunetako lehengaiak.
- h. Mailaren ezaugarri eta funtzioari dagokienez, badirudi bizileku edo bizileku-lantegi izaerako okupazio ez oso egonkor eta ez oso espezializatu baten aurrean gaudela. Hara eramaten ziren aurrez landuriko euskarri eta tresna jakin batzuk, eta euskarriak lantzeko jarduera batzuk bideratzen ziren bertan berehalako premiei erantzuteko. Ehizarekin loturiko tresnak konpontzeko jarduerak ere bideratuko ziren beharbada (bizkardun ijekitxoek maila honetan duten garrantziagatik).

inmediata que implica el uso de materias primas locales para fabricar *in situ* lascas y soportes laminares de pequeño tamaño, que se emplean en bruto o retocados para las labores más inmediatas. Esta estrategia se ve complementada con la importación de soportes laminares de módulos mayores, aunque no parece que se introduzcan desde lugares lejanos, ya que las materias primas procedentes de lugares muy alejados son muy escasas.

- h. Respecto a las características y función del nivel, parece que se trata de ocupaciones poco estables de carácter doméstico o mixto y poco especializadas. Donde se introducen ciertos soportes y cierto utillaje elaborado previamente y dónde realizan algunas tareas de fabricación de soportes orientadas a hacer frente a las necesidades más inmediatas y quizá también tareas de reparación de útiles relacionados con tareas cinegéticas (por la importancia del grupo de las laminillas de dorso).

8. AITZBITARTE III HAITZULOAREN BARRUNBEKO GOI MAILEN EBALUAZIO OROKORRA

IV. mailak ca. 22,8 eta 16 ka BP arteko datazioa jaso du (27869 – 18750 cal BP), eta II-III. mailak 18 eta 13,8 ka BP arteko datazioa (22900 – 16215 cal BP). Oso arazotsuak dira datazio horiek; aldi kronokultural desberdinei (Gravette, Solutre eta Madeleine) dagozkien probabilitate-tarte oso zabalak hartzen dituzte, alde batetik, eta probabilitate-tarteak elkarren gainean, eta datazio bat alderantziz, ageri dira batzuetan, bestetik. Egoera argi lezake hein batean mailen izaerak, jatorri tafonomikoko alterazioen lekukotasunak ageri baitituzte bi mailak; halatan, okupazio-une desberdinei dagozkien material nahasteak adieraziko lizkigukete data horiek. Adibidez, Noailles zulakaitzek IV. mailan iraun izanak eta V. eta IV. mailen arteko kontaktu-eremuan Solutre aldiko erramu-punta bat azaldu izanak itxuraz adierazi nahi ligukete maila horretan materialen nahaste bat gertatu zela beheragoko mailako Gravette okupazioetako materialen eta Solutre aldiaren haitzuloaren barrunbean izan ziren okupazioetakoak izango ziren materialen artean. Horrelako zerbait gertatuko zen goiko mailan, mailako materialekin batean nahasiko baitziren hartan haitzuloaren gainazaletik edota beste eremu batzuetatik etorritako materialak.

8. VALORACIÓN GENERAL DE LOS NIVELES SUPERIORES DE AITZBITARTE III INTERIOR

El nivel IV ha sido datado entre ca. 22,8 y 16 ka BP (27869 – 18750 cal BP) y el Nivel II-III se ha datado entre 18 y 13,8 ka BP (22900 – 16215 cal BP). Estas dataciones son muy problemáticas, por un lado enmarcan lapsos largos de probabilidad que se corresponden con diferentes periodos cronoculturales (Gravetiense, Solutrense y Magdaleniense), además los intervalos de probabilidad se solapan y una de las dataciones está invertida. La naturaleza de los niveles, puede aclarar un poco la situación puesto que ambos niveles presentan evidencias de alteración de origen tafonómico, con lo cual las fechas nos estarían indicando mezclas de materiales correspondientes con diferentes momentos de ocupación. Por ejemplo, la continuidad de buriles de Noailles en el nivel IV y la presencia de una punta laurel solutrense en el contacto entre los niveles V y IV parecen indicar en este nivel se produce una mezcla de materiales entre las ocupaciones gravetienses de los niveles inferiores con materiales que podrían proceder de ocupaciones solutrenses de la cueva. Algo parecido ocurriría en el nivel superior dónde se mezclarían materiales del nivel con otros procedentes de la superficie o de otras zonas de la cueva.

Maila Nivel	Metodoa Método	Azala Lecho	Erreferentzia Referencia	Materiala Material	Batez bestekoa Media	Desbideratzea Desviación	Cal BP % 99,7
II-III		5	Ua-3119	Hezurra Hueso	13870	130	17428-16215
II-III		5	Ua-3116	Hezurra Hueso	18270	220	22900-21296
IV		6	Ua-3117	Hezurra Hueso	16015	185	20035-18750
IV		6	Ua-3118	Hezurra Hueso	22840	315	27869-26105

28. taula. C14 datazioak Aitzbitarte haitzuloaren barrunbeiko goi mailetan, OxCal 4 bitartez eta IntCal13 baliaturik kalibratuak.

Tabla 28. Dataciones C14 de los niveles superiores de la zona interior de Aitzbitarte III, calibradas con OxCal 4.2 (Bronk Ramsey, 2009) usando la curva IntCal13 (Reimer, et al., 2013).

Laburbidurik, eskura dauzkagun datuekin ezin dugu maila hauen kronologia ziurtasunez zehaztu.

IV. mailako datazioetako batek zuzenean lotzen du aipaturiko IV. maila hori sarrerako III. mailarekin (ca. 25.815 eta 18.400 BP datazio egokitu zaio). Nolabaiteko hurbiltasun kronologiko hori kontuan harturik, hona hemen bi maila horien artean dauden elementu komun eta desberdintasun nabarietako batzuk.

Sarrerako III. mailako multzoaren berezigarrien antz handia dute IV. mailako harrizko multzoaren ezaugarri batzuk. Adibidez, suharria lehengai gisa guztiz erabilia izan zen arren, beste gai edo material batzuk erabili ziren puntualki; hala eta guztiz ere, suhariaren hornikuntza-lekuei dagokienez, sarrerako III. mailan bestean baino garrantzi handiagoa dute kanpokoek. Ekoizpenaren arloan, bi mailetan dokumentatu dira printzen eta ijekitxo zabal eta estuen *in situ* ekoizpen-sistemak, neurri handiagoko ijeki-euskarrien inportazioarekin batera. Ijekitxoaren ekoizpena hegalak markaturik eta aurrealdeak estu ageri dituzten nukleoetatik abiatzen zen, eta garrantzia zuen, halaber, zulakaitz lodietatik abiatutako ekoizpenak. Bizkardun euskarri txikiak eta Noailles zulakaitzak lantzeko baliatzen ziren bertan edo *in situ* bideratzen ziren ekoizpen horien araberako produktuak.

